

erizaintzako zainketa  
planak  
lehen mailako atentzioan

P E D I A T R I A N P R A K T I K A R A K O G I D A K



Osakidetza  
Servicio vasco de salud



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SANIDAD



**ARGITALPENA**

1. 2005ko Iraila

**ALEAK**

1.500

© Osakidetza/Euskal osasun zerbitzua  
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

**INTERNET**

www.osanet.euskadi.net<<http://www.osanet.euskadi.net>  
coordinación@sscc.osakidetza.net

**I.S.B.N.**

84-89342-45-8

**L.G.:**

BI-2743-05

**ARGITARATZAILEA**

Osakidetza/Servicio vasco de salud  
Alava, 45  
01006 Vitoria-Gasteiz

**SALNEURRIA**

6 Euro (BEZ barne)

<b>AURKEZPENA</b> .....	<b>5</b>
<b>ERREKONozIMENDUAK</b> .....	<b>7</b>
<b>SARRERA</b> .....	<b>9</b>
<b>PROIEKTUAREN DISEINUA ETA GARAPENA</b> .....	<b>11</b>
<b>ESPARRU TEORIKOA: VIRGINIA HENDERSONEN EREDUAREN KONSTRUKTUAK</b> .....	<b>13</b>
<b>BEHARREN BALORAZIOA</b> .....	<b>17</b>
• Oxigenatzeko beharra .....	<b>19</b>
• Elikatzeko beharra .....	<b>23</b>
• Eliminatzeke beharra .....	<b>28</b>
• Mugitzeko eta jarrera egokian egoteko beharra .....	<b>33</b>
• Lo egiteko eta atsedeen hartzeko beharra .....	<b>35</b>
• Janzteko eta eranzteko beharra .....	<b>38</b>
• Termorerregulatzeko beharra .....	<b>40</b>
• Gorputz higieena eta Larruazalaren osotasuna mantentzeko beharra .....	<b>42</b>
• Arriskuak saihesteko beharra .....	<b>45</b>
• Komunikatzeko beharra .....	<b>50</b>
• Behar espiritualak .....	<b>55</b>
• Nork bere burua gauzatzeko beharra .....	<b>57</b>
• Atsegin hartzeko beharra .....	<b>61</b>
• Ikasteko beharra .....	<b>63</b>
<b>DIAGNOSTIKOAK ETA INTERBENTZIOAK</b> .....	<b>67</b>
<b>PROZESUAK ESTANDARIZATU</b> .....	<b>101</b>
<b>ZAINKETA ESTANDARIZATUEN PLANA</b> .....	<b>103</b>
• Haur osasuntsuarentzako ZEP .....	<b>103</b>
<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>105</b>
<b>ERANSKINAK</b> .....	<b>109</b>
• Interbentzioetarako prozedurak .....	<b>111</b>
• Erizaintzako diagnostikoen katalogoa Beharren arabera .....	<b>137</b>



Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren helburua biztanleriaren osasun beharrak asebetetzeko zerbitzu publikoak hornitzea da, ondorengo printzipioak betez: zuzentasuna, elkartasuna, eragingarritasuna eta kalitatea, osasunaren sustapen, prebentzio, zainketa eta hobekuntzarako jarduerak garatuz.

Orientazioak pazientea du oinarri zalantzarik gabe, eta horrek esan nahi du zerbitzuko erabaki eta jarduera guztiak orientatzeko eta lehentasuna emateko faktore nagusiak paziente bera eta haren prozesua direla; hori dela eta, erakunde guztiari jokoera zehatzak eskatzen zaizkio, horien artean, osotasuna kontuan hartzea eta tratatu pertsonalizatua.

Lehen mailako atentzioko erizainen helburua erabiltzaileen/senideen osasuna sustatzeko, mantentzeko edo hobetzeko beharrezko zainketak eskaintzea da, autozainketa egin ahal izan dezaten berez dituzten baliabideak indartuz.

Orain aurkezten dugun Praktikaren Gida honen helburua lehen mailako atentzioko erizainei beren misioa betetzen lagunduko dien tresna eskaintzea da, beren interbentzioetan lehentasunak ezartzeko elementu kontzeptualak eta metodologikoak emango diena, erizaintzako atentzioko prozesua Virginia Hendersonen beharren ereduaren arabera aplikatuz.

Horrez gain, haur osasuntsuarentzako Zainketa Estandarizatuen Plana ere gehitu da. Plan hori lehen mailako atentzioko erizainek kontrola eta jarraipena bere gain hartzeko prozesu gisa aurkeztu da, Lehen Mailako Atentzioko Programa Kontratuko Eskaintza Nagusiaren arabera.

Lan hau egiten lagundu duten erizain guztiei nire eskerrik onena eman nahi diet, egindako ahalegi-nagatik, erakutsi duten esperientzia handiagatik eta erizaintzako zainketak hobetzen egindako ekarpenagatik nire errekonozimendua agertuz. Izan ere, horiek dira, besteak beste, gure osasun sistemari balio erantsia ematen dioten ezaugarriak.

Jon Darpón Sierra

**ASISTENTZIA SANITARIOKO ZUZENDARIA**

**Osakidetza/Servicio vasco de salud**



Proiektu hau Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzak eta Lehen Mailako eta Komunitateko Atentzioko Zuzendariordetzak sustatuta egin da.

## LAN TALDEA

Abrego Ibáñez, M<sup>a</sup> Jesusa. Erizaina. Aranbizkarra Ilko O.Z. Arabako Eskualdea

Aguirre Beldarrain, Ana. Erizaina. Lasarteko O.Z. Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdea

Bilbao Madariaga, José Luis. Erizaina. Lehen Mailako Atentzioko Zuzendariordetza

Cañas García, M<sup>a</sup> Teresa. Erizaina. Osakidetzaren Erakunde Zentrala

Causo Mouriz, Carmen. Erizaina. Lehen Mailako Atentzioko Zuzendariordetza

Correyero Tadeo, Flor. Erizaina. Gasteizko Erizaintzako E.U.

Gutierrez Oteiza, Begoña. Erizaina. Basauri-Arizko O.Z. Barnealdeko Eskualdea

Jáuregui Larrabeiti, Agurtzane. Erizaina. Leioako O.Z. Uribeko Eskualdea

Jimeno Huarte, Maite. Erizaina. Andoingo O.Z. Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdea

Lorenzo Hernández, M<sup>a</sup> José. Erizaina. Errekaldeko O.Z. Bilboko Eskualdea

Ureta de Pedro, Magdalena. Erizaina. Markonzagako O.Z. Ezke.-Enkarterriko Eskualdea

## COLABORADORES

Bilbao Markaida, Begoña. *Erizaintzako Zuzendaria. Bilboko Eskualdea*

Boira Opitz, Carlos. Erizaina. Amurrioko O.Z. Barrualdeko Eskualdea

Díez Alonso, Charo. *Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdeko Erizaintzako zuzendaria*

Gallo Estrada, Luis Ángel. *Erizaintzako zuzendaria. Barrualdeko Eskualdea*

Porta Fernández, Ana. *Erizaintzako Zuzendaria. Arabako Eskualdea*

Prada López, Carmen. *Erizaintzako Zuzendaria. Ezker-Enkarta. Eskualdea*

Rodríguez Ramírez, Carmen. *Erizaintzako Zuzendaria. Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdea*

Sánchez Mata, Ángel. *Uribeko Eskualdeko Erizaintzako zuzendaria*

Santo Tomás Pajarrón, Alberto. *Gasteizko Erizaintzako E.U.ko zuzendaria*



## HELDUEN BALORAZIOAREN GIDAKO LAN TALDEA

Aguirre Odriozola, Isabel. Erizaina. Parte Zaharreko O.Z. Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdea

Amezua Urcelay, Carmen. Erizaina. Gernikako O.Z. Barrualdeko Eskualdea

Arara Vidal, Isabel. Erizaina. Muskizko O.Z. Ezkerraldea-Enkartazioetako Eskualdea

Bagües Erriondo, Mikel. Erizaina. Iztietako O.Z. LMUB. Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdea

Bilbao Madariaga, José Luis. Erizaina. Gernikako O.Z. Barrualdeko Eskualdea

Causo Mouriz, Carmen. Erizaina. Lehen Mailako Zerbitzu burua. Osakidetza

Elorriaga Axpe , Antonio. Erizaina. Algortako O.Z.ko LMUB. Uribe Eskualdea

Fernández de Gamboa Quitian, Isabel. Erizaina. Gasteizko Erizaintzako E.U.

Gómez Zabala, M<sup>a</sup> José. Erizaina. Landakoko O.Z. Barrualdeko Eskualdea

Ibarguengoitia Alonso, Javier. Erizaina. Basurtu-Briñasko O.Z. Bilboko Eskualdea

Izquierdo de la Guerra, Ana. Erizaina. Osakidetzaren Erakunde Zentrala

Jiménez Pérez, Maite. Erizaina. Indautxuko O.Z. Bilboko Eskualdea

Fdez de Larrea Ortiz de Zárata, Fernando. ????

Miguel Martín, David. ????

Oiarzabal Uriarte, Marian. ????

Robledo Arrobona, M<sup>a</sup> Jesús. Erizaina. Albiako O.Z. Bilboko Eskualdea

Ruiz de Alegría Fdez de Retana, Begoña. Erizaina. Gasteizko Erizaintzako E.U.

Ruiz de Ocenda García, M<sup>a</sup> Jesús. Erizaina. Erizaintzako Aholkularia. Erakunde Zentrala

Sacristán Sainz de Aja, Blanca. Erizaina. Ortuellako O.Z. Ezkerraldeko-Enkartazioetako Eskualdea

Sedano Gárate, Marian. Erizaina. San Martingo O.Z. Arabako Eskualdea

Sola Gainza, M<sup>a</sup> Angeles. Erizaina. Iztietako O.Z. Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdea

Torroba Balda, Isabel. Erizaina. Laudioko O.Z. Barrualdeko Eskualdea

Urkiola Pujana, Carmen. Erizaina. Azkoitiko O.Z. Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdea

Usandizaga Endaya, Arantza. Erizaina. Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdeko Eriz. zuzd.aren ondokoa

Villa Canive, Arantza. Erizaina. Gernikako O.Z. Barrualdeko Eskualdea

Lehen Mailako Atentzioa da haurren osasun arazo gehienak mahaigaineratzen diren asistentziako lehen maila; horrez gain, askotan, arazo horietako gehienak agertu aurretik saihestu daitezke.

Haurra aztertzeako kontsultak aukera ona izan ohi dira pediatriako erizainak arazoei antzemateko eta beharrezko zaintzak eskaintzeko. Egoera horrek ama-haurren zainketen garapena sustatu beharra dagoela erakusten digu, aldi berean gure Erakundearen zein gizartean oro har gertatzen diren aldaketara moldatuz, ikuspuntu berri horri modu egokian erantzunez.

Haurrak bere hazkuntzako eta garapeneko une guztietan dituen behar fisikoei zein emozionalei erantzun ahal izateko, pediatriako erizainak ondorengo alor guztiak hartu behar ditu aintzat: sendaketa, prebentzioa, hezkuntza eta promozioa, ingurunea eta familia beti kontuan hartuz.

Familia, bere zentzu zabalenean, pertsonaren gaixotasun eta osasun prozesuetan zainketen iturria da, are gehiago haurtzaroan. Familia zainketen gune gisa hartzea zainketen filosofiatzat hartu ohi da.

Haurren osasunak garrantzi zehatza du biztanlerian, eta horren garrantzia nabarmena da Osakidetzan ere, Lehen Mailako Atentzioko Programa Kontratuko Eskaintza Nagusiaren zati baita, EAEko Osasun Planetik abiatuta.

Horrenbestez, haurraren osasuna mantentzeko ezinbesteko oinarri gisa prebentzioa eta promozioa hartuta (lehen aipatu ditugunak), posible eta egoki da haurraren atentziara bideratutako zainketa plan individual eta estandarizatuak ezartzea.

Pediatriako zainketa planak estandarizatzeko zainketen programazioan eta aplikazioan kalitatea lortzeko tresna gisa balio dezake, abian jartzen laguntzeaz gain. Estandarizazioak egoera edo prozesu zehatz bakoitzerako zainketak aurreikusten ditu eta, funtsean, aurretiaz formulatutako planak dira, zainketen plan baten garapena eta oharpena bizkortzeko erabiltzen direnak. Horrez gain, haur guztiei hainbat egoera jakinetan eskaini beharreko errutinazko zainketen gutxieneko maila ezartzen dute. Baina ez dugu ahaztu behar estandarizatutako zainketen planak gida izan behar duela eta ez irizpen klinikoaren ordezkoa.

Hori erabiltzeak Erizaintzako zerbitzuen eskaintza ezagutzen laguntzen du, parte hartzen duen prozesu guztietan, eta interbentzioak eta emaitzak ere neurtzen ditu (Osakidetza 1996). Horregatik guztiatik, zentzuzkoa da pediatriako kontsultako lan dinamikan erizaintzako prozesua kontsultaren garapenean sartzea, eta pentsamendu kritikorako erreminta bihurtzen da horrenbestez, erizainei beren eguneroko lanean lagunduko dieten tresna kontzeptual eta praktikoak ematen baitizkie (Serrano Sastre et al. 1997).



# Proiektuaren diseinua eta garapena

Zainketa Pediatrikoen Gida hau lantzearen helburua erreferentzia testuinguru bihurtzea da lehen mailako atenzioko zainketa pediatrikoen plangintza egiterakoan. Aipatutako zainketa horien xedea osasuneko egoerak berreskuratzea, mantentzea, indartzea eta bultzatzea, eta gaixotasunak prebenitzea da.

Gida hau helduaren Gida eta horren banakoen zainketen plana berrikusi eta egokitu ondoren idatzi zen eta berrikuspen bibliografiko handiaren eta askotarikoaren babesari lotu zuen.

Gida hori egokitu aurretik, Balorazio Pediatrikoaren Gidaren "prototipoa" landu zen helduarena kontuan hartu gabe; metodo horri esker, haurren kasuan kontuan hartu beharreko edo balioztatu beharreko alor garrantzitsuak ez ahaztea lortu nahi zen; ondoren, horren edukia helduarenera igaro zen edukia zegozkien ataletara moldatuz eta helduaren Balorazioen Gidako atalen baitan sartuta ez zeuden gaiak geratu ote ziren aztertu zuten; hori guztia hartuta, proposamena eztabaidatzeari ekion zioten adostasuna lortu arte.

Helduaren Gida erreferentzia gisa izateak guztiekin lotura zuten faktoreen edo elkarrizketaren atalei emandako izena baldintzatu du. Hori dela eta, zenbaitetan, bi Gida horien arteko alde nagusia balioztatu beharreko adibideetan edo lotura duten zenbait faktore albo batera utzi izanean dago. Beste zenbaitetan, aldiz, bi Gidek emandako atalen azalpenak berdinak dira, haurrak edota horren zaintzaileek adingabearen beharrak asebetetzen dituela jakiteko ezagutu beharrekoan alde handirik ez bailitzateke egongo.

Erizaintzako balorazioa egiteko NANDAko nomenklatura, azalpenak edota terminologia, eta Virginia Hendersonen eredu erabili dira, Osabide programan erabilitako egiturari jarraitzeaz gain.

Erizaintzako Diagnostikoen Gida egiteko, helduetan topatutako erizaintzako diagnostikoen azterketa egin zen. Azterketa horren ondoren, helduetan topatutako lau DxE baztertu zituzten, arazo horiek pediatriako kontsultetan ohikoak ez direla jo baitzuten; horrez gain, beste 8 DxE berri ere baztertu zituzten.

Erabilitako Interbentzioen Gida ere aztertu zuten eta Gida horrek erizainak haurrekin eta zaintzaileekin pertsonalizatzerakoan landu zitzakeen jarduerak ere bil zitzakeela erabaki zen. Hori dela eta, interbentzioetan aldaketarik ez da izan, baina aurretik zeuden zenbait interbentzio erabiliz txosten berriren bat ere gehitu dute, adingabeen pentsatuz

Haur osasuntsuaren estandarra egiteko, bilaketa bibliografikoa egin zen eta lan taldeak erabili ohi duen eta kontsultan landu ohi duten dokumentazioa berrikusi zuen, jarraian erizaintzako interbentzioak taldeka biltzeko; zerrenda hori lehenengo kontrolen arabera egin zen eta, jarraian, etapa eta-rioren arabera:

Ondorengo arrazoiak direla eta, estandar gisa 0tik 14 urte bitartekoa hartu zen diagnostiko bakar gisa:

1. Erizainak balioztatutako eta landutako helburua estaltzen du, haurra eta haren zaintzaileak adingabearen beharrak asebetetzeko lan egin dezaten eta elkarrekin hobetzeko alorrak antzeman ditzaten.
2. Erizainek jaso eta PAPen bidez landu behar duten informazioa ez du bikoizten.
3. Oinarri gisa hartutako premisa ondorengoa da: pediatriako erizaintzako kontsultara "haur osasuntsuaren" kontrolerako joaten den haurrak beharrak asebeteta ditu Virginia Hendersonen ustez. Hau da, egoera hori dela eta, ertzainak osasuneko diagnostiko batekin lan egin behar du.
4. Estandar bakarra denez, erizainak bildutako datuak, jasotako hezkuntza eta beste azterketa batean eskainitako zainketen ebaluazioa kontsulta ditzake pantaila bakarrean.
5. Estandar horretarako proposatutako interbentzioak seira gutxitu dituzte eta ez diote aipamenik egiten inolako jarduerari modu espezifikoan; gainera, izaera irekia dute erizainak informatikoki erregistra dezan orain arte paperean edo oharren bidez gorde duena.

Erizaintzako balorazioa egiteko NANDAko nomenklatura, azalpenak edota terminologia, eta Virginia Hendersonen eredia erabili dira, Osabide programan erabilitako egitura jarraitzeaz gain.

Proiektua bideratzeko, hainbat betebeharrak zituzten lan taldeak sortu ziren:

- ▶ Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzak, Lehen Mailako Atentzioko Zuzendariordetzak eta 7 Osasun Eskualdeetako Erizaintzako Zuzendaritzek osatutako Proiektuaren Zuzendaritza taldea; horien betebeharrak proiektuaren buru izatea, hori erraztea eta hedatzea zen.
- ▶ Lan Zentraleko Taldea asistentziako, irakaskuntzako eta kudeaketako pediatriako erizainen lankidetzarekin; horien betebeharrak Helduaren Gida berrikustea eta pediatriaren alorrera moldatzea zen.

# Esparru teorikoa:

## VIRGINIA HENDERSONEN EREDUA

Diziplina askotako perspektiba batekin lan egiten denez, erizainen taldeak erizaintzako zerbitzua definitu beharra du, atenditzen dituen pertsonen osasuna birgaitu, mantendu eta sustatu nahi duen taldeari ekarpen zehatzak egiteko. Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da abiapuntuan egitura kontzeptual bat izatea, erizaintzako zerbitzua definitzen lagunduko duena, eta diziplina arteko taldeari irizpideak bateratzeko aukera emango diona, xede honekin: erizaintzako zerbitzuaren arloak ezagutu, zainketarako arloak identifikatu, lortu nahi den helburua esplizitatu eta erizaintzako interbentzioak zehaztu.

Esparru kontzeptual bat zainketari buruzko errepresentazio mental bat da, egin beharraren inguruan erizainen pentsamendua antolatzeke eta pentsamendu hori praktikara eramateko eraikia, bezeroaren eta profesioaren mesedetan (Mckenna, 1994). Abiapuntuko esparru kontzeptuala Virginia Hendersonena da. Hamer eta Hendersonen (1955) eta Hendersonen (1968) testuetan, Erizaintza honela definitzen da:

*"Pertsonen lagundu (osasuntsuei zein gaixoei) osasuna mantentzeko, suspertzeko edo heriotza duina eta baketsua izateko jarduerak egin ditzaten; izan ere, jarduera horiek gauzatu ahal izango lituzkete beharrezko ezagutzak eta borondatea edo indarra izango balute. Horrez gainera, ekarpen eksklusiboa da pertsonari ahalik eta azkarren asistentziatik independizatzeko laguntzea ere..."*

Abiapuntu horretatik, Lehen Mailako Asistentziako erizaintzako zerbitzua, batez ere, pertsonari gaitasunak barneratzen laguntzera bideratuko da, gaixotasun batetik edo bizitzako ziklo batetik ondorioztatzen diren egoerei bere kabuz aurre egiteko, ongizate maila handiagoa lortzeko helburuarekin. Erizaintzako profesionalek, tresna desberdinak erabiliz, baliabideak kudeatuz eta metodo desberdinak ezarriz, pertsonen lagunduko diete ezagutzak barneratzen, trebetasunak garatzen eta, finean, osasuna eta ongizatea bultzatuko duten ekintza egokiak burutzen.

Pertsona guztiek hainbat ekintza egiten dituzte, helburu batekin eta esanahi batekin. Esanahi horiek testuinguru kultural eta sozialek baldintzatuta daude, eta baita beste faktore batzuek ere, hala nola garapen etapak eta osasun egoerak. Horrenbestez, *pertsona* izaki integral gisa ulertzen dugu, elkarri eragiten dioten osagai biologikoak, psikologikoak, soziokulturalak eta espiritualak dituen izaki gisa. Ingurunearekin elkarreragiten duen pertsonak zainketarako dituen gaitasunak garatu eta hazi daitezkeen sustatzen du. Egileak pertsonaren hamalau behar edo balorazio arlo proposatzen ditu, aldaketa egoera baten aurrean erizainak kontuan hartu behar dituenak:

- ▶ Arnasa hartu normal
- ▶ Ongi jan eta edan

- ▶ Gorputzeko bide guztietatik eliminatu
- ▶ Mugitu eta jarrera egokiak izan
- ▶ Lo egin eta atseden hartu
- ▶ Arropa egokia aukeratu: jantzi eta erantzi
- ▶ Higiene eta garbitasun pertsonala mantendu eta tegumentuak babestu
- ▶ Gorputzaren tenperatura ohiko muge barruan mantendu
- ▶ Inguruneko arriskuak saihestu
- ▶ Besteekin komunikatu
- ▶ Bere balio eta sinesmenekin bat eginda bizi
- ▶ Zerbaitetan aritu, egindakoak bere burua asetzeko zentzua izan dezan
- ▶ Atsegin hartzeko jardueretan parte hartu
- ▶ Ikasi, bizitzeko modu berriak deskubritu

Pertsonak bere burua ezagutzen du inguruneak egiten dion eragin positiboaren edo negatiboaren arabera eta, ondorioz, osasuna bultzatze aldera, Hendersonek ingurunea aldatzea proposatzen dio erizainari. Bizitzeko prozesuan, pertsona batek ingurunearekin elkarreraginean diharduenean egoera berriak bizitzen ditu, eta egoera berri horiek aldaketak ekarriko ditu bere burua zaintzeko praktikei dagokienez, askotan beharrezko gaitasun berriak garatzera edo orain dituenak aldatzera eramango dutenak. Profesionalen eginbeharra da zaintzeko jarduerak ulertzea eta, horretarako, ezinbestekoa da testuingurua baloratzea, berezitasunak identifikatuz, ezaugarri indibidualei egokituko zaizkien zainketak eskaintzeko eta emateko.

Zaintzeko jarduerak beharrak asetzen dituztenean azalerazten dira gaitasunak. Behar hitzaz erabiltzen den terminoa ez da gabeziaren sinonimoa, betebeharra da, garapena eta hazkundea ekarriko dituen osotasun fisiko, psikologiko eta soziala mantentzeko funtsezko helmuga gisa ulertuta.

Ereduak proposatzen duen egiturari jarraituz, nor bere burua zaintzeko edo zaintzaile batek autonomia galdu duen pertsona zaintzeko egiten dituen jardueren balorazioak aukera emango digu independentzia edo menpekotasun egoerari buruzko irizpen profesionalak egiteko.

Independentzia egoera definitzeko hau esan daiteke: pertsonak –edo zaintzaileak bestela– garatutako gaitasunen maila egokia da, garapen etapa, adin eta osasun egoera kontuan hartuta, dituen beharrak asetzeko zainketa jarduerak zuzenak egitera eramaten duena.

Beste aldean menpekotasun egoeraren irizpena dago. Horren ezaugarria da pertsonak ez dituela egin beharreko jarduerak egiten, edo ez dituela zuzen edo behar besteko mailarekin egiten, eta, horrenbestez, oinarrizko beharrak asetzera baldintzatuta dagoela.

Lehenengo maila hori identifikatu eta gero, ordezkapenaren eta laguntzaren arteko irizpen diagnostiko diferentziala egiteko unea iritsi da.

**Ordezkapena:** Irizpen hau pertsonarengan autonomi falta atzematen denean ezar daiteke. Autonomi falta esaten denean pertsonak ezintasun fisikoa eta intelektuala duela ulertu behar da, bere kabuz ekintzak eginez oinarrizko beharrak asetzeko aukerarik ematen ez diona. Hainbat pertsona aurki d-

itzakegu, adinagatik, garapeneko etapagatik eta/edo egoeragatik beren trebetasunak garatu ez dituztenak edo aldi baterako edo behin betiko galdu dituztenak eta, ondorioz, horiengan ez dago garatzeko moduko potentzialtasunik. Egoera horietan, erizaintzako profesionalak *autonomi arazoaren* inguruko irizpen klinikoak egiten du eta, ondorioz, pertsona-bezeroarengan gaitasunak eta potentzialtasunak zuzenean ez garatzeko erabakia hartzen da; interbentzioak autonomi falta hori ordezkatzera zuzentzen dira. Kasu horietan jarduerak ordezkatu egiten dira, eta hor senide batek, zaintzaile batek edo are erizain batek hartzen du parte. Ordezkapenaren (autonomi arazoa) edo laguntzaren arteko irizpen diferentziala egiteak erabakiak irizpen etikotik hartzen direla esan nahi du.

**Laguntza:** Egoera batzuetan identifikatu egin dezakegu pertsonak edo zaintzaileak ez dituela jarduerak modu egokian egiten, ez behintzat behar besteko kopuruarekin edo kalitatearekin, eta horren arrazoia da hainbat muga daudela gaitasunak garatzea galarazten diotenak. Irizpen hori pertsona baten bizitzan aldaketa bat gertatzen denean ezar daiteke, eta egoera horretan jarduera berriak barneratzea edo lehenagotik daudenak aldatzea gomendatzen da, eta beharrezkoa da. Erizainek pertsonarengan berarengan edo zaintzailearengan *indarra, ezagutza edo borondatea* garatzen laguntzen dute.

Zenbait egoeratan pertsonak *indarra* garatu behar du. Pertsonak bete behar dituen jarduerak egiteko gaitasun psikomotrizean, tonuan edo mugikortasunean gabezia edo murrizketa bat jasaten du; une hori da erizainaren interbentzioa aipatu gabeziak garatzera bideratu behar dena, "egin ahal izateko" modu berriak deskubritzeko edo lehenagotik zeudenak berreskuratzeko.

Beste egoera bat pertsonak gaitasun psikikorik ez duenean ager daiteke. *Indar psikikoaren* gabezia ere aldi baterakoa edo behin betikoa izan daiteke, pertsonak gaitasunik ez duenean erabaki bat hartzeko edo, erizainaren iritziz, hartutako erabakia desegokia denean. Erizainak aurre egiteko eta erabakiak hobeto hartzeko ahalmenak garatzera bideratzen du bere interbentzioa. Azken egoera hori sakon aztertu eta baloratu behar da, azalduko diren auzi etikoak ebatzi ahal izateko.

*Ezagutzak* garatzeko, erizaintzako interbentzioa osasunaren inguruko egoera bat maneiatzeko jarduerarik egokienak zein diren eta horiek praktikan nola jarri behar diren erakustera bideratzen da. Pertsonak ahalmena izan behar du informazioa antzemateko, prozesatzeko eta gogoratzeko.

*Borondate* falta dagoenean, erizaintzako interbentzioa pertsona kitzikatzera bideratzen da, behar beste denboraz, pertsonak garatu beharreko jarduerak behar besteko maiztasunez eta iraupenez gara ditzan. Erizainak autonomiaren eta ongintzaren printzipioetan oinarrituta jardungo du.





# Beharren balorazioa

Kapitulu honek behar bakoitzaren inguruan jaso litekeen informazio jasotzen du, oso modu zabalean. Hala ere, egoera jakin baten aurrean, erizainak dagozkion datuak hartuko ditu baloraziotik, bere irizpen diagnostikoa orientatu eta funtsatuko dutenak. Kapitulu honetan bi atal aurkezten dira: *balorazioa* eta *diagnostikoa*.

Era berean, **balorazioa** beste bi azpiataletan banatuta dago: *adierazleak* eta *faktoreak*.

*Adierazleak* profesionalari beharra aseta dagoen ala ez erakutsiko dioten datuak dira, hau da, ea pertsonak jarduera egokiak garatzen dituen bere egoera edo garapen etapari buruz. Datu horiek pazientek beraiek eman behar dituzte edo erizainak atzeman behar ditu azterketa fisikoaren, elkarrizketaren edo behaketaren bitartez. Informazio guztiak datuetan oinarrituta egon behar du, ez susmoetan, norberak edo zainzaileak garatu beharreko zainketaren jardueren maila zorrotz ezarri ahal izateko.

Pazientearen Oinarrizko Datuak (POD) diziplina arteko taldeko profesionalen artean informazioa transferitzeko garrantzitsuak izan daitezkeen datuei esaten diegu.

Faktoreen balorazioak informazioa biltzean sakon aritzea exijitzen du. Faktoreak pertsonaren testuinguruko elementuak dira, aurreko atalean jaso diren adierazle ez desiragarrien eragile gisa identifika ditzakegunak. Egoera batzuk behar jakin bati dagozkion adierazleei lotu dakizkieke. Balorazio maila honetaraino bi gertaera ager daitezke:

Jarduera desagokiak identifikatzea, kantitategatik edo kalitategatik, eta, ondorioz, baloratu egiten dugu zein faktore elkartu ari den jazoera horretan eragiten. Horrek diagnostiko erreal baten irizpen profesionala egitera gidatuko gaitu.

Beste egoera batean, gerta dakiguke ez dugula menpekotasunik aurkitzen, eta gure balorazioa egiten jarraituko dugu, presente dauden arren oraindik arazoa azaleraztan lagundu ez duten faktoreak identifikatuz; orduan, egoera horri arriskutsua dela iritziko diogu eta, beraz, *arrisku diagnostikoa* egingo dugu.

Behin adierazleak eta faktoreak identifikatuta ditugula, balorazioa zabaldu beharra dago, interbentzioaren arloa zehazteko. Horrenbestez, arazo iturriak diskriminatzeak lagundu egingo digu, interbentzioak aukeratzekoan, zaintzeko jarduera trebetasunak garatzera, animatzera eta/edo ezagutza ematera bideratzen; azken pertsonak edo zainzaileak jarduera osasungarriak gauzatzeko gaitasuna lortu ahal izateko modukoak izan behar dute, egoera modu egokian bideratu ahal izateko.

**Diagnostikoa** da beste atala: NANDA taxonomiako hainbat etiketa diagnostiko aurkezten dira, behar bakoitzeko jardueren arabera aukeratuta eta erlazionatuta. Etiketa diagnostiko horiek prozesuaren

ondorioa eta irizpen klinikoaren emaitza izango dira, hau da, balorazioan jasotako informazioan oinarrituta profesionalak egindako analisiaren eta hartutako erabakien emaitza.

Hainbat etiketa aurkezten dira, egoera errealei edo arrisku egoerei aplika dakizkiekeenak. Etiketa diagnostiko bakoitzeko NANDAk jasotako definizioa aurkezten da, horri lotutako faktoreak eta adierazleak. Adierazleak baloraziotik aukeratutako datuak dira, irizpen klinikoa funtsatzen eta justifikatzen dutenak.

# I. Oxigenatzeko beharra

## DEFINIZIOA

Pertsona batek egiten dituen ekintzen multzoa zelulek bizitzeko ezinbestekoa duten oxigenoa hartzen duela segurtatzeko, eta zelulen errekuntzatik sortutako karbono dioxidoa botatzeko, independentzi mailari eusteko behar den bezala.

## VALORACIÓN

### BALORAZIOA:

■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** Haurra zaintzeko erreferentziatzeko pertsona idatzi.

**Hautemandako aldaketak:** Alor horretan haurrak eta gurasoek agertzen dituzten aldaketa eta bila-kaera erregistratu (erritmoa, hotsa, mota eta zabaltasuna, maiztasuna, arnas egiteko zailtasuna edo hobekuntza, eztularen presentzia edota mota, eztularen erreflexua, zotina/doministikuak, karkaxa botatzea, katarroak maiz, "negarra galtzea" edo haserrealdiak eragindako glotian espasmoak, kolo-razioak, bularraldean estuasunak, arnas hartzerakoan mina...). Haurraren / gurasoen bizipenak gerta-era horren aurrean.

**Erabilitako neurriak:** Gurasoek edota seme-alabak behar hori independentziaz mantentzeko edota aldaketen aurrean hartutako neurriak zehaztu (haurraren postura sehaskan, "autozainketara" bidera-tutako ekintzak: hezegailuak edo lurrinak, sudurreko garbiketak, arnas fisioterapia, jarduera maila aldatzea, itxitako inguruneak edo kargatuta daudenak ekiditea, alergenak...). Horrez gain, neurri horien aurrean haurrak eta gurasoek dituzten erantzunak eta balorazioa idatzi.

**Tabakoa:** idatzi haurrak erretzen duen BAI/EZ. Tabakoarekiko duen jarrera zehaztu oharretan: noiztik erretzen duen, zerk eragin zion erretzen hastea (antsietatea, plazera, imitazioa...), inguruko lagun- bategen erretzen duen eta erretzeari uztea nahi duen ala ez...

**Guraso erretzaileak:** BAI/EZ; erantzuna baiezkoa bada, haurraren aurrean erretzen duen BAI/EZ. Tabakoarekiko duen jarrera zehaztu oharretan: noiztik erretzen duen, zerk eragin zion erretzen hastea (antsietatea, plazera, imitazioa...) eta erretzeari uztea nahi duen ala ez...

**Bihotz frekuentzia:** Idatzi minutuko zenbat taupada duen. <2-3 urteko haurretan puntakoa eta >2-3 urtekoetan erradiala, minutu batez.

**Tentsio arterial sistolikoa:** Idatzi tentsio arterial sistolikoa.

**Tentsio arterial diastolikoa:** Idatzi tentsio arterial diastolikoa.

**Larruazalaren eta mukosen kolorazioa:** Idatzi larruazalaren eta mukosen kolorazio mota. Argitu hori den Normala – Zurbila – Zianotikoa.

**Arnas frekuentzia:** Idatzi minutuko zenbat arnasaldi egiten duen. Bularreko haurren eta txiki- en kasuan, aztertu abdomenean; helduagoen kasuan, toraxean, minutu batez.

**Arnasa hartzeko modua:** Erregistratu testuan arnasa hartzeko modua: ahotik edo sudurretik, abdo- minala edo torazikoa, sakona edo azalekoa, erregularra edo irregularra.

**Arnasa hartzeko zailtasuna:** Erregistratu Ez – Esfortzu disnea – Disnea geldirik, berak esaten duenaren edo ikusten dugunaren arabera.

**Eztul erreflexua:** Erregistratu Bai/Ez. Zehaztu eztul egitea ohikoa den, eta zein unetan gehiago edo gutxiago.

**Eztul mota:** Erregistratu Absentzia dagoen edo eztula Narritzailea – Lehorra – Produktiboa den.

**Espektorazioa:** Erregistratu Bai/Ez. Zehaztu jariakinen ezaugarriak..

## **ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:**

**Kanpo konpresioak:** begiratu ea eusteko jantzirik edo gailurik duen odol zirkulazioa oztopatzen duenik, bai gorpuz adarretan, bai bularraldean (gerrikoa, galtzerdiak, oinetakoak, igeltsua, bendak). Jantzeko eta Erantzeko beharrek ere erlazionatu.

**Kontaktua arnas narritzaileekin:** aztertu gomendagarriak ez diren giroetan egon ohi den: margotu berri dituzten gelak, kutsadura atmosferikoa edota ingurunearena edo kez betetako lokalak (sukaldea, tabernak...), eragile alergenikoak (hautsa, akaroak, polena...). Erretzailea bada edota gurasoek aurrean erretzen duten. Haurra egon ohi den geletan aerosolak, aire gozagarriak, eltxoen aurkakoak... gehiegi erabiltzen dituzten aztertu. Arriskuak Saihesteko beharrek ere erlazionatu.

**Ahultasuna:** Detektatu bitamina edota elikagaien gabeziarik dagoen (Fe, elikadura eskasa), osagai energetikoak galtzea dakarren prozesurik edo aktibitatearekiko ohitura faltarik ohean egotea edo atseden hartzea agindu diotelako, ohean denbora luzez egon delako edota nekeak edo loak eragin dutelako.

**Desoreka O<sub>2</sub> behararen eta hartzen denaren artean:** Pertsonak arnasa hartzeko arazoak dituen egoerak detektatu. Detektatu oxigenoa hartzea oztopatzen duten prozesuak edo birrikak haizeztatze-ko ahalmena murriztea eragiten dutenak.

**Espektoratzeko arazoak:** Detektatu giro lehorra, gelditasuna, albo bateko konpresioa, sedentaris- moa, jariakin lodiak, likido gutxiago hartzea, bronkioko argia murriztearen kausak, higuin sentsazioa edo jariakinak pilatzen ari direla ez ohartzea.

**Birikak gutxiago zabaltzea:** Begiratu toraxa gutxi zabaltzen den (edo ez den zabaltzen), arnasketa abdominalik ez dagoen edo desegokia den, giharretako ahultasuna, jarrera desegokietan jartzen den (ahuspez sehaskan etzanda izatea, esertzerakoan...). Kirurgiarik egonez gero, begiratu kanpo konpresiorik (benda bularraldean, arropa estua) edo barne konpresiorik dagoen (obesitatea)

**Eztul egiteko modu desegokia:** Begiratu nola egiten duen eztul, eztula probokatzeko teknikak eza- gutzen dituen, ohitura falta. Mukiak kentzen eta eztul egiten edo jariakinak kanporatzen dakien, espektoratzeko zailtasuna duen, arnasa hartu/bota ikasten laguntzeko elementuak ezagutzen ez dituen asmatu, ohitura faltarik duen aztertu...

**Neurri higieniko desegokiak:** Zaintzaileek sudurretako garbiketak edo arnas fisioterapiarik oker egi- ten duten aztertu. Tabako abusua antzeman, hidratazio maila desegokia den jakin, ariketarik egiten ez ote duen (egoneko bizitza), giro lehorretan edota gehiegizko bero zuzeneko tokietan egoten den antzeman (ur beroko poltsak, berogailua...). Etxebizitzako baldintzak zeintzuk diren aztertu, ohiko ere- muetan aireztatze desegokia dagoen, giro hezegailuak erabiltzen diren (asma/bronkiolitis gertakariak jasan dituzten haurren kasuan kaltegarriak izan daitezke). Pisua/neurriaren arteko okerreko erlazioa.

**Neurri desegokiak jarretan:** begiratu gorputzaren alineazio desegokia, arrisku baskularra handi- tzen duten posturak hartzea (denbora asko zutik, hankak gurutzatu)

## ARAZO ITURRIAK:

**Ezagutza falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste ezagutza duen haizeztatze egokia, arnasbideen irazkortasuna eta oxigenoaren garraio zuzena baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Indar falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual erakusten duen haizeztatze egokia, arnasbideen irazkortasuna eta oxigenoaren garraio zuzena baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko neurriak gauzatzeko.

**Borondate falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu konpromisorik edo motibaziorik erakusten duen haizeztatze egokia, arnasbideen irazkortasuna eta oxigenoaren garraio zuzena baldintzatzen duen faktorea aldatzeko neurriak gauzatzeko.

## DIAGNOSTIKOAK

<b>JARDUERAREKIKO INTOLERANTZIA</b> Y50.0	Haur baten egoera, zeinean energia psikologiko edo fisiologiko gutxiegi daukan eguneroko betebeharrak edo nahiak toleratzeko edo burutzeko
Erl.: Desoreka O_ beharraren eta hartzen denaren artean: Ahultasuna Neurri higieniko desegokiak	<b>Adrz.:</b> Ahultasun edo nekeari buruzko ahozko informazioak; frekuentzia kardiako edo tentsio arterial ezohikoak jarduerari erantzun gisa; ondoeza edo esfortzu disnea
<b>JARDUTEAREKIKO INTOLERANTZIARAKO ARRISKUA</b> Y50.1	Haur baten egoera, zeinean energia psikologiko edo fisiologikoki gutxiegi izateko arriskua daukan eguneroko betebeharrak edo nahiak toleratzeko edo burutzeko
Erl.: Desoreka O_ beharraren eta hartzen denaren artean Ahultasuna Neurri higieniko desegokiak	
<b>ARNASBIDEEN GARBITASUN ERAGINGABEA</b> Y26.0	Arnasbideak iragazkor mantentzeko arnasbideko arnasbideko jariakinak edo butxadurak elimintzeko ezintasuna.
Erl.: Kontaktua arnas narritatzaileekin Ahultasuna Espektoratzeko arazoak Birikak gutxiago zabaltzea Eztul egiteko modu desegokia Neurri desegokiak jarreretan Neurri higieniko desegokiak	<b>Adrz.:</b> Disnea; arnas zarata adbentizioak; eztulik eza edo eragingabea; zianosia; aldaketak arnas frekuentzian, erritmoan edo sakontasunean, asaldura

<b>PERFUSIO TISULAR PERIFERIKO ERAGINGABEA</b> Y28.3	Oxigeno ekarpenaren murrizketa eta, ondorioz, ezintasuna maila kapilarreko ehunak elikatzeko
Erl.: Kanpo konpresioak Neurri higieniko desegokiak Neurri desegokiak jarretan	<b>Adrz.:</b> Edema; Homanen zeinu positiboa; taupada ahulak edo ez dago; aldaketak gorputz adarretako arteria tentsioan; zurbiltasuna; aldaketak larruazalaren tenperaturan; sentikortasunaren aldaketak; lesioak geldiago sendatzea

<b>PERFUSIO TISULAR PERIFERIKO ERAGINGABERAKO ARRISKUA</b> Y28.4	Oxigeno ekarpenaren murrizketa eta, ondorioz, ezintasuna eragin dezake maila kapilarreko ehunak elikatzeko
Erl.: Kanpo konpresioak Neurri higieniko desegokiak Neurri desegokiak jarretan	

## 2. Elikatzeko beharra

### DEFINIZIOA

Pertsona batek egiten dituen ekintzak hazteko, bere ehunak mantentzeko eta funtzionatzeko ezinbesteko duen energia duela segurtatzeko, kalitate oneko elikagaiak hartuz, behar besteko kantitatean eta independentzi mailari eusteko behar den moduan.

### BALORAZIOA

#### ADIERAZLEAK:

■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** Haurra zaintzeko erreferentziatzko pertsona idatzi.

**Hautemandako aldaketak:** Haurrak/zaintzaileek ahoko mukosaren hurrupaketari, murtxikatzeari, itzulpenari, digestioari, tolerantziari, pisuari eta osotasunari dagokienez (plakak, ultzerazioa, lehortasuna), hortzen egoerari, hidratazio mailari, goseari, egarriari, asetasun sentazioari, irentsitako elikagaien trinkotasunari, elikadurako zaletasunei, tresnen erabilera mailari eta abarrei dagozkien bilakera eta aldaketak idatzi. Horrez gain, aldaketa horrek zerekin izan dezakeen erlazioa idatzi.

**Erabilitako neurriak:** antzemandako aldaketen aurrean abian jarri dituen (edo dituzten) jarduerak edo neurriak idatzi: dieta, protesia egokitzea / ortodontzia, ahoko higiena, likidoak irenstea, jardueraren maila, ariketa egitea, elikagaiak pixkanaka sartzea, gurasoek haurraren elikaduran gustuko ez dituen elikagaiak sartzeko erabiltzen dituzten estrategiak (zaporeak nahastea, purean egitea...). Horrez gain, zaintzaileak eta haurrak hartutako neurrien aurrean duten balorazioa bildu.

**Neurria:** Idatzi haurraren garaiera zentimetrotan. Idatzi oharretan pertzentila.

**Pisua:** Idatzi pertsonaren pisua gramotan. Idatzi oharretan pertzentila.

**Gorputz Masaren Indizea (GMI):** Idatzi  $\Sigma$  tekla batukariari emanez Pisua (kg) Garaiera karratuagatik ( $m^2$ ) zatituz ematen duen zenbakia. Item horrek esango digu pertsona bere garaierari dagokion pisuaren azpitik edo pisu gomendatuaren gainetik dagoen. Maila hauek onartzen dira: 20tik behera, pisu gutxi; 20-24.9 artean, pisua muga arrunten barruen barruan dago; 25-29.9 artean, 1. mailako gainpisua; 30-39.9 artean, 2. mailako gainpisua edo obesitatea; 40tik gora, obesitate morbidoa.

**Buruaren perimetroa:** Idatzi zentimetrotan haurraren buruaren perimetroa. Idatzi oharretan pertzentila.

**Zailtasuna mastekatzeko / irensteko:** Erregistratu mastekatzea / irenstea diren Normala / Zaila. Jarrerak eta zein egoeratan gertatzen den zehaztu, elikadura boloaren "stop" sentazioa, berrahortzea, gorakoa.

**Zailtasuna digestioan:** Erregistratu Bai/Ez eta zehaztu dispepsiarik edo digestioko beste arazoren bat dagoen. Horrez gain, zehaztu zein elikagairekin gertatzen den eta jan eta zenbat denborara agertzen diren.

**Elikagai ekarpena:** Erregistratu hori Egokia – Desegokia den kuantitatiboki eta kualitatiboki. Har-tualdian/ahoratzean ohiko ordutegirik dagoen aztertu, gozoki edo opil industrial gehiegi jaten duen...

**Likido ekarpena:** Erregistratu egunero hartzen dituen horiek Egokiak – Desegokiak diren kuantitatiboki eta kualitatiboki (esnea, zukuak, ura, freskagarriak, kafea, alkohol-dun edariak...).



**Jateko autonomi maila:** 0 - Bakarrik jaten du  
1 - Laguntza materialez jaten du  
2 - Beste pertsona baten laguntzaz jaten du  
3 - Laguntza materialez eta beste pertsona baten laguntzaz jaten du  
4 - SERabateko ordezkapena

**Edoskitzaro mota:** erregistratu amarena, mistoa ala artifiziala den.

**Edoskitzaroaren iraupena:** amaren edoskitzaroaren guztizko denbora idatzi.

**Edoskitzaroaren gogobetetzea:** idatzi haurra zein ama pozik dagoen eta edoskitzaro hori egiteko amak dituen arrazoiak: erregistratu gogobetetzea dagoen edo ez dagoen: ama, haurra, ama eta haurra: gogobetetzetik ez.

### **ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:**

**Nutriente ekarpena gastu energetikoa baino handiagoa:** Elikagai ingesta hiperkalorikoa dagoen detektatu (kaloria asko duten elikagai desegokien kantitatea edota mota), begiratu janaria egunaren amaieran kontzentratzen den. Erlazionatu jarduera mailarekin eta sedentarismoarekin Lo egiteko eta Atseden hartzeko beharrea.

**Nutriente ekarpena gastu energetikoa baino txikiagoa:** Begiratu ea apetitua gutxitu den, gose sentazioa faltan den, elikagai ingesta hipokalorikoa (kaloria gutxiko elikagaiak edo kantitatea) dagoen eta erlazionatu jarduera mailarekin Mugitzeko eta jarrera egokian mantentzeko beharrea.

**Elikadurari buruzko kontzeptu okerrak:** Aztertu familiaren kulturen elikatzeari buruz dauden ohi-turak eta ideiak, begiratu ea kanpo faktoreen arabera jaten den, esaterako, orduaren edo egoera sozialaren arabera, jateko ohiturak, erosketa eta prestatzeko modua (janaria beste jarduera batzuekin bateratzea, ez gosaltzea, plater bakarra bazkaltzea edo afaltzea, janari gehiegi, koipe gehiegirekin prestatzea, ideia falta), elikadurari ematen dioten balioa, asetasun maila, elikadura osasuntsua... Zaintzaileek haurren elikaduraren inguruan izan ditzaketan okerreko usteak antzeman: elikagaiak pixkaka sartzeko eta prestatzeko egokia, "negar egiten badu, gose duen seinale beti", elikagaiak zigor/sari gisa erabiltzea, amaren edoskitzaroan amaren jarrerak (elikadura, alkohola, botikak...).

**Likido ingestari buruzko kontzeptu okerrak:** Aztertu familiaren kulturen likido ingestari buruz dauden ohiturak eta ideiak: urak gizendu egiten du, zenbat eta likido gehiago orduan eta gorozki hezeagoak, asko edanez gero asko izerditzeko da, likidoak hartzeak gerneru ihesa eragiten du (enuresia duen haurrari gehiegizko likido murrizketa egitea), edatea ez da beharrezkoa, berdin dio zein likido mota den..., egarri sentazioaren falta (egarriak gaudenean edan behar dugu).

**Mastekatzeko arazoak:** Aztertu hortz piezen eta ahoaren egoera, protesia/ortodontzia gaizki egokitu-tuta, elikagaiak ez datoz bat egoerarekin, indarrak ez masailezurrean, disfuntzioa mastekatzeko muskuluetan. Erlazionatu aho mukosaren egoera Higiene eta Tegumentuak Babesteko behararekin.

**Elikagaiak/likidoak lortzeko zailtasuna:** tresnen erabilera desegokia antzeman, mugimenduan nolabaiteko mugarik dagoen aztertu, jarduerarekiko intolerantzia dagoen, ahultasuna (tresnak erabiltzeko edo eusteko zailtasuna). Erlazionatu Mugitzeko eta ariketa egiteko behararekin, mugimenduen deskoordinazioarekin (dardara, elikagaiak ahora eramateko zailtasuna...), oztopo arkitektonikoak edo egitura mailakoak... Aztertu arima egoera, kaltea ezagumenean...

**Neurririk gabeko ingesta:** Detektatu aldakortasun emozionalik dagoen, janari / sari erlazioa, estres

egoerak, tentsioa, asperdura, orduz kanpo neurrigabeko ingesta telebista ikusiz, jateagatik erru sentimenduak, gosea arintzeko neurri desegokiak erabiltzea (elikagai desegokiak orduz kanpo jatea). Gozokien, opil industrialen edo gasa duten edarien gehiegizko kontsumoa antzematea (gurasoen/haurraren ustez horrek izan dezakeen eragina).

**Edatea ahaztea:** Begiratu ea haurra edo zaintzaileak ez diren ohartzen edo jabetzen haurrak edateko duen beharraz.

**Elikagaiak baztertzea:** Detektatu aldakortasun emozionala, janari/atsekabe erlazioa (eztabaidak, oso arau zorrotzak...), estres edo tentsio egoerak, fisikoari buruzko espektatibak, gizentzeko beldurra, nazka janariari, erru sentimendua jateagatik. Bere egoeraren arabera egokiak diren eta orekatuak diren dietekin bat egiten ez duten elikagaiei eta edariei dagokienez zaletasunak, eta dastamenaren gaitasunak estimulatzen diren aztertzea.

**Irensteko teknika desegokiak:** bularreko haurrak hurrupatze edo irensketa arineko erreflexurik duen aztertu eta zailtasun hori bularrekin edo titiordearekin duen. Begiratu azkar edo antsietatez jaten duen, oker mastekatzen duen, elikagai puska handiegiak irensten dituen (zati handiak). Aztertu elikagaiak hartzerakoan duen jarrera (etzanda edo makurtuta eserita), irensteko errefluxuan nahita gaitasunak gutxitzea, elikagaiak arnas bideetara igarotzea, irensterakoan parte hartzen duten giharren ahultasuna.

**Edoskitze - prozesua maneiatzeko zailtasuna:** aztertu amak bularrak zaintzeko edota bularra emateko teknika zuzenak behar bezala ezagutzen dituen. Aztertu biberioia behar bezala prestatzen/erabiltzen duen: prestaketa teknika, biberioiaren/titiordearen ezaugarriak, gasak kanporatzeko giroa eta jarrera... denbora, hartze kopura egunean eta edoskitzaro ingurunea.

## ARAZO ITURRIAK:

**Ezagutza falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste ezagutza duen elikagai ekarpen orekatua baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Indar falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual erakusten duen elikagai ekarpen orekatua baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko neurriak gauzatzeko.

**Borondate falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu konpromisorik edo motibaziorik erakusten duen elikagai ekarpen orekatua baldintzatzen duen faktorea aldatzeko neurriak gauzatzeko.

## DIAGNOSTIKOAK

<p><b>NUTRIZIO DESOREKA GEHEGIKERIAGATIK</b> Y24.1</p>	<p>Haur baten egoera zeinean bere behar metabolikoak gainditzen dituen elikagai ekarpena egiten duen</p>
<p><b>Erl.:</b> Elikagai ekarpena gastu energetikoa baino handiagoa Elikadurari buruzko kontzeptu okerrak Neurririk gabeko ingesta</p>	<p><b>Adrz.:</b> Bere gorputzaren garaiera, sexu eta osaera idealari dagokion baino %10-20 pisu handiagoa; GMI&gt;25; elikatzeko eredu desegokiz informatzea edo ohartzea</p>

<p><b>GEHIEGIKERIAGATIK NUTRIZIO DESOREKA IZATEKO ARRISKUA</b> Y24.2</p>	<p>Haur baten egoera zeinean bere behar metabolikoak asetzen ez dituen elikagai ekarpena egiten duen</p>
<p>Erl.: Elikagai ekarpena gastu energetikoa baino handiagoa Elikadurari buruzko kontzeptu okerrak Neurririk gabeko ingesta</p>	
<p><b>NUTRIZIO DESOREKA ESKASIAGATIK</b> Y24.0</p>	<p>Haur baten egoera zeinean bere behar metabolikoak asetzen ez dituen elikagai ekarpena egiten duen</p>
<p>Erl.: Elikagai ekarpena gastu energetikoa baino txikiagoa Elikadurari buruzko kontzeptu okerrak Mastekatzeko arazoak Elikagaiak/likidoak eskuratzeko zailtasuna Elikagaiak baztertzea</p>	<p>Adrz.: Gorputzaren pisua pisu ideala baino %20 gutxiago da; GMI&lt;20; elikagai ekarpena desegokia eta gomendatua baino txikiagoa den informatzea edo ohartzea</p>
<p><b>NUTRIZIO DESOREKAREN ARRISKUA ESKASIAGATIK</b> Y28.3</p>	<p>Haur baten egoera zeinean bere behar metabolikoak asetzen ez dituen elikagai ekarpena egiten duen</p>
<p>Erl.: Elikadurari buruzko kontzeptu okerrak Mastekatzeko arazoak Elikagaiak/likidoak eskuratzeko zailtasuna Elikagaiak baztertzea</p>	
<p><b>LIKIDO BOLUMENEAN GABEZIA IZATEKO ARRISKUA</b> Y22.1</p>	<p>Haur baten egoera zeinean bere behar metabolikoak asetzen ez dituen elikagai ekarpena egiten duen</p>
<p>Erl.: Likidoak hartzeari buruzko kontzeptu okerrak Elikagaiak/likidoak eskuratzeko zailtasuna Edatea ahaztea</p>	
<p><b>IRENSTEKO NARRIADURA</b> Y53.1</p>	<p>Irensteko mekanismoaren funtzionamendu anormala aho, faringe edo esofagoaren egituraren edo funtzioaren gabeziari lotuta</p>
<p>Erl.: Irensteko teknika desegokiak</p>	<p>Adrz.: Irensteko zailtasun nabarmenak ikustea (elikagai estasia aho barrunbe, eztula, eztarrian trabatzea); elikagaiak baztertzea; goragalea irentsi aurretik; xurgapen zeinuak; sudur errefluxua; min epigastrikoa; eduki gastrikoa berrahoratzea</p>

<b>AUTOZAINTEKO GABEZIA: ELIKADURA</b> Y53		Elikatzeko jarduerak gauzatzeko edo osatzeko trebetasunaren narriadura
Erl.: Elikagaiak/likidoak eskuratzeko zailtasuna	<b>Adrz.:</b> Eraginkortasunik eza elikagaiak tresnekin hartu eta ahoratzeko; ezintasuna janari bat sozialki onartzeko moduan osatzeko	

<b>EGOSKITZARO ERAGINKORRA (Amarena/Mistoa/Artifiziala)</b>		Zaintzailea/haurra diadak trebetasun egokia eta edoskitze prozesuarekin gogobetetzea agertzen duen egoera
Erl.: Egoskitzaro prozesua erabiltzean jarrera sustatzaileetan familiartasun gabezia agertzea	<b>Adrz.:</b> Ama/zaintzailea gai da haurra biberoti titian jartzeko sukzio erantzuna arrakastaz sustatu ahal izateko; haurrak pozik dirudi hurrupatzeko hartualdi eta irensketa eraginkorren eta etengabeen ondoren; haurraren patroia neurgarria edoskitzaro artifizialarekin; bere adinerako egokia da eta zaintzailea/haurraren arteko komunikazio patroia ere egokia da	

<b>EDOSKITZE EZ ERAGINKORRA (Amarena/Mistoa/Artifiziala)</b>		Zaintzailea/haurra diadak trebetasun egokia eta edoskitze prozesuarekin gogobetetzea agertzen ez duen egoera
Erl.: Egoskitzaro prozesua erabiltzean jarrera sustatzaileetan familiartasun gabezia agertzea Irensteko teknika desegokiak Okerreko usteak	<b>Adrz.:</b> Edoskitze prozesuarekin pozik ez; bularreko haurrak bularrari/titiordeari behar bezala eusteko gaitasunik eza; bularrari/titiordeari eusteko erresistentzia; bularreko/titiordeko hurrupatzea eta irenstea aldizkakoak eta eraginkortasunik gabeak; bularreko haurraren negarra eta asaldura hartualdi ondorengo orduan; bularreko haurrak patroia ponderal okerrekoa bere adinari dagokionez; haurra/zaintzailea komunikazio patroia okerrekoa	

### 3. Eliminatzekeo beharra

#### DEFINIZIOA

Pertsona batek organismoarentzat kaltegarriak eta alferrekoak diren substantziez libratzeko egiten dituen ekintzak; hau da, elikagaien metabolismo zelularretik edo hartu baina absorbitu ez diren elikagaien hondarretatik sortzen diren hondakinak. Beraz, hondakinak ateratzeko prozesuak hartzen ditu barruan, zeinetan organo eta sistema desberdinek esku hartzen duten, horien artean: sistema digestiboa, gernu sistema, larruazala eta ugaltze sistema, azken hori hilekoaren bidez.

#### BALORAZIOA

##### ADIERAZLEAK:

###### ■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** Haurra zaintzeko erreferentziazko pertsona idatzi.

**Hautemandako aldaketak:** idatzi ondorengo datu guztiak:haurrak edo gurasoek patroï besikalaren edo fekalaren gainean agertzen duten bilakaera edo hautemandako aldaketak, gernuaren edo gorozkien kolorea, gasak, pixa egiterakoan edo sabela husterakoan arazoak (mina, erresumina edo azkura...), txiza egiteko edo libratzeko esfortzua, uretra edo uzkiaren esfinterraren tonua gutxitu izanaren sentrazioa, lortu direnean esfinterren kontrola galtzea edo lortzea...

**Erabilitako neurriak:** zehaztu independentzia mantentzeko eta aldaketen aurrean erabilitako neurriak (dieta edo likidoak irensteko aldaketa, ariketa gehitzea...). Libratzeko laguntza behar du (elika-dura, laxanteak, metodo fisikoak...). Idatzi erantzuna eta balorazioa haurrak edo gurasoek hartutako neurri horien aurrean.

##### GOROZKIAK KANPORATZEA:

**Libratzea / asteko:** Idatzi astean zenbat aldiz libratzen den. Amagandiko edoskitzean, patroï fekala egunero hainbat libratzeren edo 4-5 eguneko libratze bakarraren artekoa izan daiteke (idorreri fisiologikoa). Edoskitze artifizialaren kasuan, ohikoa da haurrak egunean 1 edo 2 libratze egitea. Haur helduagoen kasuan, normaltasun maila astean 3-7 aldikoa da.

**Uzki esfinterraren kontrola:** Erregistratu Bai/Ez. Oharretan informazioa zabaldu, noiz egiten duen, maiztasuna eta libratzera joateko eskatzen duen aipatu.

**Libragarrien erabilera:** Erregistratu Inoiz ez – Noizean behin – Eskuarki. Informazioa zabaldu nahi izanez gero, oharretan jaso, adibidez libragarri mota, noiz hasi zen erabiltzen eta maiztasuna.

**Gorozkien ezaugarriak:** Idatzi Normala – Anormala. Eta zehaztu gorozkien trinkotasuna, kantitatea eta itxura.

**Libratzeko mina / eragozpena:** Erregistratu Ez – Mina – Azkura – Erresumina. Zehaztu gehiegizko esfortzua, ondesteko presioaren sentrazioa edo sentrazio falta.

##### GERNUA KANPORATZEA:

**Mikzioak / eguneko:** Idatzi mikzio kopurua eguneko.

**Uretra esfinterraren kontrola:** Idatzi Bai – Ez – Noizean behin – Gauekoa ez. Idatzi oharren atalean esfinterren kontrol garapenaren egoera eta esfinterren kontroleko heziketaren hastapenik badagoen eta nolakoa den (pixontzia, beraiek erabiltzen duten bitartean komunean egotea baimentzen duten, ordu-tegiak ezartzea...). Gaueko enuresiaren kasuan: bizipena eta haurraren bizitzan horrek izan dituen eraginak aztertu: psikologikoak (larritasuna, lotsa) eta sozialak (lagun baten etxera joatea, udalekuetara...).

**Ezaugarriak:** Idatzi Normala – Anormala. Mikzio bakoitzaren kolorea, usaina, kantitatea zehaztu dezakegu (pixoihalak ondo bustitzen dituen).

**Gernu egiteko mina / eragozpena:** Erregistratu Ez – Mina – Azkura – Erresumina. Zehaztu zer eragozpen mota (espasmoa, komunera iristeko ezintasuna).

**Hilekoa:** zehaztu menarkiarik dagoen nesken kasuan. Idatzi BAI/EZ. Aztertu patroia eta hilekoan alteraziorik gertatu ohi den (ziklo irregularrak, dismenorrea, odol askoko hilekoak...) eta egoera horren aurrean neskak/zaintzaileek duten bizipena eta jarrera.

## **ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:**

### **GOROZKIAK KANPORATZEA:**

**Uste okerra:** haurraren edota zaintzaileen itxaropena idatzi patroia fekalaren inguruan, egunean behin libratzearen inpresioaren inguruko okerreko kontzeptuez gain.

**Traba arkitektonikoak / arropa:** Inguruneko eta arroparen gaineko arazoak zehaztu (komunera iritsi eta arropa kentzeko duen erraztasuna: erraz erabiltzeko moduko botoiak edo itxigailuak dituen). Abdomena estutzen dioten arropak erabiltzea. Jantzeko eta erantzeko beharrari buruz erregistratutako informazioarekin erlazionatu.

**Jokaera aldaketak:** Arriskuak saihesteko behararekin erlazionatu, aldaratearen aldaketei buruzko informazioarekin. Kaka egiteko beldurra detektatu.

**Duela gutxiko aldaketak:** Erregistratu ordutegiaren aldaketak, intimitaterik eza, leku edo dieta aldaketa, estresa.

**Ezagumenaren narriadura:** Detektatu pertsonak ez duen ondestean presioa eta/edo betedura duen sententzia hautematen.

**Libratzeari lotutako mugimenduak egiteko arazoa:** Detektatu dagokion lekuan libratzeko edo txiza egiteko zailtasuna. Mugikortasunean mugarik dagoen aztertu, eta erlazionatu Jarrera egokian mugitzeko eta egoteko behararekin.

**Disfuntzio neuromuskularra:** Aztertu esfinter tonua galdu den, inkontinentziaren kontzientziari buruzko informea.

**Erreflexuaren inhibizioa:** Aztertu libratzeko premiari erantzunik ez ematea ohikoa den: ikastetxeko komuna edo komun publikoak erabiltzen ez dituen garbitasun edo intimitate arazoak direla eta.

**Elikatzeko ohitura desegokiak:** Elikatzeko behararen informazioarekin erlazionatu, likidoak eta zuntza hartzeari eta jatordu bakoitzean hartu beharreko elikagai kantitateari dagokionez.

**Jarduera gutxi:** egiaztatu haurrak jarduera/ariketa gutxikoa edo egonekoa den bizimodua duen. Erlazionatu Mugitzeko behararekin, eta jarduera mailak peristaltismoari nola eragiten dion adierazi.

**Jarrera desegokia:** Aztertu ea libratzeko jarrerak prentsa abdominala egiten uzten duen (aulkia erabiltzea) edo hauraren gorpuzkerari dagokionez, desegokia den komuna edo pixontzia erabiltzea.

GERNUA KANPORATZEA:

**Presio intrabdominala handitzea:** Inguruneko eta arroparen gaineko arazoak zehaztu (komunera iritsi eta arropa kentzeko duen erraztasuna: erraz erabiltzeko moduko botoiak edo itxigailuak dituen). Abdomena estutzen dioten arropak erabiltzea. Janzteko eta eranzteko beharrari buruz erregistratutako informazioarekin erlazionatu.

**Libratzeari lotutako mugimenduak egiteko arazoa:** Detektatu leku egokietan libratzeko edo txiza egiteko zailtasuna. Mugikortasunean mugarik dagoen aztertu, eta erlazionatu jarrera egokian mugitzeko eta egoteko beharrarekin.

**Maskuriaren edukiera murriztea:** Detektatu maskuriko esfinterraren tonua murriztu den eta hantura prozesu abdominalik dagoen.

**Maskuria minberatzea:** Sakondu jateko eta edateko ohituretan, esaterako, kafeinaren deribaturik edo alkohola duten produkturik hartzen duen.

**Gaundistentsio besikala:** likido gehiegi hartzearekin erlazionatu.

#### ARAZO ITURRIAK:

**Ezagutza falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste ezagutza duen egoki eliminatzea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Indar falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual erakusten duen egoki eliminatzea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko neurriak gauzatzeko.

**Borondate falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu konpromisorik edo motibaziorik erakusten duen egoki eliminatzea baldintzatzen duen faktorea aldatzeko neurriak gauzatzeko.

#### DIAGNOSTIKOAK

<b>IDORRERIA</b> Y20.1	Gorozkiak kanporatzeko haur baten maiztasun arruntaren murrizketa, libratzeko arazoekin eta gorozkiak erabat kanporatu gabe, eta gorozkiak gogorregiak edota lehorrak
<b>Erl.:</b> Jokaera aldaketak Duela gutxiko aldaketak Erreflexuaren inhibizioa Elikatzeko ohitura desegokiak Jarduera gutxi Jarrera desegokia	<b>Adrz.:</b> Hesteen kanporatze maiztasuna ohiko patroiazen azpitik; gorozki gogorrak; ondesteko presioari buruzko informea, sabel lasaitua, masa nabarmena; libratzeko gehiegizko esfortzua; mina libratzean; gorozkien bolumena murriztea

<b>IDORRERIA SUBJEKTIBOA</b> Y20.2		Haur baten egoera zeinean idorreria autodiagnostikatzen duen, eta egunero hesteak hustuko dituela segurtatzeko libragarri, enema edo supositorio gehiegi hartzen du
<b>Erl.:</b> Uste okerra	<b>Adrz.:</b> Hesteak egunero husteko espektatiba eta, ondorioz, libragarri, enema edo supositorio gehiegi hartzea; hesteak egunero eta ordu berdinean husteko espektatiba	
<b>INKONTINENTZIA FEKALA</b> Y28.3		Hesteak husteko ohituren aldaketa, gorozkiak nahi gabe kanporatzeko ezaugarriarekin
<b>Erl.:</b> Barreras arquitectónicas / ropa Deterioro de la cognición Disfunción neuromuscular	<b>Adrz.:</b> Gorozki bigunak etengabe tantaka isurtzea; kaka usaina; kaka orbanak jantzietan edo oheko jantzietan; uzki inguruko larruazala gorrituta	
<b>BEHERAKOA</b> Y20.3		Gorozki likidoak, osatu gabeak kanporatzea
<b>Erl.:</b> Jokaera aldaketak Duela gutxiko aldaketak	<b>Adrz.:</b> Hesteak husteko maiztasuna handitzea; urgentzia; heste soinu hiperaktiboak; sabeleko mina eta/edo karranpak; gorozki likidoak eta solteak	
<b>GERNU INKONTINENTZIA URGENTZIAGATIK</b> Y29.3		Haur baten egoera zeinean nahi gabe gernu egiten duen gernu egiteko urgentzi sentazio bizia izan eta berehala
<b>Erl.:</b> Traba arkitektonikoak / arropa Maskuriaren edukiera murriztea Maskuria minberatzea Mikzioen arteko gaindistentsioa	<b>Adrz.:</b> Gernu egiteko urgentzia; polakiuria (gernu egitea 2 orduz behin baino maiztasun handiagoz); maskuriaren kontraktura, espasmoa; nikturia; kantitate gutxiko mikzioak (100 cc baino gutxiago); kantitate handiko mikzioak (550 cc baino gehiago); komunera garaiz iristeko ezintasuna	



<b>AUTOZAINTEKO GABEZIA: KOMUNA ERABILTZEA</b> Y57	Haurra narriatuta dagoelako ez da gauza bere kabuz pixontzia edo komuna erabiltzeko jarduerak egiteko edo osatzeko
<b>Erl.:</b> Libratzeko mugimenduetan zailtasunak	<b>Adrz.:</b> Jantziak manipulatzeko arazoak hesteak hustera doanean; ezintasuna libratu eta gero higiene egokia egiteko; ezintasuna komunean edo pixontzian esertzeko eta jasotzeko; ezintasuna komunera edo pixontzira iristeko; ezintasuna komuna edo pixontzia erabili eta gero garbitzeko

<b>IDORRERI ARRISKUA</b>	Haurrak libratzeko ohiko maiztasuna murrizteko arriskua dagoen egoera; gehienetan, maiztasun hori murrizteaz gain, haurrak gorozkiak desagerrarazteko arazoak izan ohi ditu edo ez da erabatekoa izaten.
<b>Erl.:</b> Jokabidean aldaketak Duela gutxiko aldaketak Erreflexuaren inhibizioa Elikatzeko ohitura txarrak Ariketa gutxi Okerreko jarrera	

## 4. Mugitzeko eta jarrera egokian egoteko beharra

### DEFINIZIOA

Pertsona batek gauzatzen dituen ekintzak mugimendu egokiak egiteko eta bere sistema muskulu-eskeletikoa ondo lerrokatuta edukitzeko, bere ongizatearen eta organismoaren funtzionamendu onaren mesedetan.

### BALORAZIOA

#### ADIERAZLEAK:

■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** haurra zaintzeko erreferentziatzeko pertsona idatzi.

**Hautemandako aldaketak:** haurrak edota zaintzaileek ondorengoen aurrean agertzen dituzten aldaketak eta eboluzioa idatzi: Haizea-Levant, har ditzakeen jarrerak, mugitzeko duen autonomia maila, nekatu gabe oinez ibiltzen den denbora, mugimenduan, indarrean, ibileran edota orekan mugak agertzea, mina edota mugitzea edo jardueraren bat egitea zaildu dezaketen arnas edo zirkulazio alorreko arazoak. Baloratu hiperaktibotasunik edo gehiegizko pasibotasunik baduen.

**Erabilitako neurriak:** erregistratu aldaketari erantzuteko abiarazi diren jokaera zuzentzaileak, laguntza sistemak edo jarduerak: masajea, jarrera aldaketak... Haurrari oinez ibiltzen erakusteko edo erorketak saihesteko mekanismoren bat erabiltzea: taka-taka (ez da gomendagarria) edo uhalak... Horrez gain, gurasoek eta haurrak neurri horien aurrean duten erantzuna eta balorazioa idatzi.

**Eguneroko bizitzako jardueretarako mugak:** Erregistratu Bai/Ez. Zehaztu zein eguneroko jarduerara ezin duen egin.

#### ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:

**Traba arkitektonikoak:** Inguruko trabak edo egiturakoak detektatu.

**Jarduera fisikoari buruzko uste okerrak:** Erlazionatu adinarekin, familia edo kultura batean zuzentzat jotzen den jarduera motarekin. Aztertu gurasoek jarduera modu egokian estimulatzeko duten segurtasun beharrekin erlazionatu. Okerreko gorputzeko jarrerak hartzen dituen balioztatu (zurruna, makurtuta, zuzen ez esertzea...), ariketa fisikorik ez egitea (telebista gehiegi ikustea edo ordenagailua edo bideojokoak gehiegi erabiltzea, esate baterako). Garapen garaian taka-taka ibilgailuak erabiltzea baztertu.

**Ahultasuna:** Indarra eta bihotz-biriketako sendotasuna gutxitu diren aztertu, begiratu muskulu tonua murriztuta daukan, egoera fisiko eskasa, hezur masa galtzea, oheratuta, gabezia nutrizionala, sedentarismoa, erabilera falta (igeltsua, ferulak)..

**Mugitzen saiatzeko erresistentzia:** ikusi mugitzen denean zein egoeratan erakusten duen haurrak segurtasunik eza, mina edo apatia.

## FUENTES DE DIFICULTAD:

**Ezagutza falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste ezagutza duen desplazamendua edo jarrera egokia baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Indar falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual erakusten duen desplazamendua edo jarrera egokia baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko neurriak gauzatzeko.

**Borondate falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu konpromisorik edo motibaziorik erakusten duen desplazamendua edo jarrera egokia baldintzatzen duen faktorea aldatzeko neurriak gauzatzeko.

## DIAGNOSTIKOAK

<b>MUGIKORTASUNA NARRIATZEA</b> Y50.4	Gorputza edo gorputz adar bat edo gehiago nahita eta independenteki mugitzeko mugak.
Erl.: Traba arkitektonikoak Jarduera fisikoari buruzko uste okerrak Ahultasuna Mugitzen saiatzeko erresistentzia	<b>Adrz.:</b> Koordinazioa narriatzea; giltzadurak edo mugimenduak mugatuta; oreka egongaitza; erreakzionatzeko denbora murriztea

## 5. Lo egiteko eta atsedean hartzeko beharra

### DEFINIZIOA

Pertsona batek egiten dituen ekintzak lo egiteko eta atsedean hartzeko, behar besteko kalitatez eta kantitatez, pertsonak errendimendu betea izan dezan lortzeko.

### BALORAZIOA

#### ADIERAZLEAK:

■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** haurra zaintzeko erreferentziatzeko pertsona idatzi.

**Hautemandako aldaketak:** Bezeroak erakusten dituen aldaketak eta eboluzioa idatzi lo egiteko/atseden hartzeko kalitateari eta ordu kopuruari dagokienez, neke sentrazioa, lo egitean arazoak agertzea edo haurrak "lo egiteko ohitura txarrak izatea", amesgaiztoak edota negarrez esnatzea (gurasoek horien aurrean duten jokaera eta maiztasuna, zerbaitekin erlazionatzen ote duten), sonambulismoa, lo dagoela hitz egiten duen, lo dagoen garaian mugimendu erritmikoak, loa etenda, erri-tualak aldatzea (baso bat esne bero, segurtasuna ematen dioten objektuak..).

**Erabilitako neurriak:** erregistratu aldaketa horien aurrean zein neurri hartu den: lehenago joatea lotara, ariketa gehiago egitea, gelako atea zabalik uztea, loa errazteko/sorrarazteko neurri gehiago sartzea (erlaxazioa, infusioak, botikak...). Botikaren bat hartuz gero idatzi mota dosia, noiztik ari den hartzen eta automedikatzeko ari den edo medikuak aginduta egiten duen.

**Lo orduak / eguneko:** Erregistratu lotan ematen dituen orduak eta ordu horien banaketa. Bularreko haurrak egunean 18 ordu arte egin ditzake lo. Haurra hazten doan heinean, lo orduak murriztu egiten dira. 4 eta 12 urte arteko haurrek 10 orduz lo egin behar dute eta nerabeek 8 eta 10 ordu artean.

**Jarduera maila eguneroko bizitzan:** Erregistratu eguneroko bizitzako jardueren maila:

- ▶ **Sedentarioa:** eserita eta besoak mugitu beharrik gabe edo oso gutxi mugituta egiten diren jarduerak: irakurri, idatzi, ikasi, puzzleak egin\*, telebista ikusi, kontsolarekin edo ordenagailuarekin jolas egin...
- ▶ **Arina:** oinez ibili, ordenagailuz bizkor idatzi, platerak garbitu eta eserita dagoela egiten dituzten beste jardueren biziago batzuk (puzzleak egitea\*, eraikuntzako jolasak, mekanoak...).
- ▶ **Moderatua:** besoak apur bat mugituz zutik egiten diren jarduerak, bizkor ibili, autoekin edo panpinekin jolas egin\*...
- ▶ **Aktiboa:** oso bizkor ibili, autoekin edo panpinekin jolas egin\*, bola jokoan edo golfean ibili...
- ▶ **Oso aktiboa:** korri egitea, tenisean ibiltzea, bizikletan ibiltzea edo igeri egitearen antzeko kirolak.

**Neke sentrazioa:** Erregistratu Ez – Energi falta – Apatia – Kontzentrazio falta – Sukortasuna –beste batzuk. Zehaztu nekearen ondorioak eguneroko bizitzako jardueretan eta goizean esnatzen denetik zenbat denbora igarotzen den neke sentrazioa agertzen den arte.

## ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:

**Inguruneko aldaketak:** Zehaztu bizimoduan izandako aldaketak (ordutegia, alkohola edo kafeina bezalako estimulariak), etxebizitza aldaketa, ohikoak ez diren pertsonen presentzia, tenperatura aldaketak, oheratu aurreko orduan egitea gustuko dituen jarduerak (oso aktiboak diren jarduerak).

**Gehiegizko eskakizun sozialak eta/edo rolaen ingurukoak:** Aztertu aldaketa soziala edo rolari buruzkoa egon den jarduera edo erantzukizun maila handitu duenik (ikasketak, eskolaz kanpoko gehiegizko jarduerak, anai-arreba jaio izana, anai-arreba gazteagoak zaintzea...). Erlazionatu Nork bere burua gauzatzeko beharrarekin.

**Ohitura okerrak:** aztertu honelakorik gertatzen ote den: bizimodu irregularra, lo orduak gaizki banatzea, berandu oheratzea, siesta luzea egitea, beste jarduera batzuk egiteko loari orduak lapurtzen dizkio, pizgarriak kontsumitzea... egiaztatu goseak edo sabela beteegia duela oheratzen ote den. Gurasoek jarrera negatiboa agertzea haurrak lotara joateari uko egiten dionean, "ohera bidaltzea" agindua zigor gisa erabiltzea.

**Tentsio emozionala:** Begiratu haurrak dituen kezkak edo arazoak, familia edo ikasketak, diru, gale-  
ra pertsonalekin edota egoera emozionalen batekin (beldurra, haserrea, gehiegizko ardurak, apatia, tristura, euforia) lotura duten eta haurrak atseden hartzeko eta lo egiteko eraginik duten.

## ARAZO ITURRIAK:

**Ezagutza falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste ezagutza duen egoki lo egin eta atseden hartzea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Indar falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual duen egoki lo egin eta atseden hartzea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko neurriak gauzatzeko.

**Borondate falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu konpromisorik edo motibaziorik erakusten duen egoki lo egin eta atseden hartzea baldintzatzen duten neurri zuzentzaileak gauzatzeko.

## DIAGNOSTIKOAK

<b>LOAREN PATROIA NAHASTEA</b> Y50.5	Loaren kantitatea eta kalitatea nahastea (aldizkako kontzientzia, naturala etetea), denbora mugatu batez
Erl.: Inguruneko aldaketak Ohitura okerrak Tentsio emozionala	<b>Adrz.:</b> Lo hartzeko eta/edo mantentzeko arazoei buruzko informea; atsedenik gabe sentitzen delako ahozko kexuak; guztira, adinari dagokion baino lo denbora gutxiago

<p><b>NEKEA</b> Y50.3</p>	<p>Neke sentrazio jarraitu eta deserosoa eta lan mental eta fisikoa egiteko ohikoa baino gaitasun gutxiago</p>
<p><b>Erl.:</b> Gehiegizko eskari sozial eta/edo rolari buruzkoak Ohitura okerrak</p>	<p><b>Adrz.:</b> Neke sentrazioa; energia indarberritzeko ezintasuna, baita lo egiten eta gero ere; energi falta edo ezintasuna eguneroko bizitzako jarduerak egiteko; atsedean hartzeko beharra handitu; letargia edo apatia; kexu fisikoak areagotzea; kontzentrazioa nahastea; libidoa jaitea; sukortasuna edo egongaitasun emozionala</p>

## 6. Janzteko eta erantzeko beharra

### DEFINIZIOA

Pertsona batek egiten dituen ekintzak, ingurumariaren arabera (egunaren zatia, jarduera), denboraren gorabeheretatik babesteko, libre mugitzeko, ongizatea eta babesa segurtatzeko eta, janzeraren bitartez, bere sentimenduak, nortasuna eta kidetza taldea adierazteko.

### BALORAZIOA

#### ADIERAZLEAK:

■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** haurra zaintzeko erreferentziatzko pertsona idatzi.

**Hautemandako aldaketak:** haurrak edota zaintzaileek erakusten dituzten aldaketak eta eboluzioa idatzi erabiltzen duen arropari buruz (estiloa, koloreak, berokiak); aukeratzeko, janzteko, oinetakoak janzteko, lotzeko eta arropa erantzeko gaitasuna; askatasun falta, estuasun, deserosotasun faltaren sentzazioa, zenbait jarduera jakinetarako egokitu ezina.

**Erabilitako neurriak:** Idatzi egoeraren aldaketaren aurrean (tenperatura/jarduera) hartutako neurriak: arropa mota, belkroa botoien orde, oinetako zabalagoak, lokarririk gabe, arropa janzteko jarra desberdinak, dieta egitea. Erabilitako neurriari buruz haurrak edota zaintzaileek egiten duten balorazioa idaztea ere interesgarria da.

**Arropa / oinetako egokiak:** Erregistratu Bai/Ez. Aztertu erabiltzen dituen arropa edo oinetakoek osasun/gaixotasun egoerari eta arropen kasuan dituen zaletasunei (kirola egitekoa, formalagoak, ehunak...) eragiten dioten Zehaztu desegokia den, erabiltzen duen arropa edo oinetako mota, egunero bizitzako zein jarduera edo egoeratan, aukera hori zerk baldintzatzen duen (haurraren zaletasunak, bere taldea, neurria...). Arroparen garbitasuna (garbia, behar bezala lixatua, klimari dagokionez egokia...).

**Janzteko ekintza:** Erregistratu Egokia - Desegokia. Pertsonak bere egoerari dagokion moduan janzteko edo erantzeko duen gaitasunari buruz. Kontrastatu Mugitzeko eta ariketa egiteko beharrarekin.

**Janzteko autonomi maila:**

- 0 - Autonomoa
- 1 - Laguntza materialez
- 2 - Beste pertsona baten laguntzaz
- 3 - Laguntza materialez eta beste pertsona baten laguntzaz
- 4 - Erabateko ordezkapena

#### ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:

**Arropa janzteko / erantzeko arazoa:** haurraren garapen psikomotrizaren maila errespetatuz, mugimenduan mugarik, jarduerarekiko intolerantziarik edo ahultasunik dagoen aztertu (arropa, oinetakoak edo lotu gabeko edo gaizki lotutako jantziak eusteko zailtasunak). Ikertu erabiltzen duen arropa mota; hau da, janzteko eta erantzeko zailtasunik duen eta haurrak janzteko zenbaterainoko laguntza behar duen (botoiak, kremaileak, begiztak...). Erlazionatu Mugitzeko eta ariketa egiteko beharrarekin, mugimenduen deskoordinazioa (narriadura neuromuskularra, dardara, giltzadura maila murriztea), mugikortasuna eragozten duten gailuen presentzia (eskaiola ferulak), mina.

**Arropa edo oinetakoak eskuratzeko arazoa:** aztertu trebezien edota ezagumen-pertzeptzio kalte- en prozesuei atxikitako neurri konpentsagarrien gabeziarik badagoen. Horrez gain, balioztatu baliabi- de sozialen kudeaketa. Aztertu egoera emozionalik (motibazioa galtzea, tristura, apatia...) edota bere goputzaren okerreko ikuspuntu desegokia duen, jantzietan eragina duena.

**Ohitura okerrak:** janzteko eraren gaineko ohiturak aztertu: jarrera desegokiak, arropa estua, zikina edota zarpaila, estutzen duten arropak janztea (fata, gerrikoak...), arropa fina, lodia, material iragaz- kaitza (transpiratzea eragozten dutenak) eta familia eta gizarte kulturako ideiak edo rolekoak ("harro- keriaz ibiltzeko sufritu egin behar da", "janzten zaren moduaren arabera tratatuko zaituzte" ...). Azter- tu arropa/klima/jardueraren arteko erlazio desegokirik dagoen. Termoerregulazio beharrek in erlazionatu.

**Gailuak gaizki erabili:** Begiratu janzteko eta eranzteko gailuak gaizki erabiltzen dituen, muskuluen ahultasunarekin erlazionatu, deskoordinazioa, erabiltzeko modua ahaztea, beldurra. Kontrastatu Arriskuak saihesteko beharrek in (autoestimua).

### ARAZO ITURRIAK:

**Ezagutza falta.** Erregistratu Bai/Ez. Zehaztu behar beste ezagutza duen egoki janztea eta eranztea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Indar falta.** Erregistratu Bai/Ez. Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual duen egoki janztea eta eranztea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko neurriak gauzatzeko.

**Borondate falta.** Erregistratu Bai/Ez. Zehaztu konpromisorik edo motibaziorik erakusten duen egoki janztea eta eranztea baldintzatzen duten neurri zuzentzaileak gauzatzeko.

### DIAGNOSTIKOAK

<p><b>AUTOZAINTEKO GABEZIA: JANZTEA</b> Y52</p>	<p>Haurra narriatuta dago bere kabuz janzteko eta apaintzeko jarduerak egiteko edo osatzeko</p>
<p><b>Erl.:</b> Arropa edo oinetakoak eskuratzeko arazoa Arropa janzteko eta eranzteko arazoa Ohitura okerrak Gailuak gaizki erabili</p>	<p><b>Adrz.:</b> Ohiko arropa edo oinetakoak oker erabili; beharrezko jantziak janzteko edo eranzteko eraginkortasunik eza; jantziak eskuratzeko edo aldatzeko gaitasuna kaltetuta; itxura modu egokian mantentzeko gaitasuna kaltetuta</p>



## 7. Termoerregulatzeko beharra

### DEFINIZIOA

Pertsonak egiten dituen ekintzak bere gorputzaren barne tenperatura muga batzuen barruan mantentzeko, homeostasi organikoa eta pertsonaren ongizatea bermatzeko eta laguntzeko.

### BALORAZIOA

#### ADIERAZLEAK:

■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** haurra zaintzeko erreferentziako pertsona idatzi.

**Hautemandako aldaketak:** haurrak erakusten dituen aldaketak eta eboluzioa idatzi tenperaturaren pertzepzioari dagokionez: beroaren edo hotzaren sentrazio handiagoa, izerditzean aldaketak eta hotzikarak.

**Erabilitako neurriak:** idatzi antzemandako aldaketa klimatikoen edo pertsonalen aurrean abian jarri diren jarduerak edo neurriak: tenperaturari aurre egiteko jasotako heziketa, kalera irtetea gutxitzea edo handitzea, tapakiak erabiltzea, berotzeko arropa gehiegi edo gutxiegi janztea (eskuzorroak, artilezko oinetakoak, txanoa..), jarduera maila, eduki kaloriko edo prestaketa ezberdina duten elikagaiak jatea. Erabil daitezkeen baliabideak eta horien erabilera jaso (berogailuak, haizeztapena). Erabilitako neurriari buruz haurrak eta gurasoek eskaintzen dituzten balorazioa eta erantzuna jasotzea ere interesgarria da.

**Gorputzaren tenperatura:** Erregistratu gorputzaren tenperatura.

**Ohiko sentrazio termikoa:** Erregistratu Normala - Hotza - Beroa. Ohiko giroan hotza edo beroa sentitzeari buruz. Familia hozbera edo beroa den zehaztu.

**Aldaketa termikoetara egokitzea:** Erregistratu Egokia – Desegokia aldaketa termiko muturrekoetan erabilitako bitartekoen arabera (adib., bero bolada).

#### ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:

**Ez du tenperatura hautematen:** Detektatu hainbat egoeratan haurrak ezintasuna duen tenperatura hautemateko, eta kokapena zehaztu.

**Desoreka bero sorkuntzaren eta galeraren artean:** aztertu egiten duen jarduera fisikoa eta nahikoa ez ote den, egunean tenperaturaren gorabeherak, bere elikadura mota. Aztertu arropa eguraldiaren arabera egokia den (hotzaren edo beroaren aurka babesa). Aztertu ingurunearen eragina (berogailua, aire girotua erabiltzea edo hezetasuna egotea), bainuontziko uraren tenperatura, bainuaren ondoren janzteko bizkortasuna.

**Baliabideak eskuratzeko arazoa:** aztertu trebetasun edota neurri osagarri gabeziarik dagoen mugikortasuna edo ezagumena kaltetzen dioten prozesuen aurrean, gorputzeko tenperatura erregulatzeko neurriak erabiltzea zailtzen edo eragozten badute. Horrez gain, ikertu termoerregulazioa modu negatiboan baldintzatzen duten umoreak dituen (eufori, tristura, apatia, haserrea...).

## FUENTES DE DIFICULTAD:

**Ezagutza falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste ezagutza duen tenperatura atsegin bat mantentzeko neurri egokiak erabiltzeko.

**Indar falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual erakusten duen bere gorputzaren tenperatura mantentzea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko neurriak gauzatzeko.

**Borondate falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu konpromisorik edo motibaziorik erakusten duen gorputzaren tenperatura mantentzeko neurri zuzentzaileak gauzatzeko.

## DIAGNOSTIKOAK

<b>GORPUTZAREN TENPERATURA DESOREKATZEKO ARRISKUA</b> Y50.5	Haur baten egoera, zeinean gorputzaren tenperatura ohiko mugen barruan mantentzeko arazoak izateko arriskua duen
Erl.: Ez du tenperatura hautematen Desoreka bero sorkuntzaren eta galeraren artean Baliabideak eskuratzeko arazoa	

## 8. Gorputz higieena eta larruazalaren osatasuna mantentzeko beharra

### DEFINIZIOA

Pertsona batek egiten dituen ekintzak bere gorputzeko larruazala garbia eta osasuntsua edukitzeko, organismoari kalte egin diezaioketen partikula, substantzia eta germenetatik babesteko helburuarekin eta besteekin harremanak izatea ahalbidetuko duen itxura mantentzeko xedearekin.

### BALORAZIOA

#### ADIERAZLEAK:

■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** haurra zaintzeko erreferentziatzko pertsona idatzi.

**Hautemandako aldaketak:** haurrak edota zaintzaileek erakusten dituzten aldaketak eta eboluzioa idatzi ondorengo gaien inguruan: garbitasun jarduerak, usain sentzazioa, izerdia, larruazalaren jarraitkortasuna galtzea edota azaleko lesioak (erredura, urtikaria, garatxoak, molusku kutsagarriak, aknea, zelulitisa...), lehortasuna, azkura edo erresumina, sensibilitate falta edo gehiegizkoa, aldaketak larruazalaren kolorean edo muki mintzetan. Idatzi baita ere aldaketarik dagoen larruazala garbi eta osasuntsu mantentzeko buruz.

**Erabilitako neurriak:** Aldaketaren aurrean abiarazi diren ekintzak edo neurriak idatzi: higieena patroia eta lehentasunak (pH neutroa duten gelak, ahoko kolutorioa, dutxa/bainua...), higieena jokabide berriak sartzeko mekanismoak, zaintzaileen ohitura: seme-alabaren gorputza aztertzea (zilborra RN eran, sexu organoak: barrabilak jaitea, prepuzioko azaltxoak kentzea), gozatutako txupetea ematea, haur helduetan txupetea erabiltzea. Erabilitako neurriari buruz haurrak eta gurasoek egiten duten balorazioa jasotzea ere interesgarria da.

**Egoera higienikoa:** Erregistratu Egokia – Desegokia den. Behar izanez gero, oharretan zehaztu larruazal, azkazal, ile, aho, toles interkutaneo eta toles genitalen egoera higienikoa.

**Larruazalaren egoera egokia:** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu alterazioa hidratazioan, lodiera, erresistentzia eta malgutasuna.

**Lesioak larruazalean:** Erregistratu Ez – Ultzera presioagatik – Ultzera baskularra – Ultzera neuropatikoa – Zauri traumatikoa – Zauri kirurgikoa – Erredura – Erupzioa – Ekzema – Abzesua – Beste batzuk. Zehaztu lesioaren jatorria, lekua, hedadura eta deskribapena, tratamendua (formulario berezi bat erantsi daiteke). Horrez gain, azterketa fisikoa ere egin (zilbor-hestea erortzea, jaioberriaren ikterizia, ilearen banaketa arrunta, herniak, sabeloi...).

**Garbitzeko autonomi maila:**

- 0 - Autonomoa
- 1 - Laguntza materialez
- 2 - Beste pertsona baten laguntzaz
- 3 - Laguntza materialez eta beste pertsona baten laguntzaz
- 4 - Erabateko ordezkapena

## **ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:**

**Alterazio emozionala:** irudiarekin lotura duen asaldura emozionala edota pertzepzioena dagoen ala ez baloratu (desmotibazioa, apatia, beldurra), gurasoen aldetik zein hauraren ikuspuntutik.

**Elikadura ekarpen desegokia:** Galera nutrizionala edo beharrezkoa den bitaminen ekarpena ez duen dieta dagoen aztertu (argaltzea, eusteko ehun konektiboaren galera). Kontrastatu Elikatzeko behararekin.

**Kontzeptu okerrak:** Aztertu familia-gizarte kulturaren garbitzeko ohituren eta ideien gainean (produktu erasokorrak erabili, aho noizean behin garbitu, higiena benetako beharretara ez egokitzea, larruazala lehortzearen garrantzia, hidratazio falta) (hainbat esamolde: "asko garbituz gero larruazala zatika eroriko zaizu", "garbitzen zarenean katarroa hartzen duzu", "gorputzaren zati batzuk gutxi garbitu behar dira" ...).

**Kontaktua edo harramazkatzea presio indarrekin:** detektatu mugikortasunik eza dagoen, eza-gumena-hautematea andeatzea, sentsibilitatea gutxitzea, protesia/ortodontzien desdoitzea, tolesak obesitateagatik, harramazkatzen edo higiena egitea eragozten duen gailuen presentzia, esaterako ferulak, eskaiolak edo protesiak, jarrera aldaketak eta minaren beldurra.

**Kontaktua narritatzaileekin:** detektatu hezetasun egoerak, gorozki edota gerneru inkontinentzia (pixoihala maiz aldatzearekin edota bainu desegokiarekin lotura dutenak), ostomiaren presentzia, kateterrak, larruazalean alergia sortzen duten produktuak.

**Ahultasuna:** aztertu andeatze neuromuskularra dagoen, muskulu masaren murrizketa, bere burua garbitzea eragozten duen indarra gutxitzea edo erresistentzia. Erlazionatu Mugitzeko eta jarrera ego-kian egoteko behararekin. Galera nutrizionala, kontrastatu Elikatzeko behararekin.

**Tresnak erabiltzeko arazoa:** aztertu mugimenduan deskoordinazioaren aurrean neurri konpentsa-garririk edo trebetasun gabeziarik dagoen, indarra gutxitzea, arazoak giltzaduretan, ezagutza-haute-matearen andeatzea (ahaztea, hutsegiteak).

**Hidratazioa murriztea:** Lokala edo sistemikoa, aztertu listu jarria gutxitzen den, arnasa ahotik har-tzen duen, larruazal eta muki mintz lehorretarako joera. Elikatzeko behararekin kontrastatu.

**Bitartekoen erabilera desegokia:** aztertu odol fluxua oztopatzen duten oinetako estuak edo jant-ziak (arropa edo gerrikoak) erabiltzen dituen. Kontrastatu Janzteko eta eranzteko behararekin. Hor-tzak garbitzeko eskuilak (neurria, zurden gogortasuna). Xaboi, krema hidratatzaile, kolonia edo bela-ki desegokiak erabiltzea... Traba arkitektonikoetarako inadaptazioa, bainuontziaren egitura, higienean laguntzeko gailuak (azazkalak moztekoa, azazkalak garbitzeko eskuilak, esponja kirtenduna...).

## **ARAZO ITURRIAK:**

**Ezagutza falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar ezagutza duen larruazala garbi eta osasuntsu mantentzea eta tegumentuak egoki babestea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kon-trolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Indar falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual duen larruazala garbi eta osasuntsu mantentzea eta tegumentuak egoki babestea baldintzatzen duen fak-torea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko neurriak gauzatzeko.

**Borondate falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu konpromisorik edo motibaziorik erakusten duen larruazala garbi eta osasuntsu mantentzea eta tegumentuak egoki babestea baldintzatzen duten neurri zuzentzaileak gauzatzeko.

## DIAGNÓSTICOS

<p><b>LARRUAZALAREN OSOTASUNA HONDATZEA</b> Y27.1</p>	<p>Pertsona baten egoera zeinean epidermisan edo dermisan alterazio bat duen</p>
<p>Erl.: Elikadura ekarpen desegokia Kontaktua edo harramazkatzea presio indarrekin Kontaktua narritatzaileekin Hidratazioa murriztea</p>	<p><b>Adrz.:</b> Gorputzaren egituren inbasioa; larruazalaren geruzak hondatzea; gainazalaren alterazioa</p>
<p><b>LARRUAZALAREN OSOTASUNA HONDATZEKO ARRISKUA</b> Y27.2</p>	<p>Haur baten egoera zeinean larruazalean alterazio bat jasateko arriskua duen</p>
<p>Erl.: Elikadura ekarpen desegokia Kontzeptu okerrak Kontaktua edo harramazkatzea presio indarrekin Kontaktua narritatzaileekin Hidratazioa murriztea</p>	
<p><b>AHO MUKOSAREN ALTERAZIOA</b> Y27.0</p>	<p>Alterazioak ezpainetan eta aho barrunbeto ehun bigunetan</p>
<p>Erl.: Kontzeptu okerrak Kontaktua edo harramazkatzea presio indarrekin Hidratazioa murriztea</p>	<p><b>Adrz.:</b> Aho higie eragingabea; ahoko lesioak eta(edo infekzioak (edemak, ultzerak, odol jariora, txantxarra...); aho lehorra edo zapore txarrekoa; ahoko mina/ondoeza</p>
<p><b>AUTOZAINTEKO GABEZIA: HIGIENEA</b> Y51</p>	<p>Haurren gaitasuna narriatuta dago bere kabuz bainu-higieneko jarduerak egiteko edo osatzeko</p>
<p>Erl.: Nahaste emozionala Kontzeptu okerrak Ahultasuna Tresnak erabiltzeko arazoak Baliabideen erabilera okerra</p>	<p><b>Adrz.:</b> Bainatzeko artikulua lortzeko ezintasuna; gorputzaren zati bat edo osorik lehortzeko ezintasuna; ur iturri bat edukitzeko edo bertaraino iristeko ezintasuna; uraren tenperatura edo fluxua erregulatzeko ezintasuna; bainuontzira sartzeko edo irteteko ezintasuna</p>

## 9. Arriskuak saihesteko beharra

### DEFINIZIOA

Pertsona batek egiten dituen ekintzak garapen eta hazkunde fisikoa eta psikologikoa lortu eta mantentzea lortzeko eta, horretarako, beharrezkoa da pertsona fisikoki zein psikologikoki erasokorra ez den ingurunean bizitzea.

### BALORAZIOA

#### ADIERAZLEAK:

■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** haurra zaintzeko erreferentziatzeko pertsona idatzi.

#### Hautemandako aldaketak:

- ▶ **Fisikoak:** haurrak edo haren gurasoek erakusten dituzten aldaketak eta eboluzioa idatz gora-beherak ugaritzeari edo gutxitzeari dagokionez: lesioak, ererikoak, infekzioak, erredurak, mugitzeko gaitasunari edota zentzumen kontzepzioari dagokionez, arreta maila, minaren presentzia (kokapena, maiztasuna eta jarrera erregistratu). Idatzi gorputzaren egitura, itxura edo funtzioari buruzko aldaketak. Aztertu haurrak kontuan hartzen ez dituen edo arretarik gutxien jartzen dien eta lesionatzeko arriskuan dituen gorputzeko atalak. Egoki izanez gero, baztertu tratatu txar fisikoak.
- ▶ **Psikologikoak:** erregistratu galera edo mehatxatzaile gisa har daitezkeen egoeren gaineko aldaketak edo haurraren pertsonalitatea sortzerakoan eragina izan dezaketenak: familiegituraren edo haurraren bizitzan gertatu den aldaketagatik egoera berriei aurre egin beharra: anai-arrebaren bat jaiotzea, gurasoak dibortziaztea/banantzea, aiton-amonen elkarbizitza, aldi baterako harrera, duela gutxi gertatutako heriotzaren bat, osasuna galdu izana edo gorputzaren funtzioaren baten zati bat, ikastetxez aldatu beharra, heldutasun maila, erregresio zantzuak. Idatzi famili/eskola/lagun arloko gatazkarik dagoen (ohiko eztabaidak, portaera txarra, ohiko zigorrak...), zantzu adierazleak: arretan gabezia, hiperaktiboa, asaldura obsesibo konpulsiboa...

**Erabilitako neurriak:** idatzi adingabeak edo haren zaintzaileek ohikotasunez abian jarritako neurriak istripuak prebenitzeko edo lesioak eta infekzioak gutxitu/murriztu direlako, aldian aldiko azterketak uztea, txertoak ez hartzea gomendatzen dutenean. Nerabeen kasuan, ezagutzen maila eta sexu bidez igorritako gaixotasunekin eta haurdunaldiekin, antisorgailuekin, tabakoarekin, drogekin edo alkoholarekin lotura duen jokabidea ikertu. Idatzi adingabeak eta gurasoek neurri horien aurrean emandako erantzuna eta balorazioa.

**Jokaera arriskutsuak:** Idatzi Ez – Automedikatzea – Substantzia toxikoen erabilera – Antisorgailu desegokiak – Sexu transmisioeko gaixotasunak ez prebenitzea – Txertorik ez – Ingurune fisiko desegokia – Beste batzuk. Behar izanez gero, oharretan zehaztu.

**Aurre egite fisikoa:** Aztertu krisi edo mehatxu egoeretan edo galeren ondorioz erakusten duen Agerpenik ez – Taupadak/Takikardia – Itomena – Insomnia – Zorabioak – Gehiagotan obratzea – Gehiago izerditzea – Apetitua gutxitzea – gehiago jatea – Libidoa galtzea – Beste batzuk.

**Aurre egite psikoemozionala:** Idatzi krisi edo mehatxu egoeretan edo galeren ondorioz jokaeran erakusten dituen aldaketak. Agerpen horietako batzuk izan daitezke Agerpenik ez – Segurtasunik eza – Asaldura/Gehiegizko jarduera – Hausnar egitea – Apatia/Jarduerarik eza – Norbera gutxiestea – Kontzentrazio falta – Erasokortasuna – Saihestea – Bakartzea – Beldurra – Beste batzuk.

**Dolu prozesua:** Galera baten ondorioz emandako erantzun emotiboak eta jokaerari buruzkoak baloratu eta gero, aztertu doluaren zein etapan dagoen: Ukatzea/Saihestea – Amorrua/Hira – Negoziazioa – Depresioa/Negarra – Onarpena

**Sentimenduak:** idatzi haurraren eta zaintzaileen pertsonalitate mota eta ezintasun, beldur, sumin, tristura, erru, uko egite, poz, estutasun... sentimendurik dagoen. Dolu kasua egonez gero, zehaztu zein fasetan dagoen eta galera hartatik zenbat denbora igaro den. Horrez gain, erregistratu gurasoen sentimenduak haurraren izaerari/pertsonalitateari dagokienez: poza, onarpena, sentimendu negatiboak... idatzi gurasoek haurraren zainketa inguruan dituzten gorabeherak, ardurak eta zalantzak eta gai horiek haurraren zuzentasunarengan eraginik izateko arriskurik dagoen (haurraren zuzentasun fisiokoari eta psikologikoari dagokionez).

### **ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:**

**Ezagumena andeatzea:** detektatu pertsonak ez dituen hautematen ingurunearen egoera arriskuak edo ez den bere mugez ohartzen. Baloratu denboraren eta espazioaren orientazio maila. Erlazionatu Komunikatzeko beharrarekin.

**Hautemateko gaitasuna eta zentzumenen ahalmena murriztea:** aztertu logurarik edo egonkortasunean eta mugimenduen koordinazioan galerarik jasaten duen, entzumena (infekzioa, argizaria pilatuta...) edo ikusmena murriztuta dituen (begian adabakia...).

**Produktu toxikoen gaineko kontrol falta:** aztertu botiken dosia edo produktu toxikoen erabilera ez kontrolatzeak haurraren zein zaintzaileengan eragin ditzaketen ikusmena murrizte egoerak, aldarte aldaketak eta kognizio kalteak.

**Drainadura emozionalaren falta:** aztertu haurrak/familiak ezintasuna duen egiazko zein hautemandako galeraren (esate baterako: isilarazitako edo erreprimututako sentimenduak) edo edozein aldarte egoeraren (euforia) aurrean sentimenduak eta pentsamenduak adierazteko edo ingurunean horretarako babes falta duen eta horrek prebentzio neurriak ez hartzen eraginik duen. Bere buruaz beste egiteko arriskurik dagoen hauteman. Galera sentimendua ager daiteke pertsonak galdu direlako, ondarea, lana/ikasketak, posizioa, etxea, idealak eta baita gorputzaren atalak edo funtzioak ere. Erlazionatu Nork bere burua gauzatzeko beharrarekin, Komunikatzeko beharrarekin eta Balioak eta sinesmenak izateko beharrarekin.

**Prebentzio neurrien gabezia:** ikertu bere lehen mailako defentsen egoerarengan eragina izan dezaketen egoerak jasan ditzakeen etxebizitzan edota ingurunean: azalaren jarraipen soluzioa (zillbor-hes-tea), jariakinen pH-a aldatzea, gorputzeko likidoen eta bigarren mailako defentsen estasia (immuno-zabaketa, anemiak, gaixotasun kronikoak) beharrezko neurriak hartu gabe; adibidez: etxea (sukaldea, entxufeak, produktu toxikoak), benetako arriskuak identifikatzeari buruzko heziketa (bide segurtasuna, espazio irekiak...), elikadura desegokia. Nerabeen kasuan, aztertu preserbatiboaren erabilera eta jokabide promiskuoak. Aztertu beren ustez arriskurik ez duten, baina benetan baduten, egoerarik dagoen (benetako arriskuak ez aintzat hartzea; adibidez: "ez da ezer gertatzen" edo "tontakeria da"). Aztertu inguruneak horretan duen eragina (familia edo gizarte alorrekoa).

**Laguntza sistemen falta:** detektatu desplazamendua eta/edo oreka izaten edo segurtasuna aragutzen laguntzen duten laguntza sistemak ez dituen erabiltzen. Baloratu muskuluen ahultasuna,

egongaiztasuna, deskoordinazioa, sentsibilitate falta, ikusmena urritzea. Erlazionatu Mugitzeko eta jarrera egokian egoteko beharrarekin eta Komunikatzeko beharrarekin.

**Erru sentimendua:** aztertu galera prozesu baten aurrean edo igarotako egoera bat dela eta erru sentimendurik duen (gaixotasuna/heriotza edo senideren batengandik urruntzea, gurasoek maiz bidaiatzea, dibortzioa/banantzea...), haurrak/familiak beste modu batera jardun beharko zukeela uste badu ("ez nukeen hori egin behar", "egin nuena gaizki dago", "ez dut nahikoa egin", "nire errua izan da"), neurri desegoki baten aurrean alerta egoeran kokatzen badu.

**Mehatxu egoera:** aztertu intimitategabezi edo mehatxu gisa hartzeko moduko aldaketarik gertatu den funtzionamenduan. Adibidez: rol edo itxaropen aldaketak, egoeraren araberako krisiak, famili arazoak, neurri desegokian alerta egoeran jarrarazten duten osasun egoeran aldaketak, egoitzan aldaketa, gorputz irudian aldaketa, gaixotasun estigmatizatuak (minbizia edo hiesa, esate baterako), gurasoek ezarritako heziketako edo elkarbizitzako arauak mantentzerakoan inkoherentzia azaltzea.

**Segurtasun neurrien erabilera desegokia:** baloratu haurra bizi den inguruneke segurtasun neurriak: sehaskak okerreko neurriak izatea, bide segurtasuneko zuhurtzia (homologatu gabeko aukia/moldagailua ibilgailurako, eguzkitan egoteari dagokionez (desegokia den babes maila...), zoru labainkorrek, lotu gabeko alfonbrak, ohe altuak, oztopoak sarbideetan...

**ARAZO ITURRIAK:**

**Ezagutza falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste ezagutza duen garatzeko eta hazteko behar dituen prebentzio neurriak eta egoerei aurre egiteko neurriak erabiltzeko.

**Indar falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual duen garatzeko eta hazteko behar dituen prebentzio neurriak eta egoerei aurre egiteko neurriak gauzatzeko.

**Borondate falta.** Erregistratu BAI/EZ . Zehaztu konpromisorik edo motibaziorik erakusten duen garatzeko eta hazteko behar dituen prebentzio neurriak eta egoerei aurre egiteko neurriak gauzatzeko.

**DIAGNOSTIKOAK**

<p><b>HAURREN ISTRIPUEN ARRISKUA</b></p>	<p>Haurra istripua jasateko arriskuan dagoen egoera inguruneke baldintzak direla eta, babeseko egokitze baliabideekin</p>
<p>Erl.: Ezagumena andeatzea Prebentzio neurririk eza Produktu toxikoen gaineko kontrolrik eza Laguntza sistemen falta Segurtasun neurrien erabilera desegokia</p>	
<p><b>INFEKTATZEKO ARRISKUA</b> Y25.3</p>	<p>Haur baten egoera zeinean mikroorganismo patogenoek inbaditzeko arriskua handitzen den</p>
<p>Erl.: Prebentzio neurrien falta</p>	



<p><b>ANTSIETATEA</b> Y30 Nolabaiteko ondoez edo mehatxu sentsazioa, erantzun automatiko batez lagunduta; jatorria sarritan zehaztugabea edo ezezaguna izan ohi da pertsonarentzat; beldur antzaren sentimendua, arrisku bat aurreratzeagatik. Berehalako arriskua dagoela adierazten duen seinalea da, eta mehatxuari aurre egiteko neurriak hartzeko aukera ematen dio pertsonari</p>	
<p>Erl.: Mehatxu egoera</p>	<p><b>Adrz.:</b> Produktibitatea murriztea; begi kontaktu desegokia; asaldura; kezka adierazpenak; arreta nitasunean zentratuta; loaren arazoak; damutzea; sukortasuna; distresa, angustia; beldurra; segurtasunik eza; arnasketa gehitzea; taupadak; sabelaldeko mina; izerditzea areagotzea; beherakoa; aho lehorra; ahultasuna; aurpegia gorritzea; muskuluetako espasmoak; goragalea; gernu maiztasuna; pentsamendua blokeatzea; nahasmendua; hausnar egitea; arreta eta kontzentrazioa andeatzea; hautemateko eremua murriztea; errua beste batzuei leporatzeko joera</p>

<p><b>DOLU AURRERATUA</b> Y33.0 Galera hautematearen ondorioz, pertsonak (familiak, komunitateak) autokontzeptuaren aldaketaren prozesua gainditzen saiatzeko ematen dituzten erantzun eta jokaera intelektualetan eta emozionaletan porrota edo luzatzea</p>	
<p>Erl.: Drainadura emozionalaren falta</p>	<p><b>Adrz.:</b> Zerbait garrantzitsuaren galera potentziala; tristezia; sufrimendu adierazpena edo ukapena galeraren aurrean; erru, hira, negar adierazpena; ituna; loa, elikadura, komunikazioa aldatzea, jarduera mailak eta/edo libidoaren maila aldatzea</p>

<p><b>DOLU DISFUNTZIONALA</b> Y33.1 Galera potentziala hautematearen ondorioz, pertsonak (familiak, komunitateak) autokontzeptuaren aldaketaren prozesua gainditzen saiatzeko ematen dituzten erantzun eta jokaera intelektualetan eta emozionalen porrota edo gehiegi luzatzea</p>	
<p>Erl.: Drainadura emozionalaren falta Erru sentimendua</p>	<p><b>Adrz.:</b> Harremani berrekiteko eraginkortasunik eza; iragandako esperientziak doluaren intentsitate berdinarekin birbizitzea; bizitzaren funtzionamendua luzaz oztopatzea; erantzun somatikoak edo psikosomatikoak hastea edo areagotzea; galeraren ukapena; erru adierazpenak; ebatzi gabeko gaien agerpenak; hira; tristezia; negarra</p>

<p><b>ALDE BATEKO DESATENTZIOA</b> Y62.6</p>	<p>Haur baten egoera zeinean ez duen bere gorputzeko alde bat hautematen duen kontzientzia eta ez dion arretarik jartzen</p>
<p><b>Erl.:</b> Hautemateko gaitasuna murriztea Segurtasun neurrien erabilera desegokia</p>	<p><b>Adrz.:</b> Arreta falta iraunkorra kaltetutako aldeko estimuluekiko, autozainketa desegokia; jarrereri buruzko prekauzioak edo segurtasunezkoak kaltetutako aldearekiko; kaltetutako aldeari ez begiratzea; kaltetutako aldean platerean jakiak uztea.</p>

## 10. Komunikatzeko beharra

### DEFINIZIOA

Pertsona batek egiten dituen ekintzak kidekoekin harremanak izateko. Ahozkoa eta ahoskoa ez den prozesu bat adierazten du, eta pertsonen aukera ematen die elkarrengana iristeko, eta sentimenduak, iritziak, informazioak eta esperientziak partekatzeko.

### BALORAZIOA

#### ADIERAZLEAK:

##### ■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** haurra zaintzeko erreferentziatzeko pertsona idatzi.

**Hautemandako aldaketak:** idatzi haurrak ingurunearekin komunikatzeko duen moduan antzemandako aldaketak edo bilakaera: adierazteko gaitasuna, ahotsa aldatzea, totalka hitz egitea, hitz betegarriak etengabe erabiltzea, tikak, izaera, lagunak... erregistratu arazoan aurrean bere ingurunearekin komunikatzerakoan dagoen eragina (haurren gorputzeko funtzio/egituraren zati bat galtzea edota gaixotasuna).

**Erabilitako neurriak:** idatzi aldaketaren ondorioz gurasoek/haurrak erabilitako neurriak. Metodo alternatiboen erabilera, betaurrekoak edo audifonoa. Kidetza talde bat bilatu (adierazpena eta orientazioa ahalbidetzeko giroak), harreman sozialak areagotu, laguntza eskatzen du, isolatu egiten da, jarduera bizia mantentzen du... Baloratu gurasoek ezagumen-adimenaren garapenean parte hartzen duten (sustatu, eskolako lanak egiten lagundu, ipuinak irakurri, adibideak erabiltzen dituzte...). Idatzi gurasoek eta haurrak neurri horien aurrean emandako erantzuna eta balorazioa.

#### Ikusteko ahalmena:

- ▶ (0) Zuzen ikusten du lente zuzentzaileekin edo gabe
- ▶ (1) Ikusteko arazoak ditu baina eguneroko jarduerak burutzeko lain dira
- ▶ (2) Ez du objektuen ingurua ikusten eta beste gida bat behar du eguneroko zereginak egiteko
- ▶ (3) Itsua

#### Entzuteko ahalmena:

- ▶ (0) Behar bezala entzuten du audifonoarekin zein gabe
- ▶ (1) Ozen hitz eginez gero entzuten du edo audifonoa jarri behar du
- ▶ (2) Gorra, keinuengatik edo hitz bakan batzuegatik ulertzen du
- ▶ (3) Gorra, ez da gauza esaten zaiona ulertzeko

#### Ahozko komunikazioa:

- ▶ (0) Zuzen hitz egiten du
- ▶ (1) Hizketan akatsa du baina pentsamendua adieraztea lortzen du
- ▶ (2) Hizketan akats larria du baina oinarritzko beharrak adierazten ditu eta galdera errazei erantzuten die
- ▶ (3) Ez da gauza komunikatzeko

**Memoria (Funtzio mentala):**

- ▶ (0) Memoria normala
- ▶ (1) Duela gutxiko gertakariak ahazten zaizkio (izenak, zitak) baina jazoera garrantzitsuak gogoratzen ditu
- ▶ (2) Eguneroko bizitzako gauzak ahaztu ohi ditu (janaria prestatu, botikak hartu...)
- ▶ (3) Amnesia ia erabatekoa

**Orientazioa (Funtzio mentala):**

- ▶ (0) Ongi orientatua denboran eta espazioan
- ▶ (1) Batzuetan orientazioa galtzen du denboran eta espazioan
- ▶ (2) Denbora eta espazio tarte laburretan baino ez da orientatzen
- ▶ (3) Orientazioa guztiz galdua du

**Ulermena (Funtzio mentala):**

- ▶ (0) Ongi ulertzen du esaten edo eskatzen zaiona
- ▶ (1) Motela da azalpenak edo eskariak ulertzen
- ▶ (2) Ez du ulertzen partzialki, errepikatzea behar du
- ▶ (3) Ez du ulertzen

**Zentzua (Funtzio mentala):**

- ▶ (0) Egoerak baloratzen ditu eta zentzuzko erabakiak hartzen ditu
- ▶ (1) Egoerak baloratzen ditu eta aholkua behar du zentzuzko erabakiak hartzeko
- ▶ (2) Egoerak oker baloratzen ditu eta iradokitzen dioten arren ez du zentzuzko erabakirik hartzen
- ▶ (3) Ez ditu egoerak baloratzen eta lekuz kanpoko erabakiak hartzen ditu

**Ahozko / ez ahozko koherentzia:** Erregistratu BAI/EZ, begirada, jarrera, keinu eta aurpegiaren espresioaren bidez adierazteko duen ahalmenaren arabera.

**Hautemandako harreman afektiboa:** Erregistratu Badago – Ez dago. Emozioak, pentsamenduak, sentimenduak eta ideiak trukatzeko duen senide, lagun eta kideekiko harremana zehatz dezakegu.

**Bakardade sentsazioa:** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu egoerarik dagoen zeinean baztertuta, ulertugabea, besteen desberdina, disgustura sentitzen den. Honelako esapideak erabiltzen ditu: "inork ez nau ulertzen", "gurasoak beti lanpetuta daude"... Harreman sozialetarako bideratzen duen denbora eta bakarrik igarotzen duen denbora (berak nahi duelako edo norbaitek ezarriko balio bezala hartzen duen). Erregistratu zer egiten duen bakarrik egoten den denboran (jolastu, telebista ikusi, irakurri, eskolako lanak egin, ikasi, pentsatu...).

**Ama hizkuntza:** idatzi haurra eta zaintzaileak zein hizkuntza edo dialektotan komunikatzen diren ondoen.

**Pertsona esanguratsuak:** zehaztu haurrak zein pertsonarekin (pertsonekin) azal ditzakeen bere emozioak, pentsamenduak, sentimenduak eta ideiak. Ohiko zaintzaile baten presentzia, harekin igarotzen duen denbora. Zaintzaile nagusiarekin duen harremana (ama/aita/amona/zaintzailea).

**Haur sexualitatearen garapena:** adingabeak aurkako generoaren eta bere genero beraren aurrean agertzen dituen jarrera eta emozioak (bere sexualitatea ezagutzea, pubertaroa bizitzea, esperientzia negatiboak...). Zaintzaileek ondorengoan aurrean dituzten jarrerak edota ardurak erregistratu: umeen esplorazio etapa (ahoko etapa, uzkieoa...), bere sexualitatea agertzeko modua (intimitatearen errespetua, pornografia, masturbazioa, galderak...) eta gurasoek egoera horien aurrean hartzen duten jarrera (tabua, eztabaidak, zigorrak...).

## **ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:**

**Ingurune eta gizarteko trabak:** Aztertu komunikatzen laguntzen duten baliabideen falta duen, esaterako, telefonoa edota mugitzeko gailuak (hiri barneko garraioa...), bere planetara egokitzen ez diren ordutegietan antolatutako ekintzak, ulertzeko mugak...

**Komunikatzeko teknika alternatiborik eza:** begiratu anatomia edo funtzio alorreko akats egoerak (fonazio aparatua, fonazioko, entzumeneko eta ikusmeneko beste arazo batzuk...).

**Gatazka balio soziologikoekin:** Aztertu sinesmen, ohitura eta kulturari lotuta jarduteko modu desberdinak (sozialki onartzen ez diren jokaerak, kultura desberdinak, etorkinak...).

**Ezagumena narriatuta:** ezagumen edo komunikazio prozesuen aldaketarekin batera gertatzen diren egoeretan edo prozesuetan, trebetasun edota teknika konpentsagarrien gabezia: autismoa, Down sindromea, garun paralisia...

**Kultur desberdintasunak:** begiratu ingurunearekin komunikatzeko zailtasunak kultura desberdina izateagatik, hizkuntza ez jakiteagatik.

**Kidetza talderik eza:** begiratu haurrak eroso sentitzen ez den asetzen ez dituen harreman pertsonalak dituen eta kidetza talderik ez izatea aztertu.

**Funtzioa galtzearen beldurra:** aztertu hainbat egoera, hala nola patologia (obarioetan kisteak, fimosia... ) edo tratamenduak, adingabeak ondorengoan antzeko esaldiak adierazten dituzte: "jada ezin dut" ... Erlazionatu Arriskua saihesteko behararekin. Aztertu sexualitateari dagokionez okerreko usterik duen. Erlazionatu Arriskua saihesteko behararekin.

**Baztertuko duten beldurra:** aztertu egoeraren pertzepzioa edo autopertzepzioa itxuraldatzen duen faktorerik dagoen (harremanak izateko zailagoa den pertsonalitate mota) edota gorputzaren egituran eta funtzionamenduan aldaketak (orbainak, aknea, obesitatea, pubertaroko/nerabazaroko ohiko aldaketak...), bere buruaren pertzepzioa aldatzea eta aitorten pertsonala edota gaitasunak gutxiestea eragiten dutenak (eskolan ez hitz egitea ez dakielako, bestela sasijakintzatzat edo zuritzat hartuko dute-lako, gaizki irakurtzeagatik...). Erlazionatu arriskuak saihesteko behararekin eta Nork bere burua gauzatzeko behararekin (balio sozial onartu gabeak).

**Estimulazio desegokia:** aztertu desegokia den zentzumenen estimulazioa dagoen: gainestimulazioa/estimulazio eskasia (adibidez: kolore biziak, heziketa jokoak, haurarekin denbora egon, elkarrizketetan ez aurre egitea edo honen antzeko esaldiak: "txikia da hori ulertzeko"...). Baloratu haurrak maitasun gabeziarik edo baztertuta dagoela sentitzen duen... eta horrek ezagumen-adimen garapenean eraginik duen.

**Gurasoen rolaekin lotura duen antsitatea:** gurasoen tentsio emozionalaren kudeaketa txarra baztertu (anbibalentzia emozionala, itxaropenen arteko diskordantzia eta "haur zintzoa" errealitatea, bularreko hauraren negarra edo haserrea gaizki interpretatu direlako nekea...). Aztertu amagandiko edoskitzea mantentzeko zailtasunik dagoen (nekea, laneko gaiak, famili ingurunea...).

## ARAZO ITURRIAK:

**Ezagutza falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste ezagutza duen bere komunikazioa baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Indar falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual duen bere komunikazioa baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Borondate falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu konpromisorik edo motibaziorik duen bere komunikazioa baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

## DIAGNOSTIKOAK

<b>AHOZKO KOMUNIKAZIOA ANDEATZEA</b> Y10.0	Haur baten egoera zeinean komunikatzeko sinbolo sistema bat jaso, prozesatu, transmititu eta erabiltzeko gaitasunean murrizketa, atzerapena edo gabezia duen
<b>Erl.:</b> Komunikatzeko teknika alternatiborik eza Kultur desberdintasunak Estimulazio desegokia	<b>Adrz.:</b> Hitz egin nahi ez edo ezintasuna; hizkuntza nagusia hitz egiteko eta ulertzeko ezintasuna; hitzez adierazteko arazoak, ilun edo desegoki; pentsamenduak eta beharrak adierazteko arazoak
<b>INTERAKZIO SOZIALA ANDEATZEA</b> Y73.0	Haur baten egoera zeinean pertsonak duen elkartruke soziala kantitateari dagokionez gutxiegi edo handiegia den eta kalitateari dagokionez eraginik gabea
<b>Erl.:</b> Gatazka balio soziologikoekin Kidetza talderik eza Baztertuko duten beldurra	<b>Adrz.:</b> Egoera sozialetan ondoeza hitzez adierazi edo ohartarazi; bakardade sententzioaren adierazpenak; kidetza, maitasun, interes edo historia partekatuen sententzioa jasotzeko edo transmititzeko ezintasuna hitzez adierazi edo ohartarazi
<b>BAKARDADE SOZIALA</b> Y73.1	Haurrak bakardadea sentitzen du eta eta besteek inposatutako egoera negatibo edo mehatxagarri gisa hautematen du
<b>Erl.:</b> Inguruneko eta gizarteko trabak Gatazka balio soziologikoekin Baztertuko duten beldurra	<b>Adrz.:</b> Euskarri diren pertsonak ez daude, nabarmen; tristura; mututasuna; liskarra; begi bidezko kontaktu falta; azpikulturaren onar daitezkeen baina kultur talde nagusian onartzen ez diren jokoak eta balio adierazpenak; bakarrik, bakartuta dagoen sentimenduak adieraztea; desberdin sentitzea

<b>SEXU PATROI ERAGINGABEAK</b> Y72	Haur baten egoera zeinean bere sexualitateari buruzko kezka erakusten duen
Erl.: Funtzioa galtzearen beldurra Baztertuko duten beldurra	Adrz.: Sexu jokaera edo jardueretan arazoak, mugak edo aldaketak agertzea
<b>INGURUNEA INTERPRETATZEARI BURUZKO ANDEATZE SINDROMEAK</b> Y10.1	Orientazio falta pertsoneri, espazioari, denborari edo egoerei buruz 3-6 hilabetez baino gehiagoz, eta 3ingurune babeslea behar du
Erl.: Ezagumena andeatzea	Adrz.: Orientazioa etengabe galtzea ingurune ezagunetan zein ezezagunetan; nahasmendu egoera kronikoak; memoria galtzea; jarraibide errazak betetzeko ezintasuna; arrazoitzeko ezintasuna; kontzentratzeko ezintasuna; geldotasuna galderei erantzuteko
<b>GURASOEN ETA BULARREKO HAURRAREN/UMEAREN ARTEKO LOTURA ANDEATZEKO ARRISKUA</b>	Gurasoen eta bularreko haurraren/umearen arteko prozesuan formazioko babes harreman garapen sustatzen duen aldaketa gertatzeko arriskua
Erl.: Estimulacio desegokia guraso-rolari lotutako antsietatea	

## II. Behar espiritualak

### DEFINIZIOA

Pertsona batek egiten dituen ekintza keta jokaerak bere bizitzari zentzua eta esanahia emateko, ongi azaldu eta gaizki azaldu, zuzenaz eta okerraz eta garrantzitsua edo esanguratsua izateaz duen ideia pertsonalaren arabera.

### BALORAZIOA

#### ADIERAZLEAK:

■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** Haurra zaintzeko erreferentziako pertsona idatzi.

**Hautemandako aldaketak:** Haurrak eta haren gurasoek erakusten dituzten bilakaerak edo jasotako aldaketak idaztea, eta aldaketa horiek onartzeko maila. Itxaropen mailan, baretasunean, bizitzaren aldeko ilusioan, bere buruari bizitzaren eta heriotzaren esanahiaz galdetzean, balioak eta sinesmenak birplanteatzean gorabeherak aztertzea.

**Erabilitako neurriak:** Haurrek eta gurasoek aldaketen inguruan zer neurri edo jokaera erabili den idatzi: erlijio praktika areagotu, laguntza espiritualak bilatu, pentsamendu positiboa egoerari buruz, iraganaren azterketa eta etorkizunari buruzko birplanteamendua, bakardadea edo meditazioa bilatu, sinesmenei uko egin (erlijioa, adiskidetasuna, familia). Aztertu nola gainditu dituen antzeko beste egoera batzuk.

**Balio esanguratsuak:** Haurra murgiltzen den kultura eta ideologia modu zainduan baloratzea eta horrek izan ditzakeen ondorioak. Une honetan, haurarentzat garrantzitsua edo esanguratsua dena asmatzea (arte adierazpena, familia, dibertsioa ikasketak...), edo bestalde, hutsik sentitzen den edo ez, erreferentzia punturik gabe, "ezin dut" gisako adierazpenekin, inizatiba eta parte hartze gabezia.

#### ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:

**Mehatxua balio pertsonalei:** Haurrari galdera berriak edota balio pertsonalen hausnarketak, gerturatu edo erlijio, praktika edo erritualak edo lotura kulturalak egitea derrigortzen dioten egoerak dauden edo ez aztertzea.

**Baliabideak erabiltzeko arazoak:** Begiratu euskarri lagungarrien falta duen bere balioekin koherenteak diren erabakiak hartzeko, interferentziarik dagoen edo esperientzia falta. Aztertu haurrak/zaintzaileak behar duen informazio maila eta elikatzeko erabiltzen dituen informazio iturri desberdinak, eta edukietan dauden desberdintasunak begiratu.

**Garrantzitsuena galtzea:** Aztertu sufrimendu egoerak edo galerak dituen (pertsonalak, funtzionaltasunak, egiturazkoak, ekonomikoak, sozialak), horien aurrean adingabekoa indarririk gabe sentitzen delarik, bazterrean utzita eta irtenbiderik gabe, bere balio edo sinesmenak berraztertuz. Bakartzea dakarren jardueraren denbora luzez murriztuta dagoen ere aztertu. Erlazionatu Nork bere burua gauzatzeko beharrezkin eta Komunikatzeko beharrezkin.



## ARAZO ITURRIAK:

**Ezagutza falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste ezagutza duen bere ongizate espirituala baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Indar falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual erakusten duen bere ongizate espirituala baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Borondate falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu konpromisorik edo motibaziorik duen bere ongizate espirituala baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

## DIAGNOSTIKOAK

<b>SUFRIMENDU ESPIRITUALA</b> Y80	Haurraren izate osoa saturatzen duen eta izaera biologikoa eta psikosoziala gainditzen duen bizi printzipioaren alterazioa
Erl.: Mehatxua balio pertsonalei	<b>Adrz.:</b> Bizitza/heriotzaren esanahiari edo balio sistemari buruzko kezka adierazpenak; sinesmenei buruzko barne gatazkak ahoz adierazi; jainkoarekiko harremanen inguruko kezka adierazi; norbere existentziaren esanahiari buruzko galderak; ohiko erlijio praktketan parte hartzeko ezintasuna; erregimen terapeutikoaren inplikazio moral/etikoei buruzko galderak
<b>ERABAKI GATAZKA</b> Y02.1	Zalantza egoera hartu beharreko erabakiaren norabidearen inguruan, hainbat ekintzaren artean aukeratu beharrak arriskua edo galera dakarrenean edo balio pertsonalei begira erronka esan nahi duenean
Erl.: Mehatxua balio pertsonalei Baliabideak erabiltzeko arazoak	<b>Adrz.:</b> Zalantza adierazten du aukerei buruz eta alternatibek ekar ditzaketan nahi gabeko ondorioei buruz; erabakiak hartzeko atzerapena; sufrimendu sentimenduak ahoz adieraztea erabaki bat hartu nahi den bitartean; tentsio seinaleak
<b>ITXAROPENIK EZA</b> Y60.0	Haurraren egoera subjektiboa zeinean alternatiba edo erabaki pertsonal gutxi edo bat ere ez duela hautematen duen eta ezigauza den bere energi abere mesedetan mobilizatzeko
Erl.: Garrantzitsuena galtzea	<b>Adrz.:</b> Pasibotasuna; ahozko adierazpenak murriztea; estimuluen aurrean emozioak eta erantzunak murriztea; "ezin dut" bezalako adierazpenak, hasperenak; oinarritzko beharrak asetzeko ezintasuna.

## 12. Nork bere burua gauzatzeko beharra

### DEFINIZIOA

Pertsona batek egiten dituen ekintzak beren helburuak asetzeko eta baliagarria eta maitatua dela sentitzea ahalbidetzen diotenak. Pertsonak erabakitzen dituen ekintzek bere sormena eta ahalmena al bait gehien erabiltzeko modua ematen diote. Pertsona batek bere ekintzen ondorioz saria et atsegina jasotzen duenean errealizazioa erabatekoa da.

### BALORAZIOA

#### ADIERAZLEAK:

■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** Haurra zaintzeko erreferentziatzko pertsona idatzi.

**Hautemandako aldaketak:** Egiten dituzten erantzukizun/jardueren kopuruarekin lotutako gurasoek edo haurrak agertzen dituzten aldaketak edo bilakaera erregistratzea: etxeko zereginak, onartuko rola (heromano heldua/adingabekoa, seme bakarra, ikaslea...), liberazioa edo erantzukizun edota zeregin sozial, laboral eta familiarterkoen eta zeregin horietan integratzea karga ugaritzea ekarriko duen gaitasun egoeraren bat (berea edo familiarterkoa). Haurraren nortasuna nola garatzen den baloratzea eta edozein motatako proiektuetan familiarren babesa, edo gurasoek nola bideratzen duten seme-alabaren nortasuna. Gertaera honen alderdi negatibo posiblea baloratzea.

**Erabilitako neurriak:** Aldaketen aurrean erabilitako jarrerak edo erantzunak erregistratu: hiperaktibitatea, pasibotasuna, bakartzea, tentsioa, haserrea, onarpena... haurraren eta zaintzaileen neurri horien aurrean erantzuna eta balorazioa idatzi.

**Rolaren autoebaluaketa:** Erregistratu haurra bere rolaekin gustura, ez oso gustura edo batere gustura ez dagoen, egiten dituen jarduerak nola erabiltzen/uztartzen dituen (ikastetxea, eskolako edo eskolaz kanpokoak diren jarduerak, etxean laguntzea, anai-arrebak zaintzea...). Etsita edo ilusiorik gabe dagoen.

**Rolera egokitzea:** Erregistratu egokitzapena Ona – Txarra izan den. Gaizki egokitu bada, ingesta galdu, handitu edo murriztu duela adierazten duen baloratu, loaren alterazioak, bakartze soziala, alkohola kontsumitu, agresibitatea, gehiagotasun sentimendua, errua beste batengan proiektua eta abar.

**Norbere gorputzaren kontzeptu negatiboa:** Aztertu bere gorputzari buruz kontzeptu negatiboa erakusten duten jokoerak edo adierazpenak: Adierazpenik ez – Negatibotasuna bere gorputzari buruz – Zati bat ezkutatzea – Zati bat erakusten du – Beste batzuk.

**Autoestimu negatiboa:** Lotsaren ahozko adierazpenak erregistratzea, gertaerei aurre egiteko ezintasunaren ebaluazioa, besteen iritziekiko menpekotasuna, begiko kontaktua. Alor honetan, jasotzen duen onospena, sariak edo zigorrak baloratzea. Haur desiratua, adoptatuta... izan den idatzi, eta bizipena bai gurasoen ikuspegitik, bai haurraren ikuspegitik. Adierazpenik ez – Negatibotasuna bere gorputzari buruz – Zati bat ezkutatzea – Zati bat erakusten du – Beste batzuk.

#### ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:

**Erantzukizun eskaria handitzea:** Aztertu eskari soziolaboralak eta familiarrenak (denbora gehiago eskatzen duen goi mailako ikasketa maila, zereginak, eskolaz kanpoko jarduerak...), "anaia zaharrena naizenez...", "-ren semea/alaba naizenez.." bezalako adierazpenak.

**Desberdintasunak pertsonaren itxaropenen eta itxaropen sozialen artean:** Begiratu pertsonak dituen itxaropenak bere baliabide pertsonal eta materialekin lor daitezkeen. Haurrak hautematen duena errealitatearekin bat datorren, erantzukizunen gaineko hautematea handituta dagoen. Begiratu bere prozesuaren aurrean zein kontrolatzeko eta erabakiak hartzeko zein maila izatea espero duen. Aztertu sozializazio desegokia.

**Baliabide erabilgarrien desegokitasuna:** Aztertu tentsioak arintzeko espazio eta denbora faltaren inguruan, laguntzeko eta saritzeko eta errekonozitzeko sistemen falta, eskura dagoen laguntza ez erabiltzea edo ez eskatzea.

**Zalantza zainketari eta gaixotasunari buruz:** Begiratu bezeroak edota zaintzaileak beldur antza eta zalantza duen egin beharreko zainketari buruz edo gaixotasunari edo prozesuari buruz. Gaixotasunaren aurrean sentimendu negatiboak dauden edo ez galdetu, haurrak/zaintzaileak plan terapeutikoa jarraitzeko duen gaitasuna. Gurasoek zainketa lanak egiteko zailtasunak dituzten edo familiarterko gatazkak dauden edo ez aztertzea.

**Galera edo aldaketa funtzionala eta/edo egiturazkoa:** Aztertu duela gutxiko aldaketak gorputzaren itxuran aldaketa ekarri dutenak (hortz zuzentzaileen erabilera, edozein motatako protesia, pubertaroa), funtzio fisiologikoen galera, ikaskuntza falta, autonomia galtzea, aldaketak erantzukizun sozialean. Erlazionatu Arriskuak saihesteko behararekin.

**Gurasoen rolari lotutako antsietatea:** Adingabekoei babes handiegia ematen dieten, kritikoegiak diren edo pasiboegiak diren zaintzaileen aldetik, beren garapenean kalte egin diezaieketenean, emozio tentsioaren kudeaketa txarra alde batera uztea. Onartzeko ahalmenean eta haurraren giltzarrien aurrean ekitea eragozten dien beste egoera batzuk dauden ala ez aztertzea.

## ARAZO ITURRIAK:

**Ezagutza falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste ezagutza duen bere burua gauzatzea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Indar falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual duen bere burua gauzatzea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Borondate falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu konpromisorik edo motibaziorik erakusten duen bere burua gauzatzea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

## DIAGNOSTIKOAK

<p><b>ROLAREN BETETZE MAILA ERAGINGABEA</b> Y71</p>	<p>Jokaera eta adierazpen patroiak haurraren itxaropen arau eta testuinguruarekin bat ez datozenak</p>
<p>Erl.: Desberdintasuna pertsonaren itxaropenen eta itxaropen sozialen artean</p>	<p>Adrz.: Nahastea rolari buruzko hautemateei buruz; rolen arteko gatazka; gainzama rolaekin (atsekabea, ukapena, nahasmena); egokitzapen desegokia aldaketari edo trantsizioari; ezina</p>

<p><b>AURRE EGITE ERAGINGABEA</b> Y02</p>	<p>Ezintasuna eragile estresagarrien balioa hautemateko, ohiko erantzunak egoki aukeratzeko edo eskura dauden baliabideak erabiltzeko.</p>
<p><b>Erl.:</b> Erantzukizun eskaria handitzea Desberdintasuna pertsonaren itxaropenen eta itxaropen sozialen artean Baliabide erabilgarrien desegokitasuna</p>	<p><b>Adrz.:</b> Aurre egiteko erabiltzen dituen moduek jokaera egokitzaila oztopatzen dute; ez dago helburuak lortzera/arazoak konpontzera bideratutako jokaerarik; ezintasunaren gaineko adierazpenak egoerari aurre egiteari edo laguntza eskatzeari dagokionez; gaixotasun/istripu tasa handia</p>
<p><b>EGOERARI BURUZKO AUTOESTIMU TXIKIA</b> Y61.3</p>	<p>Uneko egoera bati erantzuteko norik berak duen balioaren hautemate negatiboa garatzea</p>
<p><b>Erl.:</b> Galera edo aldaketa funtzionala eta/edo egiturazkoa</p>	<p><b>Adrz.:</b> Ahozko adierazpen autonegatiboak; norik bere burua ebaluatzea egoerak maneiatzeko ezgauza balitz bezala; jokaera zalantziatua, ez asertiboa</p>
<p><b>GORPUTZAREN IRUDIARI BURUZKO NAHASTEAK</b> Y61.0</p>	<p>Nahasmena haurrak bere nitasun fisikoaz duen irudi mentalean</p>
<p><b>Erl.:</b> Galera edo aldaketa funtzionala eta/edo egiturazkoa</p>	<p><b>Adrz.:</b> Gorputzari buruzko sentimendu negatiboak; norik bere gorputza saihesteko, kontrolatzeko edo errekonozitzeko jokaerak; nahasmena gorputzak ingurunearekin duen erlazio espaziala kalkulatzeko; gorputzaren zati bat ezkutatzea edo gehiegi erakustea; besteek baztertzen dutela edo erreakzionatzen dutela hautematea</p>
<p><b>NEKEA ZAINZAILAREN ROLA BETETZEARI BURUZ</b> Y02.9</p>	<p>Pertsonak hautematen edo erakusten du arazoak dituela familiaren zaintzaile rola betetzeko.</p>
<p><b>Erl.:</b> Erantzukizun eskaria handitzea Desberdintasuna pertsonaren itxaropenen eta itxaropen sozialen artean Baliabide erabilgarrien desegokitasuna Zalantza zainketari eta/edo gaixotasunari buruz</p>	<p><b>Adrz.:</b> Zailtasuna eskatutako zainketak egiteko; kezka ohiko zainketengatik, interferentzi sentimendua du zainzaile rola eta beste rol batzuen artean; zainzailearen osasun egoeraren aldaketa; famili gatazkak; estres edo depresio sententzioa zainketen hartzailearekin; galera sentimenduak</p>

**ZAINZAILEAREN ROLA BETETZEN  
NEKATZEKO ARRISKUA**

Y02.8

Zaintzaileak familiaren zaintzaile rola betetzeko zailtasunak hauteman ditzake.

Erl.: Galera edo aldaketa funtzionala eta/edo egiturazkoa  
Desberdintasuna pertsonaren itxaropenen eta itxaropen sozialen artean  
Baliabide erabilgarrien desegokitasuna  
Zalantza zainketari eta/edo gaixotasunari buruz

**GURASOEN ROLEAN GATAZKA ARRISKUA**

Zaintzaile nagusiak goreneko hazkundera eta garapena hobetzen duen ingurunea sortzen, mantentzen edo errekuaratzeko arriskua du

Erl.: Baliabideak erabiltzeko zailtasuna  
Guraso rolaekin lotutako antsietatea

## 13. Atsegin hartzeko beharra

### DEFINIZIOA

Pertsona batek egiten dituen ekintzak jolasen bitartez atsegin hartzeko, bere astialdian, atsedean hartuz tentsioak eta kezkek askatzeko bidea ematen dutenak.

### BALORAZIOA

#### ADIERAZLEAK:

■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** Haurra zaintzeko erreferentziazko pertsona idatzi.

**Hautemandako aldaketak:** Bezeroak erakusten dituen aldaketak eta eboluzioa idatzi elementu hauek gehitzeari edo gutxiagotzeari buruz: jolas jarduerak, atsedean hartzearen sentsazioa, errutinatik deskonektatzea, aldaketak ohiko denbora-pasetan / dibertsioetan. Gurasoak bere seme-alabak egiten dituen joko motari buruzko zerbaitek arduratzen dituen idatzi (indarkeria askokoa, denbora luzea igarotzen du kontsolaren pantailaren edo ordenagailuaren aurrean, lagun gutxi ditu...).

**Erabilitako neurriak:** Aldaketaren aurrean zer neurri erabili den idatzi: lagun berriak topatzea, baka-rik jolastea, gusturago egiten dituen jolasak aukeratzen ditu, kirol jarduera gehiago edo gutxiago, jolasguneetara joan, astialdiko jardueretan parte hartu, txangoak, lagunartera edo elkarteetara bildu, denbora eman musikari, irakurtzeari, arteari eta abar. Erabilitako neurriari buruz bezeroak egiten duen balorazioa jasotzea ere komeni da

**Aspertzeko sentsazioa:** Erregistratu BAI/EZ. Idatzi egoeraren ondorioz ezin dituen ohiko jarduera eta denbora-pasak egin.

**Astiaaldiaren kalitateari buruzko hautamena:** Erregistratu lan, familia eta gizarteko erantzukizunetatik ondorioztatzen ez diren jardueri emandako denboran gogobetetze eta atsekabe sentsazioa. Zehaztu gurasoak jakitun al diren jokoak duen garrantziaz eta jolasean haurraren ahalmena bultzatze-ari zuzendutako estrategiak barneratzen dituzten edo ez eta haurraren adinerako egokiak diren edo ez.

**Aisialdi jarduerak:** Erregistratu Bai/Ez. Gustukoak dituzten sormen jokoak/jarduerak zehaztu eta bere aisialdi denboran entretenitzeko egin ohi dituenak (taldeko jarduerak edo bakarkakoak: lagunekin irtetea, kirola, irakurketa, musika, pintura, irudimenezko laguna..).

#### ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:

**Apatia-Euforia:** Haurrak aisialdi eta jolaserako jardueretan ondo edo gustura parte hartzea eragozten duten egoerak ikustea: hautematean distorsioa (egoerarena edo autopertzepzioa), elkarreragina zailtzen duen nortasuna, pilatutako emozio-tentsioa (neurritz kanpoko euforia edo depresiorako joera). Aztertu haurrak zein egoeratan ez dion zentzurik edo etekinik aurkitzen astialdiko jarduerak egiteari, eta horri buruz noiz ez duen interesik eta sentimendu positiborik erakusten.

**Baliabideen erabilera desegokia:** Aztertu bere esku dituen baliabideak erabiltzen dituen edo erabiltzeko arazoak dituen (eskaintza sozialak eta kulturalak, zentro zibikoak, eskolaz kanpoko jarduerak, laguntza ekonomikoak, sarbideak, ordutegiak...). Begiratu astialdiko jardueretarako programaziorik ez

dagoen eta denbora horren egituraketan eragina duten inguruabarrak. Aztertu horretarako arrazoa (sormen falta, sormenezkoak ez diren gainerako jardueren gainkarga) eta haurrak/zaintzaileak aisialdi/betebeharrei eskaini behar zaien denbora planifikatzeko nahikoa denbora duten edo ez.

### ARAZO ITURRIAK:

**Ezagutza falta.** Erregistratu BAI/EZ. Zehaztu behar beste ezagutza duen atsegin hartzea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Indar falta.** Erregistratu BAI/EZ . Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual duen atsegin hartzea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Borondate falta.** Erregistratu BAI/EZ . Zehaztu konpromisoa edo motibazioa erakusten duen atsegin hartzea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

### DIAGNÓSTICOS

<p><b>ATSEGIN HARTZEKO JARDUEREN URRITASUNA</b> Y02.4</p>	<p>Haur baten egoera zeinean atsegin hartzeko edo astialdiko jardueretarako gogoa, interesa edo parte hartzea urrituta duen</p>
<p><b>Erl.:</b> Apatia-Euforia Baliabideen erabilera desegokia</p>	<p><b>Adrz.:</b> Pertsonaren adierazpenak aspertuta egoteari buruz, zer edo zer egiteko gogoa izateari buruz, ohiko denbora-pasak egiteko arazoei buruz</p>

## 14. Ikasteko beharra

### DEFINIZIOA

Pertsona batek egiten dituen ekintzak bere jokaerak aldatzeko aukera emango dioten ezagutzak, jokabideak eta gaitasunak lortzeko, ongizatea mantentzeko helburuarekin.

### BALORAZIOA

#### ADIERAZLEAK:

■ Elkarrizketa:

**Zaintzaile nagusia:** haurra zaintzeko erreferentziatzeko pertsona idatzi.

**Hautemandako aldaketak:** adingabearen osasunari dagokionez, osasun egoeran edo prozesuan dauden aldaketak edo bilakaera idatzi, haurrari zein zaintzaileei dagokienez.

**Erabilitako neurriak:** idatzi hautemandako aldaketaren aurrean autozainketarako edo autokontrolerako jarduerak gauzatzeko hartutako/erabilitako neurriak eta haurraren/gurasoen gaitasuna horiek aurrera eramateko: proaktiboa, pertsonak eta informazioa bilatzea, neurri egokiak eta prebentziozkoak, pasibotasuna, aldaketaren aurrean interes gabezia, eragozteko portaerak... Erabilitako neurriari buruz haurrak eta zaintzaileek egiten duten balorazioa jasotzea ere interesgarria da...

**Plana / tratamendua betetzea:** Erregistratu Bai – Zati bat – Ez. Idatzi tratamendua, hitzartutako zainketa plana, kontsulta programa eta arazoak aurreikusteko jarraibideak betetzeko ala ez betetzeko jokaera.

**Hezkuntza arloak:** Erregistratu zein arlo zehaztutan hezi behar den zainketa eta tratamendua erabiltzeko.

**Ikasteko baliabideak:** Baloratu pazienteak, zaintzaileak edo familiako taldeak baliabideak erabiltzeko duen beharra eta idatzi: Ez du behar – Sistema Sanitarioko Programak – Baliabide sozialak (etxeko laguntza, telealarma...) – Elkarleen laguntza – Beste batzuk. Zehaztu haurrak/gurasoek baliatzen dituzten baliabideen erabilera osasunaren edo zainketen inguruko zalantzak dituenean (dituztenean) (liburuak, ama, lagunak, erizaina, sendagilea, Internet...) eta haurra/gurasoak erosoan edo deserosoan dauden ikasketako moduak.

#### ERLAZIONATUTAKO FAKTOREAK:

**Jarrera negatiboak osasunaren aldeko jokaerari buruz:** aztertu onarpen prozesuaren inguruan. Ikasteko interes gabezia. Erlazionatu Arriskuak saihesteko beharreko doluaren faseko adierazleekin.

**Kontraesana sinesmen eta balioekin:** Aztertu planak bere errutinara dakarren aldaketa eta balioak eta sinesmenak mantentzeko koherentzia duen. Begiratu lehentasunak, adingabearentzat eta haren sendiarentzat esanguratsua dena, eta egoeraren sakontasuna edo garrantzia hautematen duen, konfiantza falta tratamenduari buruz. Erlazionatu Behar espiritualarekin.

**Baliabideak erabiltzeko arazoak:** ikertu haurrak/gurasoek prozesutik eratorritako jarduerak ulertzeko arazorik duten edo jasotako informazioaren inguruko okerreko informaziorik izan den. Aztertu plan terapeutikoa erabiltzeko eskura dauden baliabideak, planaren konplexutasuna (polimedikazioa,



teknika konplikatuak...) eta kideak ezarritako planean inplikatzeko diren. Erlazionatu Komunikatzeko beharrezkin (gabezia zentzumenetan, alfabetatu gabeko gurasoak edo gaztelania menperatzen ez dutenak...).

**Ez dago trebatuta osasuna sustatzeko jokoeretan:** aztertu osasun arazoari edo egoerari aurre egiteko ezagutza faltarik dagoen.

**Hazkuntzako eta garapeneko sustapen jarreretan ez dago trebatuta:** aztertu hauraren hazkuntzako eta garapeneko sustapenari aurre egiteko ezagutzarik edo trebakuntzarik ez duen.

### ARAZO ITURRIAK:

**Ezagutza falta.** Erregistratu BA/EZ. Zehaztu behar beste ezagutza duen ikastea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Indar falta.** Erregistratu BA/EZ. Zehaztu behar beste gaitasun psikomotriz edo intelektual duen ikastea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

**Falta de Voluntad.** Erregistratu BA/EZ. Zehaztu konpromisoa edo motibazioa erakusten duen ikastea baldintzatzen duen faktorea arintzeko, murrizteko, kontrolatzeko, aldatzeko edo desagerrarazteko.

### DIAGNOSTIKOAK

<p><b>TRATAMENDUA EZ BETETZEA</b> Y02.4</p>	<p>Haur edo zaintzaile batek duen jokoera guztiz edo zati batean bat ez datorrena adostutako plan terapeutiko batekin edo osasuna sustatzeko plan batekin. Horrek ekar dezake emaitzek eraginik ez izatea edo bakarrik zati batean eragingarri izatea</p>
<p><b>Erl.:</b> Jarrera negatiboak osasunaren aldeko jokoerari buruz Kontraesana sinesmen eta balioekin Baliabideak erabiltzeko arazoak</p>	<p><b>Adrz.:</b> Tratamendua ez dela betetzen ari erakusten duen jokoera; ez da hitzartutako bisitetara joaten; ez du aurrerapenik egiten; arazoak garatzen ari dira nabarmen edo sintomak areagotzen</p>

<p><b>TRATAMENDUA EZ BETETZEKO ARRISKUA</b> Y02.5</p>	<p>Haur edo zaintzaile batek duen jokoera guztiz edo zati batean bat ez datorrena adostutako plan terapeutiko batekin edo osasuna sustatzeko plan batekin. Horrek ekar dezake emaitzek eraginik ez izatea edo bakarrik zati batean eragingarri izatea</p>
<p><b>Erl.:</b> Jarrera negatiboak osasunaren aldeko jokoerari buruz Kontraesana sinesmen eta balioekin Baliabideak erabiltzeko arazoak</p>	

<p><b>OSASUNA SORTZEN DUTEN JOKAERAK</b> Y01.0</p>	<p>Osasun egonkorra duen haur baten egoera zeinean osasun maila handiagoa lortzeko aktiboki bilatzen duen ohitura sanitarioak edota inguruneak aldatzea</p>
<p><b>Erl.:</b> Baliabideak erabiltzeko arazoak Ez dago trebatuta osasuna sustatzeko jokaeretan</p>	<p><b>Adrz.:</b> Ongizate maila hobea edo osasun praktikei buruzko kontrol handiagoa bilatzeko gogoia adierazten du edo hautematen zaio; kezka adierazten du ingurune baldintzek osasunari nola eragiten dioten</p>

<p><b>GARAPENA ETA HAZKUNDEA</b> <b>HOBETZEKO GAITASUNA</b></p>	<p>Haurra bere adin talderako garatzeko eta hazteko estandarren baitan dagoen egoera, modu onean, baina haurrak edo haren zaintzaileak hobetu dezakeena</p>
<p><b>Erl.:</b> Baliabideak erabiltzeko zailtasuna Hazkuntzako eta garapeneko jarrera sustatzaileetan trebakuntza gabezia</p>	<p><b>Adrz.:</b> Hazkuntzako eta garapeneko maila altuagoa edo osasun praktiken inguruko kontrol handiagoa lortzeko gogoaren behaketa edo adierazpena</p>



# Diagnostikoak eta interbentzioak

Aurreko kapituluaren helburua informazioa biltzea zen, eta honetan, berriz, balorazioetatik ondoriozta daitezkeen etiketa diagnostiko desberdinak aurkezten dira. Etiketa diagnostikoak 14 beharretara bildu dira, etiketa diagnostiko bakoitza definitzen dituen adierazle espezifikoei jarraituta, eta adierazle horiek behar zehatz bakoitzaren balorazioaren esparruan identifika daitezke.

NANDAKo etiketa diagnostikoak aukeratu dira, Lehen Mailako Atentzioko erizainen esperientzia kontuan hartuta maiztasun handiagoz identifikatzen direnak. Etiketa diagnostikoak NANDA elkarteak definitutakoetatik aukeratu dira, eta Lehen Mailako Atentzioko erizainen esperientzia kontuan hartuta maiztasun handiagoz agertzen direnak dira. Halaber, Estatu espainiarrean esparru komunitarioan egindako hainbat azterketatan aipatzen diren beste etiketa batzuk ere gehitu zaizkie aurrekoei. Etiketa diagnostiko bakoitzari erlazionatutako faktoreak lotzen zaizkio, arazoa zergatik sortzen den azaltzen dutenak.

Erizainek, arazoak identifikatu eta ekintza plana proiektatu eta gero, gauza izan behar dute beren interbentzioek bezeroengan eragina dutela erakusteko, eta emaitza ebaluatu ahal izateko helburu bat zehaztu beharra dago. Etiketa diagnostiko bakoitzeko hiru helburu aurkezten dira, elkarren artean bereizteko adierazten duten xedea kontuan hartuko delarik: gaitasunak galtzea, ezagutza handitzea eta konpromisoa suspertzea.

Azkenik, etiketa bakoitzean helburu bakoitzari egotzitako interbentzioak aurkezten dira. Interbentzio horiek kolore desberdinen arabera multzokatu dira, interbentzioaren xedea gaitasuna garatzea, ezagutza handitzea edo konpromisoa suspertzea den kontuan hartuta. Interbentzio estandarizatuak bibliografiatik eta NICeko proposamenetatik aukeratu dira.

Erizainak, egoerari buruz egin duen balorazioaren arabera eta bere irizpide profesionalean oinarrituta, pertsona edo zaintzailea zaintzeko beharrei ondoen erantzungo dieten helburua eta interbentzioak aukeratuko ditu.



# I. Oxigenatzeko beharra

DIAGNOSTICO	FACTORES	OBJETIVOS	GUÍA DE INTERVENCIONES
<p><b>Jardutearekiko intolerantzia</b> <b>Y50.0</b></p>	<p>Desoreka O<sub>2</sub> behararen eta hartzen denaren artean Ahultasuna Neurri higieniko desagokiak</p>	<p>Haurrak eguneroko bizitzako zereginak esfortzu handirik egin gabe egingo ditu</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Jardutearekiko tolerantzia optimizatzen duten neurriak identifikatzen ditu</li> <li>Gaitasuna erakusten du O<sub>2</sub> ekarpena eta gastua optimizatzeke ezarritako neurrietan</li> <li>Konpromisoa erakusten du ezarritako neurriak betetzeko</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bere bizitzan eta beste behar batzuetan izan ditzakeen ondorioak identifikatzen lagundu</li> <li>Energia aurrezteko eta jarduera maila handitzeko neurriak identifikatu</li> <li>Gorputz mekanikako, indartzeko eta mobilizatzeke printzipioak erakutsi</li> <li>Norbere jarduerarekiko tolerantziaren mugak identifikatzen lagundu</li> <li>Behar izanez gero, oxigenoterapia erabiltzen erakutsi</li> <li>Eguneroko bizitzako jardueren programa eragingarria eta progresiboa kontratatu</li> <li>Arnasa hartzeke prestakuntzan trebatu</li> <li>Jarduera fisikorako programa progresiboa landu</li> <li>Jarduera samur eta garrantzitsuenekin hasteko iradoki</li> <li>Autonomia motibatu, lorpenak eta ahaleginak aitortu, ekintza eragingarria indartu</li> <li>Elkarreragin soziala sustatu</li> <li>Beste interbentzio batzuk</li> </ul>
<p><b>Jarduera - ezintasunaren arriskua</b> <b>Y50.1</b></p>	<p>Desoreka O<sub>2</sub> behararen eta hartzen denaren artean Ahultasuna Neurri higieniko desagokiak</p>	<p>Haurrak bere energia fisiologikoaren edo psikologikoaren mailari eutsiko dio</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Jardutearekiko intolerantzia sor dezakeen kausa identifikatzen du</li> <li>Printzipioak erabiltzen dituela erakusten du: gorputzaren mekanika / muskulua indartzeko eta gorputz adarrek mobilizatzeke ariketak / arnasa hartze kontrolaturako teknikak</li> <li>Jardueretan ahalik eta independentziarik handiena izateko nahia adierazten du</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jarduerarekiko intolerantziaren faktoreak eta ondorioak identifikatzen lagundu</li> <li>Energia aurrezteko eta jarduera maila handitzeko neurriak identifikatu</li> <li>Gorputz mekanikako, indartzeko eta mobilizatzeke printzipioak erakutsi</li> <li>Nor bere jarduerarekiko tolerantziaren mugak identifikatzen lagundu</li> <li>Jarduera eten dela adierazten duten zantzuak identifikatzen lagundu</li> <li>Jarduera fisikoari eusteko programa landu</li> <li>Jarduerarekiko tolerantziaren maila aldizka ebaluatzen lagundu</li> <li>Arnasa hartzeke prestakuntza kontrolatuan trebatu</li> <li>Egunean zehar atsedena programatu, eta gaez gutxienez 8 h</li> <li>Autonomia motibatu, lorpenak eta ahaleginak aitortu, ekintza eragingarria indartu</li> <li>Elkarreragin soziala sustatu</li> <li>Beste interbentzio batzuk</li> </ul>

## Oxigenatzeko beharra

ARAZO ITURRIA: 1. EZAGUTZA 2. INDARRA 3. BORONDATEA

DIAGNOSTICO	FACTORES	OBJETIVOS	GUÍA DE INTERVENCIONES
<p><b>Arnasbideen garbitasun eragingabea</b> <b>Y26.0</b></p>	<p>Kontaktua arnas narritatzaileekin Ahultasuna Espektoratzeko arazoak Birrikak gurtziago zabaltzea Ez ul egiteko modu desegokia Neurri higieniko desegokiak Neurri desegokiak jarretan</p>	<p>Haurrak arnasbideak jariatzen eta butxaduraz libre edukiko ditu</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arnas fisiologia eta arazoaren astungarriak esplikatzen ditu eta hobetzeko neurriak identifikatzen</li> <li>• Trebetasuna erakusten du arnasbideak libre edukitzen laguntzen duten neurrietan</li> <li>• <b>Proposatutako planari jarraitzeko asmoa</b> adierazten du</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arnasa hartzea larrigotu delako sintomak identifikatzen lagundu</li> <li>• Arrisku faktoreak ezagutzen eta kontrolatzen lagundu</li> <li>• Arnasbideak garbitzeko neurri egokiak ezagutzen lagundu (*)</li> <li>• Inhalagailuak erabiltzen hezi eta, egoki bada, espirometroa</li> <li>• Medikua esanez gero, tabakoaren ondorio kaltegarri buruz hezi</li> <li>• Medikua esanez gero, interbentzioaren aurretik arnas ariketak erakutsi</li> <li>• Bihotz-biriketako hobekuntzarako ariketa moderatuko programa ezarri</li> <li>• Egoera nutrizional eta hidratazio egokiak mantentzen lagundu</li> <li>• Inguruneko narritatzaileak ahal den heinean saihestu</li> <li>• <b>Lorpenak eta ahaleginak aitortu</b></li> <li>• <b>Autonomia indartzea, jarduera eragingarria sustatzea</b></li> <li>• Beste interbentzio batzuk</li> </ul>
<p><b>Perfusio tisular periferiko eragingabea</b> <b>Y28.3</b></p>	<p>Kanpo konpresioak Neurri higieniko desegokiak Neurri desegokiak jarretan</p>	<p>Haurrak perfusio tisular periferikoa mantendu edo hobetu duela erakutsiko du</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Perfusio tisular periferikoa larrigotzen zein optimizatzen dituen neurriak identifikatzen ditu</li> <li>• <b>Proposatutako planerako gaitasuna duela</b> erakusten du</li> <li>• <b>Agindutako plana bere eguneroko bizi</b>tan integratzeko nahia adierazten du</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arrisku faktoreak eta perfusio periferikoan duen arazorako neurriak identifikatu (arterietakoa eta/edo benetakoa)</li> <li>• Larrigotzen ari delako zantzuak eta sintomak identifikatzen lagundu</li> <li>• Eguneroko higijene zorrotzari buruz hezi, batez ere oinei dagokienez (*)</li> <li>• Lesio termikoak, traumatikoak eta kimikoak prebenitzen erakutsi</li> <li>• Eguneroko neurri higienikoak hartzen lagundu</li> <li>• Jarretarako neurriak eta muskulu bikiak aktibatzeko ariketak egiten lagundu</li> <li>• Eguneroko harat-honat ibleitzeko plana elkarrekin ezarri (3-4 km)</li> <li>• <b>Lorpenak eta ahaleginak aitortu eta neurri osasuntsuak hartzearen garrantzia</b> azpimarratu</li> <li>• Beste interbentzio batzuk</li> </ul>

## Oxigenatzeko beharra

ARAZO ITURRIA: 1. EZAGUTZA 2. INDARRA 3. BORONDATEA

DIAGNOSTIKOA	FAKTOREAK	HELBURUAK	INTERBENTZIOETARAKO GIDA
<p><b>Perfusio tisular periferiko eragingaberako arriskua</b></p> <p><b>Y28.4</b></p>	<p>Kanpo konpresioak</p> <p>Neurri higieniko desegokiak</p> <p>Neurri desegokiak jarretan</p>	<p>Haurrak perfusio tisular periferikoa mantentzen edo hobetzen duela erakutsiko du</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Perfusio tisular periferikoaren arrisku faktoreak zein optimizatzeke neurriak identifikatzen ditu</li> <li>Proposatutako neurri eta planerako gaitasuna duela erakusten du</li> <li>Agindutako plana bere eguneroko bitzan integratzeko nahia adierazten du</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Perfusio periferikoa baldintzatzen duten arrisku faktoreak identifikatzen lagundu (arterietako eta/edo benetakoa)</li> <li>Perfusio tisular periferikoko zantzuak eta sintomak identifikatzen lagundu</li> <li>Eguneroko higiene zorrotzari buruz hezi, batez ere oinei dagokienez (*)</li> <li>Lesio termikoak, traumatikoak eta kimikoak aurreikusten erakutsi</li> <li>Perfusio periferikoa baldintzatzen duten arrisku faktoreak eta zantzuak eta sintomak identifikatzen lagundu (arterietako eta/edo benetakoa)</li> <li>Oinetako lesioak aurreikusteari/higieneari buruz hezi (*)</li> <li>Egunero neurri higienikoak hartzen lagundu</li> <li>Jarreratarako neurriak eta muskulu bikiak aktibatzeke ariketak egiten lagundu</li> <li>Higieneko eta jarreratarako neurriak eta muskulu bikiak aktibatzeke ariketak egiten lagundu</li> <li>Egunero harat-honat ibiltzeko plana elkarrekin ezarri (3-4 Km)</li> <li>Higieneko eta jarreratarako neurriak eta muskulu bikiak aktibatzeke ariketak egiten lagundu</li> <li>Beste interbentzio batzuk</li> </ul>

## 2. Elikatzeko beharra

DIAGNOSTIKOA	FAKTOREAK	HELBURUAK	INTERBENTZIOETARAKO GIDA
## PCE - PED - Bularreko haurrari sudurreko mukia ateratzea

---

(1,Y26.0,63)

- ▶ Mukia atera behar duen pertsonak eskuak garbitu
  - ▶ Ez duela ulertzen dirudien arren, haurtxoari azaldu zer egingo dioten
  - ▶ Haurtxoa ahoz gora etzan eta burua eta besotxoak heldu (buruarekin batera bertikalean igoz). Haurtxoa ondo immobilizatzeko teknika egitea errazten du eta eraginkorragoa da. Gainera, haurtxoari ez dio horrenbesteko traba egingo
  - ▶ Gazur tanta batzuk (edo irakindako ura gatzarekin) bota mukia atera behar dugun zulora
  - ▶ Gure eskuko hatz batekin, busti dugunaren aurkako sudurreko zuloa estaliko dugu
  - ▶ Kontuz sartu sudurreko mukositatea aspiratzeko zunda; jarraian, zundaren pita gure ahoan sartu eta arnasa hartuko dugu
  - ▶ Zunda garbitu eta atsedean hartu aspirazioen artean, haurtxoak ere era berean atsedean har dezan
  - ▶ Beharrezko izanez gero, berriro egin
  - ▶ Haurtxoaren sudurra eta aurpegia garbitu gaza batzuekin
  - ▶ Ohikoa da teknikak irauten duen bitartean negar egitea; hori dela eta, amaitzean, erlaxatu haurtxoa laztanduz edo kulunkatuz
- (\*) Ez erabili amaieran plastikoa duen mukiak ateratzeko gomazko udarerik; izan ere, haurtxoaren mukosa higa daiteke erabiltzerakoan haurra ez badago behar bezala immobilizatuta.

## PCE - PED - Hautsaren inguruneke kontrol neurriak

---

(1,Y26.0,62)

- ▶ Saiatu hautsik ez altxatzen garbitzerakoan; erratza erabili beharrean, erabili bustita dagoen trapua edo xurgagailua. Xurgagailua igaro koltxoien, sofen, edredoiien gainetik ere...
- ▶ Gogoan izan gorantz begira dauden azalera guztietatik hautsa kentzea (altzarien goiko zatia, mar-koak...)
- ▶ Saiatu gelan hautsa kentzeko erraza ez den objekturik ez izaten (alfonbrak, peluxeak, kuxinak, libu-ruak, jostailuak...). Material sintetiko egindako alfonbra txikia jar dezakezu oinentzat logelan
- ▶ Gela egunero aireztatu, eguzki orduak aprobetxatuz
- ▶ Ohe gainean azal iragazgaitz hermetikoa jarri, edo goiko eta alboko aldeak estaltzen dituen eta aldian-aldian garbitu. Estalkidun burko akrilikoak (horiek ere aldian-aldian garbitu behar dira), estal-ki akrilikoak... erabiltzea komeni da. Ohe arropa ur berotan (60°) garbitu behar da
- ▶ Ez erabili denbora luzez gordeta egon den arropa aurretik garbitu gabe
- ▶ Ez erabili hezegailurik. Konpondu hezetasunak (baldin badaude).
- ▶ Tabakoaren kea eta narritagarri kimikoak saihestu (lakak, aerosolak, argizariak, keak, insektizidak, giro gozagarriak...).
- ▶ Saiatu maskotarik ez izaten. Iledun animaliak badaude (txakurra, katua, hamsterra...), logelatik kanpo izan eta, ahal bada, etxetik kanpo. Horrekiko sentibilizazio alergikorik izanez gero, animalia etxetik ateratzea komeni da. Txoriak (salbuespenak salbuespen), dortokak, arrainak... izan ditzake.
- ▶ Igeltserotza, pintura edo etxe aldaketa lanen kasuan, haurrak ez luke hor egon beharko.
- ▶ Bigarren etxe bat izanez gero, eta gehienetan itxita balego, haurra etxea garbitu eta aireztatu eta handik egun batzuetara sartzea komeni da. Ohitura hori bera hartu beharko litzateke etxebizitza horretatik ohiko etxera itzultzean.

## PCE - PED - Amagandiko edoskitzearen gomendioak

(2,Y54.0/1,210/284)

- ▶ Lehenengo egunetan, bularrak esne gutxi jariatu ohi du (baina haurtxoaren beharretarako nahikoa) eta lodia eta horixka izan ohi da. Esne horrek proteina gehiago izan ohi du eta "oritza" deitzen zaio. Hirugarren egun aldera, arinagoa eta zurixkagoa bihurtu ohi da.
- ▶ Normala da haurtxoak pisua galtzea lehen astean.
- ▶ Jaioberriak ezberdin jokatzen dute titia hartzerakoan; batzuek maiz edoskitzen dute eta hartualdi laburrak izan ohi dituzte (egunean 8 baino gehiago); beste batzuek, aldiz, denbora gehiagoz edoskitzen dute eta bata eta bestearen artean etenaldi luzeagoak egiten dituzte; beste batzuek, ez dute titia hartzeko interesik agertzen eta lehenengo egunetan erdi lo egoten dira.
- ▶ Titia hartzen hasten diren lehen egunak oso garrantzitsuak dira elkarren arteko harremana lantzeko eta amaren eta haurtxoaren arteko egokitzapena lortzeko. Giro erlaxatuan eta hotsik gabekoan egitea komeni da.
- ▶ Ez jardun gehiegizko gogortasunez, batez ere lehen asteetan. Haurtxo bakoitzak bere erritmoak ditu.
- ▶ Lehen egunetan, zure haurtxoari titia emateko denbora asko beharko duzula pentsatzea komeni da; hori erraza da elkarrekin bazaudete.
- ▶ Lehen hilabeteetan, haurtxoa esnearekin bakarrik elikatu behar da. Sekula ez eman azukrerik, eztiarik edo esne kondentsaturik, ez eta txupetea igurtziz ere. Haurtxo osasuntsuek ez dute biberoirik edo txupeterik behar.
- ▶ Bularra ematen zaien haurtxoek urik ere ez dute behar; ur osagarririk ematen bazaie, pisu gehiago galtzen dutela eta oritza bakarrik hartzen dutenek baino ikterizia gehiago garatzen dutela frogatu da.
- ▶ Urak eta esne artifizialak haurtxoa betetzen dute eta titia hartzeko interesa galtzen dute.
- ▶ Biberioia edo txupetea erabiltzeko asmoa baduzu, haurtxoak gutxienez hilabete eta erdi edo bi hilabete dituen arte itxarotea komeni da, erabiltzen hasi aurretik.
- ▶ Izan ere, objektu horiek haurtxoa nahas dezakete bere lehen asteetan, mihia, ahoa eta masailezurra ezberdin mugitzen baitira titia hartzerakoan edo biberoiaren edo txupetearen tetina zuatzen dutenean. Zenbait haurtxok orientazioa galtzen du titia hartu beharrean zupatu egiten dutenean eta horrek amaren titiburuetan mina eta haurrarentzat esne kopuru txikiagoa eragiten du, edoskitzeko ahalegin handia egiten duen arren; beste haurtxo batzuk nahasi egiten dira biberoi bakarra hartu ondoren eta beste batzuek bularra bazter dezakete gogor.
- ▶ Beren esne ekoizpena behar bezala eratuta egon aurretik biberoiak ematen hasten diren amak esne artifizial gehiago eta amagandiko esne gutxiago eman behar izatearen bukatzen ez den sokan sartzen dira.
- ▶ Bularren neurriak ez du loturarik amak sortuko duen esne kopuruarekin. Zenbait emakumek gehiago ekoizten du ondorengo baldintzen arabera:
  - Bularrean duen guruin kopurua.
  - Haurtxoak maiz eta modu eraginkorrean bularra hartzea.
  - Hartualdi bakoitzean bularrak ondo hustea

## **EDOSKITZEAK BEHAR BEZALA FUNTZIONATZEN DU BALDIN ETA...**

- ▶ Jaioberria 24 ordutan 8 aldiz elikatzen bada saio bakoitzean 30 edo 40 minutuz. Zenbait haurtxok maizago elikatu behar izaten dute modu eraginkorrean zurrupatzen ikasten duten arte. Beste batzuk, aldiz, horren maiz titia hartuta gizendu egiten dira.
- ▶ Gutxienez titi bat hustu egin behar da hartualdi bakoitzean.
- ▶ Haurrak bularra askatu arte itxaron, amaierako esneak gantz gehiago izaten baitu eta, horrenbestez, kaloria gehiago eta betetzearen sentsazio handiagoa sortzen du.
- ▶ Indarrez tira dizutela senti dezakezu, baina ez haurra zurrupatzen ari denean.
- ▶ Haurtxoaren besoek eta sorbaldak erlaxatuta egon behar dute titia hartzen duen bitartean.
- ▶ Haurtxoak 10 edo zurrupatze gehiagoko atsedenaldiak egiten ditu eta elikatzen hasten den bakoitzean irentsi egiten du.
- ▶ Bularra lasaitzen den neurrian, haurtxoak erritmoa moteldu egiten du 2 edo 3 zurrupaketa arte eta irentsi egiten du era berean.
- ▶ Hartualdi bakoitzaren ostean, bularrak hustuta eta bigun geratzen dira.
- ▶ Zure haurtxoa lasai eta pozik dago elikatu ostean.

## **AMAGANDIK EDOSKITZEAREN ABANTAILAK**

### **HAURRARENTZAT; ARRAZOIAK:**

- ▶ Jariatutako esne kopurua hazkunde beharretara egokitzen da.
- ▶ Oritza libragarria da, hesteen mugimendua errazten du.
- ▶ Nerbio sistema, ikusmen zolitasuna eta adimen koizientea behar bezala garatzen eragina du
- ▶ Kalitatea beti da ona:
  - Haurtxoa bere lehen hilabeteetan alergietatik eta infekzioetatik babesten duten "defentsak" ditu
  - Esterila da eta tenperatura egokian jario ohi da; era berean, gainera, janaria eta edaria da
  - Amaren eta seme-alabaren arteko lotura indartzen du, baldin eta amagandiko edoskitzea onartu badu haurrak

### **AMARENTZAT; ARRAZOIAK:**

- ▶ Indarberritzen laguntzen dio
- ▶ Ez du prestaketarik behar. Beti dago eskuragarri.
- ▶ Ez du inolako kostu ekonomikorik eragiten.
- ▶ Bularreko minbizitik babesten du.

### **BULARREKO HAURRAREN AMARENTZAT GOMENDIOAK**

- ▶ Haurtxoaren lehen hilabetean, ia-ia hartualdi bat hurrengoarekin elkartu ohi da; hori dela eta, amak nekea pilatzen du egunez egun eta gauz gau.

- ▶ Amagandiko edoskitzea mantendu ahal izateko, garrantzitsua da erlaxatuta eta atsedean hartuta egotea; hori dela eta, ahal den guztietan, atsedean hartzeko eta lo egiteko aprobetxatu behar du.
- ▶ Pentsa ezazu fase honetan zure lan nagusia zure seme-alaba zaintzea eta heztekoa, eta zeure burua zaintzea izango dela: etxeko lanak soildu eta beharrezkoa dena egin. Gainera, gainerakoei laguntza eskatu eta onartu.
- ▶ Elikadura:
  - Saiatu dieta orekatua, askotarikoa eta zuntz asko duena egiten.
  - Likido ugari edan: esnea, zukuak, ura... nahi bezainbeste.
  - Gutxitu edo erabat albu batera utzi edari bizigarriak eta, batez ere, alkohola.
  - Ez hartu botikarik sendagileari kontsulta egin gabe.

## PCE - PED - Bularra emateko teknika egokia

(2,Y54.0/1,210/284)

- ▶ Haurtxoari bularra ematerakoan, haurra bularretik gertu ahalegin handirik egin gabe eusteko jarraera egokia bilatu. Burkoak edo kuxinak erabil ditzakezu haurtxoaren pisua gainean jartzeko eta jarraera egokia hartzeko. Horrez gain, zure oinak aulki txiki edo kuxin baten gainean jarri.
- ▶ Hasi aurretik, eskuak garbitu beti.
- ▶ Haurtxoa bularraren parean dagoela eta burua ez duela biratzen egiaztatu; jarrera gehienetan, haurraren gorputza zure parean egongo da "sabela sabelaren kontra"; gertura ezazu haurtxoa bularrera eta ez alderantziz; haurraren sudurrak titiburuaren parean geratu beharko du eta buruak zure besaurrean, eskuturretik ukondotik baino gertuago. Bularrarekin sudurra estaltzen bazaio, gertura ezazu zuregana, burua atzera eramaterakoan errazago arnas hartu ahalko baitu.
- ▶ Hurrupaketa erreflexua estimulatu: titiburuarekin haurtxoaren goiko ezpaina ukituz; ahoa zabal-zabalik duenean, gertura ezazu bularrera. Ahoan titiburuaz gain, areolaren zati handi bat hartzen duela egiaztatu. Titiburuak ez luke minik eman beharko; izan ere, mina ematen badu, teknika ez dela ona eta berriro hasi beharko duzula esan nahiko baitu.
- ▶ Esku bat aske duzula, eutsi bularrari behetik, baina saiatu ez eusten titiburutik gertu (eskua "L" edo "C" forman jar dezakezu).
- ▶ Haurtxoak irrikaz irentsi, alfer agertu, bularra askatu eta atsedean har dezake. Hori guztia normala da. Pazientzia izan eta saiatu ulertzen. Leun-leun estimulatzea eta bularra apur bat estutuz laguntzea komeni da, esnea errazago atera dadin. Hartualdi bakoitzean bularra zenbat eta gehiago hustu, orduan eta kopuru handiagoa jariatuko da hurrengoan.
- ▶ Ez zaitetz larritu hartualdiaren ondoren, lo dagoela ere "zurruputzen" jarraitzen badu. Ez du esan nahi goseak geratu denik. Ohikoa da haurtxoek "zurrupatzeko" mugimendu horiek egitea eta pixkanaka desagertuko dira.
- ▶ Haurra bularretik kentzeko, jar ezazu hatz bat zure haurtxoaren hortz oietan; horrek ahoa zabalara-ziko dio eta ez dio minik egingo titiburuari.
- ▶ Hartualdi bakoitzaren ostean, haurtxoa eserita edo zutik jartzea komeni da sorbalda gainean, minutu batzuek. Bizkarrean gora kolpe txiki batzuk ematea komeni da korrok egin dezan. Zentzuzko denbora igaro ondoren ez badu korrokik egin edo zotina badu, ez saiatu berriro.
- ▶ Haurtxoaren zurrupaketak amarengan esne produkzioa sustatzen du; zenbat eta gehiago titia hartu, orduan eta esne gehiago sortzen da. Zure seme-alabari titia maiz emanez, bere behar zehatzetarako elikadura egokia lortuko duzu.
- ▶ Edoskitzen hasi den garaiaren hasieran, hartualdiak maizago egin beharko dira, bularrak handitu ez daitezen eta esnea jaitea lehenago agertuko da. Hartualdi bakoitzaren hasieran, aurreko hartualdia amaitu duzun bular berarekin hasi.
- ▶ Lehenengo bularrean iraupenak mugagabea izan behar du, askatu arte; bigarren bularretik, aldiz, nahi duena hartzen utzi behar zaio. Hartualdiak aurrera egin ahala, haurtxoak etenak egingo ditu eta betetzen denean, bularra askatuko du.

- ▶ Haurrak 20 minutu baino gehiago badarama titia hartzen eta ez bada betetzen, titia hartzeko jarre-  
ra egokia den aztertu beharko da.
- ▶ Hurrengo hartualdia beteen edo gogorren duzun tititik hasi beti. Ez baduzu bien arteko alderik  
nabaritzen, beti bigarren bularra eskaini; hau da, aurreko hartualdian hustu ez zena edo, hustu  
bazen ere, erabat hustu ez zena.

### **HAURTXOA ESNATU BEHAR AL DUT TITIA EMATEKO?**

- ▶ Oro har, hartualdiak haurtxoak eskatzen dituenean egin behar dira. Hasieran, horien arteko tartekak  
ez dira erregularrak izaten, baina seigarren astetik aurrera erregularragoak bihurtuko dira.
- ▶ Haurtxo gehienak esnatu egiten dira gauzez titia hartzeko, baina gure haurrak gau osoan lo egiten  
badu eta egunez maizago edoskitzen badu, ez da beharrezkoa izango esnatzea. Baina behar adina  
ez duela hartzen sinestarazten diguten zantzuak sumatu baditugu (bustitako pixoihal kopurua gut-  
xitzea, egunean ez du gutxienez behin kaka egiten, ez da behar adina gizentzen edo ez dirudi  
pozik), 2 edo 3 orduz behin esnatzea komeni da titia emateko. Horretarako, saiatu ondorengoak  
betetzen:
  - Esna dagoela edo lo arinean dagoela eman bularra (begiak betazalen azpian mugitzen dituenean).
  - Argiak ez diezaiola begietan zuzenean jo; horrela, begiak zabaldu eta interes handiagoa agertuko  
du.
  - Utzi pixoihala bakarrik jantzita duela, bero gehiegik loa sorraraziko baitio.
  - Gozo hitz egin eta bizkarrean edo buruan masaje leuna eman estali arroparik ez duela; bestela,  
bustitako oihal batekin bekokia eta masailak laztandu.
  - Beste jarrera batzuk probatu bularra emateko.



## PCE - PED - Bularren zainketa eta arazoak

---

(2,Y54.0/I,210/284)

- ▶ Bularrek ez dute zainketa berezirik behar.
- ▶ Hartualdiak irauten duen bitartean bularrak zaintzeko ez da produktu berezirik erabili behar. Zaintzeko nahikoa da dutxako ura edo eguneroko bainua. Ez garbitu oso maiz. Bularra aztertzeko aprobetxatu dutxa garaia.
- ▶ Mina eragin dezake xaboa, alkohola eta areoletako eta titiburuetakoa azala lehortzen duen beste edozein produktu erabiltzea. Mindutako titiburuentzat erabiltzea gomendatzen den zenbait produktuk edo kremak haurtxoarentzat kaltegarriak izan daitezken osagaiak izaten dituzte.
- ▶ Titia eman ondoren, titiburuak babestu esnearekin edo oritzarekin, masaje txiki bat eman eta utzi bakarrik lehortzen edo erabili urrunetik lehorgailu bat zentzuzko tenperaturan. Bularrak bere kabuz lehortzen ahalik eta denbora gehien uztea komeni da.
- ▶ Titiburuak mina eman dezake lehen egunetan hartualdia hastean. Minak hartualdi osoan irauten badu, haurra hobeto nola jarri behar dela esan nahiko du erroitzik ager ez dadin.
- ▶ Bularretako erosoia erabili, estutzen ez duena.

### **BULARRETAN AGER DAITEZKEN MOLESTIAK**

- ▶ Erditu ondorengo lehen egunetan, zenbait amaren bularrak gehiegi bete eta kongestiona daitezke; gogorrak, gorrituta eta minbera egon ohi dira odola eta, esneaz gain, beste fluxu batzuk handitu direlako. Egoera hori honela hobetu daiteke: hartualdien aurretik bularren gainean beroa jarritz (dutxa beroa, lurrinak, poltsak...), masajeak emanez eta haurtxoari bularra maiz emanez edo hartualdien artean zapi hotzak jarritz gainean.
- ▶ Bularrean gorrituta eta minbera dagoen gunea agertzen bada eta amak sukar apur bat badu, zure Osasun Zentrora jo.
- ▶ Litekeena da hartualdi bakoitzaren hasieran min txiki bat agertzea lehen egunetan. Hartualdi osoan irauten duen mina haurra gaizki jarrita izateak eragiten du.
- ▶ Titia eman ostean bularrek hazita eta minbera jarraitzen badute, esne apur bat aterata arin ditzakezu. Eskuz egin dezakezu. Esnea errazago aterako da ur epelarekin dutxatzen zaren bitartean egiten baduzu.

## PCE - PED - Bularretan erroitzak

---

(2,Y54.0/1,210/284)

### **ERROITZAK AGERTUZ GERO, ZENBAIT AHOLKU:**

- ▶ Bularra ematerakoan hartzen duzun jarrera zuzendu; maizago eman bularra, minik txikiena sentitzen duzun titiarekin hasiz. Ez da komeni titiburuak garbitzea hartualdi bakoitzaren hasieran edo bukaeran.
- ▶ Hartualdia amaitzean, titiburuetan ama esne tanta batzuk jarri eta utzi airetan.
- ▶ Erroitzek min handia ematen badizute, atera esnea eskuz eta haurtxoa koilaratxo batekin elikatu titiburuetako mina apur bat joan arte.

## PCE- PED - Titiburu alderantzikatuak

---

(2,Y54.0/I,210/284)

- ▶ Zenbait emakumeren titiburu kanpora egon beharrea (alderantzikatuta), barnerantz hondoratu ohi dira edo ez dira kanpora agertzen emakumeak hotza duenean, sexualki berotuta dagoenean edo titia ematen hasten denean (lauak).
- ▶ Edozein bularrekin edoski daiteke haurra; hasieran zailagoa izaten da eta pazientzia, laguntza apur bat eta haurra hasieratik ondo kokatu beharko da.
- ▶ Hautxoaren jarrera egokia bada, ahoarekin areolaren zati handi bat hartuz, sukzioak berak irtenaraziko du titiburua. Ez da komeni titi babesak erabiltzea.
- ▶ Bularren alde biko hantura orokorra da. Zenbaitetan, sukarrarekin eta buruko min handiarekin ager daiteke. Dena den, amaren egoera orokorra ona izan ohi da.
- ▶ Erditu ondorengo lehen astean agertu ohi da. Hartualdiko lehen egun horietan haurra lo egon ohi da eta indar gutxirekin xurgatzen du; gainera, esnea igotzen da eta bularrak gogor eta minbera egon ohi dira. Sukarra ere ager daiteke haurrak ez badu titia hartzen zenbait orduz.

### **PREBENTZIOA:**

- ▶ Eskatu ahala eskaini titia (gaueko hartualdiak mantenduz haurrak eskatzen badu).
- ▶ Hartualdi bakoitzaren aurretik, bularretan beroa aplikatu.
- ▶ Bularretan masajeak eman noduluak edo oso gogorrak badaude.
- ▶ Saiatu haurrak bi bularrak ondo husten; bestela, gogorrak eta minbera badaude, eskuz hustu.

### **TRATAMENDUA:**

- ▶ Jarri haurra bularraren gainean edo esnea atera maizago.
- ▶ Bularren gainean toailen konpresa beroak jarri 15 minutuz.
- ▶ 15 minutuz jarri izotzez betetako poltsak.

## PCE - PED - Konduktu galaktoforoen hantura

---

(2,Y54.0/1,210/284)

- ▶ Bularraren eremu batera mugatutako alde bateko bularraren hantura mingarria da. Konkorrerri batzuk ere ager daitezke aldi berean. Edoskitzaroaren edozein unetan ager daitezke.
- ▶ Zenbaitetan tapoi zuri txiki bat ere ager daiteke titiburuan. Tapoi hori da fluxuari oztopo egiten diona.
- ▶ Horiek agertzeak lotura izan ohi du jarrera txarrarekin (gauean alde horren gainean lo egin izana) edo bularra estutzen duten arropak janztea (bularretakoa). Presio horrek konduktu zehatz batzuetako esnea hustea eragotzi ohi du eta bularraren eremu batean geratu ohi da atxikita.

### **TRATAMENDUA:**

- ▶ Hartualdi aurretik eremu horretan beroa jartzea.
- ▶ Hartualdi garaian, titiburuaren norabidean masajeak ematea.
- ▶ Bularra hustea.
- ▶ Bularretako egokia erabiltzea.

## PCE - PED - Bularrak handitzea

---

(2,Y54.0/I,210/284)

- ▶ Bularren alde biko hantura orokorra da. Zenbaitetan, sukarrarekin eta buruko min handiarekin ager daiteke. Dena den, amaren egoera orokorra ona izan ohi da.
- ▶ Erditu ondorengo lehen astean agertu ohi da. Hartualdiko lehen egun horietan haurra lo egon ohi da eta indar gutxirekin xurgatzen du; gainera, esnea igotzen da eta bularrak gogorrak eta minberak egon ohi dira. Sukarra ere ager daiteke haurrak ez badu titia hartzen zenbait orduz.

### **PREBENTZIOA:**

- ▶ Eskatu ahala eskaini titia (gaueko hartualdiak mantenduz haurrak eskatzen badu).
- ▶ Hartualdi bakoitzaren aurretik, bularretan beroa aplikatu.
- ▶ Bularretan masajeak eman noduluak edo oso gorrak badaude.
- ▶ Saiatu haurrak bi bularrak ondo husten; bestela, gogorrak eta minbera badaude, eskuz hustu.

### **TRATAMENDUA:**

- ▶ Jarri haurra bularren gainean edo esnea atera maizago.
- ▶ Bularren gainean toailen konpresa beroak jarri 15 minutuz.
- ▶ 15 minutuz jarri izotzez betetako poltsak.

## PCE - PED - Mastitia

---

(2,Y54.0/I,210/284)

- ▶ Gehienetan alde batekoa den bularreko hantura da; edoskitzaro garaiko edozein unetan ager daiteke eta infekziosoa izan daiteke ala ez. Infekziosoa bada, horren eragilea haurraren ahotik eratorri ohi da eta germen hori beretzat ez da kaltegarria izaten.
- ▶ Hauek izan ohi dira sintomak: sukarra, ondoez orokorra (gripearen antzekoa), bularra gorri, bero eta minbera egon ohi da.
- ▶ Horren eragilea esnea konduktuetan buxatuta egotea da. Bularraren beheko aldean agertu ohi da gehien.

### TRATAMIENTO:

- ▶ Ez kendu amagandiko edoskitzea.
- ▶ Hartualdietan, haurtxoa ondo kokatu.
- ▶ Hazita dagoen bularretik hasi behar bezala hustu dadin.
- ▶ Hartualdien aurretik, bularraren gainean beroa jarri.
- ▶ Behar izanez gero, masajeak eman.
- ▶ Bularra ondo hustu dela egiaztatu.
- ▶ Neurri horiek nahikoa ez badira, joan zaitez zure Pediatria Zerbitzura.

## PCE - PED - Eskuz ateratzea eta esnea mantentzea

---

(2,Y54.0/I,210/284)

- ▶ Esnea atera aurretik:
  - Bularraren gainean beroa jarri.
  - Areolaren norabidean masaje leuna eman bularraren gainean, bularreko eremu ugaritan masajea eginez.
  - Esnea gordetzeko ontziak prestatuta izan, urarekin eta xaboiarekin garbituta, eta xaboia ondo kenduta.
- ▶ Esnea ateratzeko jarrera erosoan jartzea komeni da, zutik edo eserita eta aurrerantz makurtuta, esnea ontzi batera eror dadin.
- ▶ Esnea ateratzeko, hartu areolaren ertza titiburutik 2-2,5 cm-ra. Atzerantz jarri hatzak areolaren atzetik batzen saiatuz, "C" hizkia sortuz; hatz erakusleak ere titiburutik 2-3 cm-ra egon beharko du.
- ▶ Era berean, hatz lodia eta lehen bi hatzak atzerantz presionatuko dira (saihetsetara). Hatzak gerturatzeko saiatzeko presioa mantenduz, titiburuaren oinarrirantz zuzendu ukitu gabe. Hatzak ez irristatu azalaren gainean. Mugimenduak errepikatu modu erritmikoan.
- ▶ Eskua biratuz jarraitu, bularraren inguruan, titiburutik ateratzen diren konduktu guztietatik esnea ateratzeko.
- ▶ Bular batekin 10 minutu inguruz egin ondoren, prozesu bera egingo dugu beste bularrarekin.
- ▶ Lehen hilabeteak igaro ondoren, haurtxoak ez dio titiari uko egingo tarteka gure esnea duen biberroia erabili arren. Tanta kontagailu bat, xiringa, koilaratxo bat edo, hobeto, edalontzi txiki bat ere erabil daitezke. Kasu horietan, ama ez den beste norbaitek elikatzea komeni da.

## PCE - PED - Ama esnea ateratzeko tresnarekin ateratzea

---

(2,Y54.0/1,210/284)

- ▶ Ateratzen hasi aurretik, eskuak garbitu.
- ▶ Esnea ateratzeko tresna bularrean jarri aho anatomikoaren bidez; titiburuak erdian geratu beharko du.
- ▶ Ateragailu bakoitzaren argibideei jarraitu.
- ▶ Ama esnea izoztu ( $-20^{\circ}\text{C} \pm 2^{\circ}\text{C}$ ko izozkailuan) eta 6 hilabete arte gorde daiteke izoztuta. Hozkailuan adierazitako eremuak erabili, desizozte eremuak saihestuz.
- ▶ Esnea atera bezain laster, hozkailuan hoztu beharko da kontsumitu edo jarraian izoztu arte.
- ▶ Esnea izozteko ontziak poltsak, potoak, botilak... izan daitezke, plastikozkoak zein kristalezkoak. Ontzi horiek txikiak izan beharko dute, hartualdi bakarrean edo egunekoetan edateko kantitate egokia izateko. Ontzi horiek esterilak edo ontzi garbigailuan  $80^{\circ}$ tan garbitutakoak izan beharko dute.
- ▶ Ontziak:
  - ▶ Haurtxoak esne gehiena zuzenean bularretik hartuko balu, ez dio axola zein ontzi material erabiltzen dugun, baldin eta garbia badago.
  - ▶ Egokiagoa da esnea kantitate txikitan (60-120 gramo) gordetzea, haurtxoak hartualdi bakoitzean behar duena soilik desizozteko. Esnea desizoztu ondoren, hozkailuan 9 orduz gorde daiteke eta ezin daiteke berriro izoztu.
- ▶ Ontziari etiketa jarri esnea atera den egunarekin eta orduarekin.



## PCE - PED - Amaren esnea mantentzea eta kontserbazioa

(2,Y54.0/I,210/284)

- ▶ Oritza (1. esnea) . . . . . 12-24 ordu, temperatura egonkorrean
- ▶ Ama esnea (lehen egunetan) . . . . . 6-10 ordu, temperatura egonkorrean
- ▶ Ama esnea (1. astean) . . . . . 8-10 egunetan, hozkailuan
- ▶ Ama esnea (ondorengoak):
  - 24 - 72 ordu, hozkailuan
  - 2 aste hozkailuaren barnealdean kokatutako izozkailuan.
  - 3-4 hilabete 3-4 izarreko izozkailuan  $-18^{\circ}\text{C}$ , 6 hilabetetan

### ESNEAREN KONTSERBAZIOA

- ▶ Ahal den neurrian plastikozko ontziak erabili (esterilak). 24 orduz gorde daitezke hozkailuan. Ondoren, erabiliko bada, marian edo mikrouhinetan berotu, haurrari eman baino lehen ondo astinduz, temperatura frogatuz.
- ▶ Ez baldin bada erabili, izozkailuan jarri eranskailu batekin ateratako eguna eta ordua adieraziz. Izozkailua potentzia handikoa baldin bada ( $-20^{\circ}\text{C}$ -ra iritsiko dena), gehienez 6 hilabetez mantentzen daiteke.

### ESNEA DESIZOZTEA

\* Plastikozko poltsa bikoitzak, eskuzko prozedura

- ▶ Esnea izoztuta baldin badugu, desizozteko ondorengo pausoak jarraitu
  - 1° Izozkailutik atera
  - 2° Hozkailura eraman
  - 3° Berotu

### MIKROUHINEAN DESIZOZTEA

- ▶ Esnea hozkailuan desizoztuko da (8-12 ordu lehenago), edo marian 5 eta 15 minutu artean, ur zorrotada bero baten azpian
- ▶ Edan baino lehen astindu.
- ▶ Desizoztutako esnea hozkailuan biltegitatu daiteke gehienera jota 48 ordutan.
- ▶ Temperatura egonkorrean dagoen desizoztutako esnea momentuan bertan edan behar da, edo osterantzean, bota egin behar da
- ▶ Temperatura epelean desizoztutako esnea ama-esnearen berdina da

## PCE - PED - Aholkularitza edoskitze artifizialean

---

(2,Y54.0/1,212/286)

### BIBEROIA PRESTATZEA

- ▶ Prestatzen ari garen bitartean higieena zaindu
- ▶ Biberioia iturriko edo botilako tapadun ur irakinarekin prestatu (2 minutu)
- ▶ Lehenik eta behin, ura jarri eta ondoren, esnea gehitu
- ▶ Biberioia eta titiordea irakin 10 minututan
- ▶ 30cc ur jartzen denean, oro har, goraino betetako esne ontzitxo bat. INOIZ EZ jarri dagokiona baino kopuru gehiago; izan ere, esnearen kontzentrazioa aldatuko luke eta digestio arazoak eta deshidratazioa eragin dezake haurraren.
- ▶ Erabiltzeko edo kontzentratzeko prest dauden formulekin zabaldu latak estali edo hoztu egin behar dira. Formula hozten baldin bada, berotu botila ontzi batean ur beroarekin ipiniz. Haurrari emango zaizkion elikagaiak berotzeko inoiz ez erabili mikrouhina.
- ▶ Eskala graduatu ikusgarria duten biberioiak erabili.

### TITIORDEAK

- ▶ Titiordeak berriak baldin badira, eta **gogorak** baldin badaude, erabili baino lehen, irakiten ari den uretan 5 minutuz jarrita bigundu daitezke
- ▶ Froga ezazu **titiordearen zuloaren tamaina** biberioari ahoz behera eutsiz. Formulak titiordetik tantoak bota behar ditu:
  - txorrota moduan erortzen baldin bada, zuloa handiegia da eta ez da erabili behar.
  - Erotzen den formula txikiegia baldin bada, astindu egin behar da: beste bat eros dezakezu edo zuloa bigundu dezakezu titiordea 5 minututan irakiten jarritz, eta horren zuloan sartutako josteko orratz batekin.
  - Haurrak zurruputzen duenean titiordea **itsatsi** egiten baldin bada, haurra titiordetik urrundu aireari sartzen uzteko.
- ▶ **Proba ezazu** formularen temperatura zure eskumuturraren barneko aldearen gainean tanto batzuk erortzen utziz. Epela dagoela nabaritzen baldin baduzu, temperatura zuzena da.
- ▶ **Hartualdian zehar atsedean hartzen** utzi eta zutik eta sorbaldaren gainean jarri, airea botatzen laguntzeko bizkarrean kolpetxoak emanez
- ▶ Hartualdi bakar batean osoa edaten ez baldin badu, **biberioia ez gorde**; izan ere, haurraren listuarekin nahastuz gero, hondatu egiten da

### ZURE SEME-ALABARI BIBEROIA NOLA EMAN

- ▶ Titiordea ahoan jarri, mihiaren gainean. Zorua ahoarekin ukitu behar duzu eustearen erreflexua estimulatzeko. Biberioia arkatzen baten moduan eutsi. Botila inklinatuta mantentzeko, titiordea airez

beteta gera dadin eta haurrak airea arnastu ez dezan.

- ▶ Manten ezazu haurra gertu elikatu ahal izateko. Elkarreragin sozialeko eta sehaskan jartzeko plazer unea izan daiteke. Haur batzuek besteek baino denbora gehiago pasatzen dute elikatzen. Pazientzia eduki. Esna edukitzea eta zurrupatzen jarrai dezan bultzatzeko beharrezkoa izango da. Titiordea bere ahorantz mugitzeak zurrupatzea bultzatzen dezake.
- ▶ Biberioa behar adina inklinatuta mantendu behar da, titiordea beti beteta egon dadin. Horrela, haurrak ur gehiegi edatea ekidingo da. Elikadura bakoitzaren hasieran, behin baino gehiagotan korrokada egiteko aukera eman. Hazten doan heinean, zuk esperientzia gehiago duzu, eta haurrak korrokada egin dezan noiz gelditu behar duzun jakingo duzu.
- ▶ Haurra geldi egon ezinik baldin badago eta hartualdian negar egiten baldin badu, begira ezazu pixoihala aldaketarik dagoen edo ez ikusteko edo hartzea eta sehaskan jartzea nahiago duen jakiteko. Negarrez jarraitzen baldin badu eta gosez dagoela badirudi, litekeena da jatea behar izatea. Haurrek ez dute gosea ordutegiagatik izaten.
- ▶ Hartualdi bakoitzaren ostean haurra eskuinean jartzen baldin bada, aire burbuilak errazago atera daitezke. Bildutako manta batek edo paretan jarritako toaila txiki batek alboko etzanera posizioan jarriko du.
- ▶ Haurrak hartualdi bakoitzean ez du beti kopuru bera hartzen. Ez du zorroztasunez jokutzen. Oro har, behar duena hartuko du.
- ▶ Formularekin elikatutako haurraren gorozkien ezaugarriak:
  - Formularekin elikatutako haurraren gorozkiak hori masilla kolorekoak eta bigunak dira, baina forma dute (amagandiko edoskitzekoak baino trinkoagoak). Haurrak, agian, hesteetako mugimendua izango du elikadura bakoitzaren ostean lehen bi asteetan, baina hori pixkanaka-pixkanaka jaitsi egingo da egunean 1 edo 2 libraldi izatera iritsi arte.

## **BIBEROI ETA TITIORDEEN GARBIKETA**

- ▶ Biberioak eta titiordeak kontuz garbituko dira ur eta xaboiarekin, barnealdean gera daitezkeen hondakinak kentzeko eskuila erabiliz.
- ▶ Ondoren, irakin egingo dira hamar minutuz guztiz esterilizatzeko.
- ▶ Esterilizazioa egiteko balio dezaketen farmazia produktuak daude.

## PCE - PED - Bularreko haurraren idorreria zuzentzeko aholkuak

---

(3,Y20.1/2/4, 375-386-396)

### **AMAREN ESNEA EDO ARTIFIZIALAREKIN SOILIK ELIKATZEN DEN KASUETAN:**

- ▶ Edoskitze artifizialaren kasuan, esne kontzentrazioa disolbatu: 35cc ur, hauts esnearen goraino betetako ontzitxo bakoitzeko
- ▶ Amagandiko edoskitzearekin, kaka egiteak ez dira egunerokoak izango
- ▶ Maiz gertatzen den estimulazioa ekidin
- ▶ Hesteetako erritmoa hobetzeko, ariketak eta masajeak egin

### **ADINAREN ARABERA, ELIKAGAI OSAGARRIA DUTEN EDOSKITZEAK:**

- ▶ Edoskitze artifizialaren kasuan, esne kontzentrazioa disolbatu: 35cc ur, hauts esnearen goraino betetako ontzitxo bakoitzeko
- ▶ Goizean, laranja edo mandarina zukuak eskaini
- ▶ Zuntz edo idorgarri gutxi duten elikagaien erabilera mugatzea (arroza, azenarioa, platanoa, sagarra...)
- ▶ Zuntzean aberatsak diren elikagaien erabilera haztea: zerealak (glutenarekin edo gabe, edoskitze hilabeteen arabera), barazkiak (lekak, zerbak, porruak, alkatxofa...)
- ▶ Ura irenstea ugaritzea
- ▶ Maiz gertatzen diren estimulazioak ekidin
- ▶ Hesteetako erritmoa hobetzeko ariketak eta masajeak egin
- ▶ Uzkiko esfinterra kontrolatzen hasten diren haurren kasuan, pixontzian edo komunean postura egokia bilatzen lagundu, aulkiaren laguntzarekin; horrez gain, pertsona helduaren neurri higieniko-dietetikoak eta gainerako gomendioak izan behar dira kontuan

### LESIOA SENDATZEKO MODUAREN ETA AZALAREN ZAINKETA GANEAN HEZTEA

#### Y27.1 Azala narriatzea

- ▶ Dermatitis atopikoa kutsagarria ez den hanturazko gaixotasun kronikoa da; agerraldiak azaltzen dira eta horien ezaugarri nagusia azkura handia eta azaleko ekzema moduko lesioak agertzea dira. Zenbaitetan, agerraldiek iraun egiten duten helduaroan ere. Tratamenduak ez du lortzen sendatzea, baina agerpenak kontrola ditzake.

#### DERMATITIS ATOPIKOA DUEN HAURRARENTZAT GOMENDIOAK:

- ▶ Hori eragin dezaketen faktoreak identifikatu eta eragotzi (animaliak, muturreko tenperaturak, garbigarri agresiboak, aerosolak, hautsa, arropa estua edota narritagarria...).
- ▶ Hurrek atzamarka egitea saihezi. Haurraren azakalak garbi eta motzak egotea komeni da. Gaue-tan, behar izanez gero, kotoizko eskularruak jarri azalean lesiorik egin ez dezaten.
- ▶ Haurraren estres maila ahalik eta gehien gutxitu, agerraldiak areagotu egin baititzake horrek, baina haurra gehiegi babestu gabe.
- ▶ Eguzkitan, neurrian eta babesarekin egotea mesedegarria izan daiteke.
- ▶ Bainu garaian:
- ▶ Ur epelarekin luzea ez den bainua edo dutxa har dezake. Urari itsasoko gatz eskukada bat bota diezaiokezu.
- ▶ Garbitzerakoan eta lehortzerakoan ez igurtzi. Ukitu leunekin egin.
- ▶ Xaboi edo krema bereziren bat erabili beharrik izanez gero, galdetu zure Pediatria Zerbitzuari.

### PREBENTZIO NEURRI ZEHATZAK ETA OROKORRAK HARTZEN LAGUNTZEA

**Y27.2** Azala narriatzeko arriskua

#### 6 HILABETE BAINO GUTXIAGOKO BULARREKO HAURRAK

- ▶ Ez dira eguzkitan zuzenean jarri behar. Eguzkitako lodia eta iluna erabiltzea komeni da, eguzkitatik babesteko. Haurtxoaren arropa freskoa eta lasaia izatea komeni da. Bero handia egiten duen egunetan, likidoak maizago eskaini behar zaizkie.
- ▶ Bere kotxean parkean eta paseoan ibiltzea komenigarriagoa da igerilekuan edo hondartzan egotea baino.
- ▶ Edozein eguzkitako krema eman aurretik, zure Pediatria Zerbitzuari galdetzea komeni da.

#### 6 HILABETE BAINO GEHIAGOKO BULARREKO HAURRAK

- ▶ Ahal dela hegala dituen txanotxo erabiltzea komeni da eguzkitik babesteko.
- ▶ Zure Pediatria Zerbitzuan galdetu eguzkitik babesteko zein krema erabili.
- ▶ Ez jarri haurra eguzkitan eguzkiak indar handiena duen orduetan (gure itzala gure neurria baino txikiagoa denean).
- ▶ Eguzkitan egon ondoren, azala hidratatzeko esnea erabili.

#### 18-24 HILABETE BAINO GEHIAGOKO HAURRAK

- ▶ Eguzkitan eduki behar badugu haurra, 15 zenbakia baino gehiagoko eguzkitik babesteko krema erabili maiz (iragazgaitzak).
- ▶ Babeserako kremak eguzkitan jarri baino 30 minutu lehenago eman behar dira, uraren kontrakoak izan beharko dute eta 1-2 orduz behin eman beharko dira.
- ▶ Eguzkitan egoteko denbora pixkanaka handitu beharko da; lehen egunean 5-30 minutu; bosgarrenean 30-120, azal mota 1-4 izatearen arabera.
- ▶ Hegal zabala duten txanoak eta arropa freskoa erabili. Saiatu eguzkiak indar handiena duen orduak saihesten, baina ordu horietan hondartzan edo igerilekuan egonez gero, azala ez eduki zuzenean eguzkitan (kamisetak, galtzak... erabili).
- ▶ Azala hidratatzeko esnea erabili eguzkitan egon ondoren.

Eguzkiaren erradiazioa azalera ere irits daiteke eguzkiaren islatutako argiaren bidez. Elurrak, hondarrak eta urak haurraren azalera iristen den islatutako argia handitu ohi dute.

Haurra eguzkitan dagoen bitartean, haurraren begiak babestea komeni da eguzkia oso bizia bada.

Zenbait botikak fotosentsibilizazioak sor ditzake; haurra sendagairen bat hartzen ari bada, galdetu zure pediaterari umea eguzkitan egon daitekeen.

Eguzkiaren erradiazioak metagarriak direla gogoan izatea komeni da; izan ere, helduaroan azaleko minbizia garatzeko arrisku faktore oso garrantzitsua da, batez ere arrisku handiena duten azalen kasuan (1 eta 2 motak).

AZAL MOTA	BABES MOTA
<p><b>1. mota</b> Oso azal argia, beti oriztak edo pekak dituena; azal oso argia. Beti erretzen da eta oso gutxi belzten.</p>	<p>Ez egon eguzkitan erradiazio maila handiena duten orduetan. Arropa arinarekin babestu (galtza luzeak, beso luzedun kamiseta eta txapela). Uraren kontrako fotobabeslea (15 faktorekoa edo gehiagokoa), udan egunero eta eguzkitan jarri behar den bakoitzean.</p>
<p><b>2. mota</b> Azal argia, askotan pekak dituena. Hile horia. Beti erretzen da eta gutxi belzten.</p>	<p>Eguerdian eguzkitan ahalik eta gutxien egon. Arropa babeslea eta 15 edo gehiagoko babeslea duen Faktorea eguzkitan egon beharrik izanez gero.</p>
<p><b>3. mota</b> Azal argia, gutxitan oriztak. Gaztaina koloreko ilea. Batzuetan erre egiten da eta beti belzten da.</p>	<p>Eguzkitan denbora asko egon behar izanez gero, 2. motakoaren bera. Denbora gutxi egon behar izanez gero, 10 - 15 babes faktorea.</p>
<p><b>4-6. mota</b> Azal beltzarana ( 5 eta 6 ilunak edo beltzak), oriztarik ez; gaztaina kolorekoa edo beltza duen ilea. Ez da erretzen, beltzaran kolore ona.</p>	<p>Ez du gehienetan babesik behar. Hasieran 6 - 8 faktorea.</p>

## PCE - PED - Bat-bateko heriotza sindromearen prebentzioa

---

(9,Y23.3,601)

- ▶ Bularreko haurraren edo ume txikiaren bat-bateko heriotza (ohikoagoa izan ohi da haurraren lehen bi asteen eta lehenengo urtearen artean); kasu horietan, autopsiak ez du lortzen kausa egokia zein den azaltzen.
- ▶ Kausa ezezaguna da, baina bihotzaren eta arnasaren funtzioa kontrolatzen duten nerbio sistemako mekanismoetan gertatzen den anomaliak eragiten duela uste da.
- ▶ Zenbait ikerketen arabera, lotura egon daiteke ahoz behera etzanda egotearen eta SMSL handitzearen artean. Horregatik, bularreko haurra ahoz gora edo albo batera etzatea komeni da.
- ▶ Bularreko haurraren bat-bateko heriotzaren kasuan lotura izan dezakeen beste faktore batzuk ere badaude. Ondorengoak dira batzuk, esate baterako: sehaska biguna, tabako kea dagoen giroa eta gehiegizko giro berogailua.

### **PREBENTZIOA:**

- ▶ Haurrak sehaskan ahoz gora edo albo batera jarri, horretarako kontraindikaziorik ez badago behintzat (errefluxu gastroesofagikoa...). **Haurra EZ JARRI AHUSPEZ LO EGITEKO**
- ▶ Saiatu haurrari ez uzten gehiegi berotzen (bero handiegia egiten duen giroak, arropa...).
- ▶ Sehaskako zati bigunak kendu (bigunegiak diren burkoak edo koltxoiak)
- ▶ Ez erre haurtxoaren aurrean edo haurra egongo den geletan.



## PCE - PED - Zilbor hestearen infekzioaren prebentzioa

---

(9,Y25.3,616)

1. Haurra beti bezala bainatu
2. Zilbor hesteko eremua ondo lehortu gaza edo toaila garbi batekin, igurtzi gabe.
3. Zilbor hestearen egoera aztertu (usaina, egitura, jariakina).
4. Hautazkoa da zilbor hestea gaza garbi batekin estaltzea.
5. Saiatu eremu hori ez ukitzen denbora luzez pixoihal hezeekin.

Haurtxoaren zilbor hestearen eremua ukitu aurretik eta ondoren, garrantzitsua da zaintzaileak beti **eskuak garbitzea**.

Erizaintzako diagnosien katalogoa  
beharren arabera



## **I. OXIGENATZEKO BEHARRA**

- 1.1 Jardutearekiko intolerantzia ..... (Y50.0)
- 1.2 Jardutearekiko intolerantziarako arriskua ..... (Y50.1)
- 1.3 Arnasbideen garbitasun eragingabea ..... (Y26.0)
- 1.4 Perfusio tisular periferiko eragingabea ..... (Y28.3)
- 1.5 Perfusio tisular periferiko eragingaberako arriskua ..... (Y28.4)

## **2. ELIKATZEKO BEHARRA**

- 2.1 Nutrizio desoreka gehiegikeriagatik ..... (Y24.1)
- 2.2 Gehiegikeriagatik nutrizio desoreka izateko arriskua ..... (Y24.2)
- 2.3 Nutrizio desoreka eskasiagatik ..... (Y24.0)
- 2.4 Likido bolumenaren eskasia izateko arriskua
- 2.5 Irensteko narriadura ..... (Y53.1)
- 2.6 Autozaintzeko gabezia: elikadura ..... (Y53)
- 2.7 Gabeziagatik nutrizio desoreka izateko arriskua
- 2.8 Edoskitze eraginkorra (amagandikoa/ mistoa/ artifiziala)
- 2.9 Eraginkorra ez den edoskitzea (amagandikoa/ mistoa/ artifiziala)

## **3. ELIMINATZEKO BEHARRA**

- 3.1 Idorreria ..... (Y20.1)
- 3.2 Idorreria subjektiboa ..... (Y20.2)
- 3.3 Inkontinentzia fekala ..... (Y20.0)
- 3.4 Beherakoa ..... (Y20.3)
- 3.6 Gernu inkontinentzia urgentziagatik ..... (Y29.2)
- 3.8 Autozaintzeko gabezia: komunaren erabilera ..... (Y57)
- 3.9 Idorreria arriskua

## **4. MUGITZEKO ETA JARRERA EGOKIAN EGOTEKO BEHARRA**

- 4.1 Mugikortasuna narriatzea ..... (Y50.4)

## **5. LO EGITEKO ETA ATSEDEN HARTZEKO BEHARRA**

- 5.1 Loaren patroia nahastea ..... (Y50.5)
- 5.2 Nekea ..... (50.3)

## **6. JANZTEKO ETA ERANZTEKO BEHARRA**

6.1 Autozaintzeko gabezia: jantzi eta apaindu ..... (Y52)

## **7. TERMOERREGULATZEKO BEHARRA**

7.1 Gorputzaren tenperatura desorekatzeko arriskua ..... (Y25.5)

## **8. GORPUTZ HIGIENA ETA LARRUAZALAREN OSOTASUNA MANTENTZEKO BEHARRA**

8.1 Larruazalaren osotasuna hondatzea ..... (Y27.1)

8.2 Larruazalaren osotasuna hondatzeko arriskua ..... (Y27.2)

8.3 Aho mukosaren alterazioa ..... (Y27.0)

8.4 Autozaintzaren gabezia: higieena ..... (Y51)

## **9. ARRISKUAK SAIHESTEKO ETA SEGURTASUN PSIKOLOGIKOA IZATEKO BEHARRA**

9.3 Infekzio arriskua ..... (Y25.3)

9.4 Antsietatea ..... (Y30)

9.5 Dolu aurreratua ..... (Y33.0)

9.6 Dolu disfuntzionala ..... (Y33.1)

9.7 Alde bateko desatentzioa ..... (Y62.2)

9.8 Haur istripuen arriskua

## **10. KOMUNIKATZEKO BEHARRA COMUNICARSE**

10.1 Ahozko komunikazioa andeatzea ..... (Y10.0)

10.2 Interakzio soziala andeatzea ..... (Y73.0)

10.3 Bakardade soziala ..... (Y73)

10.4 Sexu patroia eragingabeak ..... (Y72)

10.5 Ingurunea interpretatzeari buruzko andeatze sindromea ..... (Y10.1)

10.6 Gurasoen eta bularreko haurren / umearen arteko lotura narriatzeko arriskua

## **II. BEHAR ESPIRITUALA**

11.1 Sufrimendu espiritual ..... (Y80)

11.2 Erabaki gatazka ..... (Y02.1)

11.3 Itxaropenik eza ..... (Y60.0)

## **12. NORK BERE BURUA GAUZATZEKO BEHARRA**

- 12.1 Rolaren betetze maila eragingabea ..... (Y71)
- 12.2 Aurre egite eragingabea ..... (Y02)
- 12.3 Egoerari buruzko autoestimu txikia ..... (Y61.3)
- 12.4 Gorputzaren irudiari buruzko nahastea ..... (Y61.0)
- 12.5 Gurasoen rola gatazka arriskua

## **13. ATSEGIN HARTZEKO BEHARRA**

- 13.1 Atsegin hartzeko jardueren urritasuna ..... (Y50.2)

## **14. IKASTEKO BEHARRA**

- 14.1 Tratamendua ez betetzea ..... (Y02.4)
- 14.2 Tratamendua ez betetzeko arriskua ..... (Y02.5)
- 14.3 Osasuna sortzen duten jogaerak ..... (Y01.0)
- 14.4 Hazkuntza eta garapena hobetzeko gogo

P E D I A T R I A N P R A K T I K A R A K O G I D A K